

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-12-15
ASTELEHENA
478. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.EUS
TOKIKOM



"Azken orduan erabakitakoaren emaitza da 'Lurrean etzanda' diskoa"

Ruper Ordorika | Musikaria | 32

Elkarteetan ere ezingo da erre laster, lege proiektua onartuz gero | 2



Bergarako bikotea hirugarren, dantza solte txapelketan | 30



Banako berdinketarekin amaitu da parekotasun handiko derbia | 22

Lehena izatea ez baita erabakigarri

Kuadrillaka egiten den lasterketa da Santamas krosa –bakarkako sariak ere badira–, eta aurten inoiz baino gehiago izan dira | 24



Korrikalariak helmugako zuzenean, zale artean.

JOSETXO ARANTZABAL



Bost auzipetuetako lau. | IMANOL SORIANO

"Alarma piztuta", baina duten babesarekin pozik

"Epaiketa politikoen amaiera" eskatzeko, Bergarako epaitegia giza katez inguratu zuten zapatuan, Librek deituta. Han izan ziren amaitzean eta hastear diren bi epaiketetako auzipetuak: Aitziber Plazaola, Aitor Arantzabal, Mikel Garaiondo eta Ino Galparsoro –Mikel Zubimendi falta zen–. | 5

SINADURAK	
	AGUSTIN UNZURRUNZAGA 9
	9 AMAIA TXINTXURRETA
	ENERITZ URRUTIA 15
	17 KARLOS ETXANIZ
	ALAZNE GURIDI 18
	19 TXOMIN AZPITARTE
	IMANOL GALLEGO 37
	40 IXIDOR SOLUPE



Bergarako Udaleri esker
Gabonetako kontzerturako sarrerak ditugu
Udal pilotalekua. Bergara.
Abenduaren 20an, zapatua, 22:30ean.

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [GABON KONTZERTUA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA [GABON KONTZERTUA]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuetan baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.
Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatzita: klub@goiena.com

goienakluba



Arrasateko Udaleri esker
Marlena Smalls & The Hallelujah
gospel saiorako sarrerak ditugu
Amaia Antzokia. Arrasate
Abenduaren 23an, asteartean, 20:00etan.

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [GOSPEL] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA [GOSPEL]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuetan baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.
Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatzita: klub@goiena.com

goienakluba

Elkarteetan ere ezingo da erre

- Eusko Jaurlaritzaren lege proiektua onartuz gero, kerik gabeko guneak bilakatuko dira
- Edari alkoholodunen kontsumoa ere kontrolatu nahi da; hala, ezingo da kalean edan

IRATI GOITIA | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak Adikzioen lege proiektua onartu zuen joan den astean. Horren arabera, erabilera publikoko lekuetan ezin izango da erre-lekuaren jabetza publikoa edo pribatu izan. Eta neurriak eragingo die, besteak beste, futbol zelaiei eta elkarte gastronomikoei. Alkoholaren kontsumoa ere zorrotz kontrolatu nahi du Jaurlaritzak. Hala, kalean ezingo da edan, adibidez.

"Egungo gizartearen beharrei egokituta" hartu ditu neurriok Jaurlaritzak, Jon Darponek, Osasun sailburuak, esan duenez. Legearen helburua nagusia da pertsonen osasuna babestea; bereziki, adingabeena eta sozialki ahulak diren kolektiboena.

Elkarteetan, kezka

Elkarte gastronomikoetako kide askok ez dute begi onez ikusten Jaurlaritzaren erabakia, uste dute elkarteetan adostu beharko litzatekeela. SUDCeko -Arrasateko elkarte gastronomikoen elkarte- presidente Juan Luis Arkauz horren aldekoa da: "Guk Txalapartan bereizitako guneak ditugu. Hala, umeentzako tokiak dugu eta hor ezin da erre, ezta sukaldan ere. Nik uste dut elkarte bakoitzak erabaki behar duela zer egin". Ildo beretik mintzatu da Iturripe elkarte kide den Jesus Markaide ere eta Jaurlaritzak egindako proposamenaren aurka azaldu da erabat: "Nik uste dut bazkideen esku egon behar dela erabakia. Erre daitekeela erabakitzen badute, detektagailuak jartzera behar ditzatela, ke maila neurtzeko. Hori izan daiteke neurgailu egokia neurriak hartzeko: zigarroak itzaltzeko edo ke-erazgailua martxan jartzeko. Baina debekatzea? Etxeko egongelan ere debeka dezatela! Osasuna badago jokoan, etxeetan ere jarri beharko lirake arauak. Niretzako elkarte etxearen parte da". Leze-Txiki elkarte Antxon Zumaldek ere ez du gustuko: "Osasunaren alde hartu dute erabakia. Baina kalean erretzea ere kaltegarria izango da, ez? Nik uste dut dena debekatu nahian dabilzala eta hori ez dut gogoko". Ziar-Olako kide da Antxon Bedia eta berak uste du errespetua dela gakoa: "Nik uste dut guztientzako tokiak egon behar dela elkarteetan, erretzaileentzako eta baita erretzen ez dutenentzako. Oinarritzko arau batzuk errespetatuz gero, ez da arazorik izaten. Ez dut uste debekua konponbidea denik". Musakolako erretiratuen elkarte kide den Alberto Lascurain ere kontzientziazioaz aritu da: "Gure elkarteetan adinekoak gara guztiok eta hainbatek arazoak



Arrasateko hainbat elkarte gastronomikotako kideak Txalaparta elkarteetan, egubakoitzean. | IRATI GOITIA

dituzte. Ondorioz, errespetu handia dago, eta normalean, jendea kanpora irteten da erretzera". Txalaparteko kide den Andoni Alzelai, berriz, ados azaldu da Jaurlaritzaren lege proiektuaz: "Nik uste dut gure gustukoak izan ez arren, legeak onartu egin behar direla. Gainera, ni ados nago proposatutakoaz".

Ostalarientzat mesedegarri?

Lau urte dira jatetxe eta tabernetan ezin dela erre. "Nabarmena da tabakoaren legeak bezeroak kendu dizkidala eta batzuk elkarteetara jo dutela", esan du Lasa jatetxeko Koldo Lasak. Baina honakoa gaineratu du: "Oraingo debeku hau ere ez zait ondo iruditzen. Gobernuak berak onartzen du tabakoa saltzea eta gero denean erretzea debekatu..." Hilarion jatetxeko Gabino Yarzak ez du uste erretzearen debekua izan

denik bezeroak gutxi izanaren eragile bakarra: "Jendearen erosteko ahalmena ere jaitsi da. Osasunari begiratuta, nik uste dut ez erretzea denoi datorrigula ongi, baina horren zorrotzak izan beharra ere... Nik uste dut elkarte bakoitzak erabaki beharko lukeela, eta kontuan izan, adibidez, umeak dauden edo haurdun dauden emakumeak. Elkarteek kontrolatu beharreko zerbaitek deritot".

Futbol zelaian ere kerik ez

Lege proiektuan, zehazten den beste berrikuntzetako bat da kirol instalazioetan erretzeko debekua -instalazio itxietan, erdi-itxietan zein aire librekoetan-. Aloña Mendiko Jabi Arregik esan du ez dakitela nola aplikatuko den hemengo futbol zelaietan oraindik ez dutelako argibiderik jaso. "Indarrean jartzen bada, egingo

ditugu egokitzapenak", zehaztu du. Izan ere, egun Azkoagaingo tabernan bertan, puruak saltzen dituzte: "Betiko ohitura da futbol zelaietan kafea, kopa eta purua hartzea".

Lehen Mailako jarraitzaileei ere eragingo die lege honek. Bergarako Realzaleak lagunarteko kide da Alfonso Alonso eta ez du beharrezkotzat ikusten: "Ni ez naiz erretzailea eta izaten dut jendea ondoan erretzen; egia esan, ez didate trabarik egiten. Ez dut ikusten horrelako neurriak hartu beharrik dagoenik. Akaso, ohitze kontua izango da. Bada denbora bat Camp Nou-en ezin dela erre, adibidez. Hala ere, protesta ugari ekarriko dituela uste dut. Hori bai, indarrean jartzen bada, onartu egin beharko da". Bergarako Peña Athletic-eko kide da Izaro Aperribai, gustura hartu du berria: "Debekatzea ondo

Lege proiektuan zehazten diren isunak

Lege proiektuak isunak ere zehazten ditu. Hiru mailatan sailkatzen dira arau-haustek. Arinak: ohartarazpena edo 600 eurorainoko isuna ezarriko da. Izango dira, adibidez, adingabeek edari alkoholodunak kontsumitzea edo debekatutako tokietan erretzea. Larriak: 601 euro eta 10.000 euro bitarteko isuna ezarriko da eta/edo jarduera aldi baterako etenaraziko zaio establezimenduari, Esaterako, adingabeei edari alkoholodunak saltzea eta debekatuta dagoen lekuetan erretzen uztea. Oso larriak: 10.001 euro eta 600.000 euro bitarteko isuna ezarriko da eta/edo establezimendua erabat edo zati baterako itxiko da. Publizitateari dagozkion betebeharrak ez betetzea.

ikusten dut. San Mames gune irekia da, baina alboan norbait erretzen jartzen bazaizu, beti egiten du traba. Ez da hamar metrora esertzen, aulkiak oso gertu daude bata bestearatik. Hala ere, uste dut legea jarri beharrean, erretzaileek eurek izan beharko luketela kontuan albokoa. Noski, hori betetzen ez den kasuetan, legeak babestu beharko ditu ez erretzaileak. Hein batean, norberaren askatasuna amaitzen da, besteara zapaltzen edo gaitzen duenean. Kasu honetan horixe gertatzen da".

Kalean alkoholik ez

Edari alkoholodunen kontsumoa ere kontrolatu nahi du lege proiektu honek. Hala, bide publikoetan edari alkoholodunen salmenta eta kontsumoa debekatuko da. Horrela, tabernetako terrazetan ez bada, ezingo da kalean alkohola edan -udalaren esku egongo da araudia ekitaldiei dagokionean- eta saltokietan 22:00etatik 07:00etara bitarte ezingo da alkoholodun edaririk saldu, bertan edateko ez bada. Bestalde, adingabeei alkohol-kontsumoa debekatzen zaie lege baten bidez.

Jaurlaritzak aurreko artean onartutakoa lege proiektua da. Beraz, martxan jarri dadin, legebiltzarretik pasa behar da lehen-dabizi eta gehiengoak babestu behar du.

ESANAK

"Uste dut elkarte bakoitzak erabaki beharko lukeela erretzen utzi edo ez"

JUAN LUIS ARKAUZ | SUDC


"Ez dut uste debekua denik konponbidea; oinarritzko arauak betetzea baizik"

ANTXON BEDIA | ZIAR-OLAKO KIDEA

"San Mames gune irekia da, baina albokoak erretzen badu, traba egiten du"

IZARO APERRIBAI | ATHLETIC-EKO PEÑA

EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU



**Gipuzkoako komertzio txikia.
Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.**



puntua

ASTEKARI BERRIA

Urtarrilaren 16tik aurrera,
egubakoitzeko Goienarekin batera,
Goiena Klubeko bazkideendako.
Gai guztiak, beste ikuspuntu batetik.



**Goiena Klubeko bazkide ez bazara edo
norbaiti urte osorako oparia egin nahi badiozu:**
943 25 05 05 / kluba@goiena.eus

"Oraindik badago epaiketa hauen aurrean erantzuteko gogoia"

- ▶ "Epaiketa politikoen kontra", Bergarako epaitegia inguratu dute, eskutik hartuta
- ▶ Debagoieneko bost auzipetuen izenean, jasotako babesak eskertu du Ino Galparsorok

JULEN IRIONDO | BERGARA

Espainiako Auzitegi Nazionalan, Segikoak izatea egotzita, epaitzen ari diren 28 gazteen kontrako epaiketa amaitzean –astean amaituko da–, Batasuneko, EHAK-ko eta EAE-ANVko kideen kontrako epaiketa hastear –urtarrilean hasiko da–. Eta herriko tabernetako eta elkarteetako ordezkariak Auzitegi Gorenaren ebazpenaren zain. Aitziber Plazaola –lehenengoan auzipetua–, Aitor Arantzabal eta Mikel Garaiondo bergararrak –Mikel Zubimendik ez zuen egoterik izan– eta Ino Galparsoro arrasatearra –azken lauak, bigarren kausan auzipetuak– buruan jarrita, giza katea egin eta Bergarako epaitegia inguratu eskatu zuten zapatu arrasaldean "epai-

keta politikokoak" bukatzea. Buelta eta erdi eman zioten epaitegiari, batutako jendearen artean –bailarako herri gehienetatik joandakoak zeuden, bertakoez gain–.

"Gure eskualdean, eta Euskal Herrian ere, oraindik badago epaiketa hauen aurrean erantzuteko gogoia, eta, benetan, guk eskertzen dugu babes hori", zioen ekitaldiaren amaieran, EAE-ANVren izenean aurkeztuta, Arrasateko alkate izandako Ino Galparsorok.

Urtarriletik aurrera 35 lagun epaituko dituzte Madrilan, talde terroristako kide izatea egotzita, hamar urteko kartzela zigor eskariarekin: "Garbi dagoena da, estatu espainola ez dagoela Euskal Herriaren kontrako edozer gauza ez aprobeztatzeko".

Epaileak erabaki dezakeenari buruz galdetuta, aurrekariak –herriko tabernen auziko Auzitegi Nazionalaren sententzia– "oso txarrak" izan arren, espainiar estatuak, "egunen batean", beste bide bat hartu beharko duela zioen: "Ez dakit guri tokatuko zaigun, baina egunen batean etorriko da".

Aitziber Plazaola ere pozik zegoen debagoiendarrek zapatuko deialdiari emandako erantzunarekin; adierazi zuen euren kontrako epaiketan baieztatu dutela aurrez ziotena, euren "militantzia" dela epaitu dutena. Eman daitekeen epaia dela-eta, "alarma piztuta" dutela zioen, "edozer" izan daitekeela. Autobusa antolatu dute bailaratik eguaztenean Madrilera, auzipetuak babestera, joateko.




Plazaola, Galparsoro, Garaiondo eta Arantzabal, zapatuko giza katearen buruan. | IMANOL SORIANO



JOSETXO ARANTZABAL

Debagoiengan ere protesta, Abadiñoakoagatik

Batean eta bestean izan dira aurreko egunetan Abadiñoako ama-alaben hilketa salatzeako elkarretaratzeak –alabaren gizonak aitortu zuen, hilketatik gutxira, berak hil zituela–. Bergaran –argazkian–, adibidez, ehunetik gora lagun batu ziren, egubakoitzean plazan, *Emakumien kontrako indarkeixaik ez!* zioen pankartaren atzean, Martxanterak taldeak deituta. Bailarako herri gehiagotan ere egon ziren protestak.



Elkar argitaletxearen esker

John Andueza idazlearen 'Prime Time' liburua dugu zozketagai

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [PRIME TIME] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA [PRIME TIME]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-billete honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba



Oñatiko Ganbara Abesbatzari esker

'Carmina Burana' obra ikusteko sarrerak ditugu
Zubikoa kiroldegia, Oñati
Abenduaren 28an, 19:30ean.

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [GANBARA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA [GANBARA]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-billete honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba



Arrasateko Udalarri esker

'3 Txerri txoak eta Otsoa' haur antzerkirako sarrerak ditugu
Amaia Antzokia, Arrasate
Abenduaren 20an, zapatuan, 17:00etan.

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [3TXERRITXOAK] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA [3TXERRITXOAK]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-billete honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba



AED elkarteari esker

Santamas eguneko bertso saiorako sarrerak ditugu.
Amaia Antzokia, Arrasate.
Abenduak 22an, astelehenean, 20:30ean.

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [BERTSOAK] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA [BERTSOAK]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-billete honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba

Candyko zuzendaritzak eta langileek luzatu egin dute negoziazio epea

Aldundiak lantegiaren berrindustrializaziorako plan bat egiten dihardu

A. L. / A. E. | BERGARA

Egubakoitzean bildu ziren Candy-Hoover enpresako langileen ordezkariak eta zuzendaritza batzordea. Printzipioz, erabaki sendo bat hartu eta azkenengo bilera izan behar zuen negoziatorako bidea ekarri du: abenduaren 23ra arte negoziazio epea luzatzeko akordiora iritsi dira, azkenean.

Bi aldeak gaurkoa zuten azken batzarra, eta akordiorik lortu ezean epaitegietara jo beharko zuten.

Berrindustrializazio plana

Azken batzar horretan puntu erabakigarriak adostuko zituztela iragarri zuten; hori horrela, Diputazioa egiten dabilen berrindustrializazio planaz aritu ziren, besteak beste.

Langileak Aldundiarekin harremanetan daude, hain zuzen ere, Diputazioa eratzen ari den plan horrek eurengan izango duen eragina jakiteko. Horren harira, gaur batzarra izango dute Aldundiarekin.



Ramon Romero, enpresa batzordeko presidentea, egubakoitzeko bileratik irten berri. | ARANTZAZU EZKIBEL

Bestalde, azpimarratzekoa da Candyren zerbitzu teknikoak sei langileak eta Bartzelonara zihozten langileak espeditetik kanpo geratuko direla, eta Candy

moduan jarraituko dutela lanean azaldu dutela langile batzordeko kideek.

Bestetik, orain arte adierazi dutenari trinko eusten diote

langileek: Bergarako lantegia bideragarria izaten jarraitzen duela eta egoera kaskarraren erantzule bakarra Candy dela bermatu dute.

Plazaola babesteko manifestazioa, bihar Oñatin

A.T. | OÑATI

Espainiar gobernuak euskal preso politikoen "aurkako ofentsiba berria" hasi duela eta, bihar, martitzena, manifestazioa egingo da Oñatiko Foruen plazan 19:00etan, Oñatiko Sortuk deituta. Europatik datorren zuzentarauaren kontra eginez, espainiar gobernuak preso gehiago kaleratzeko oztopo guztiak jartzeko prest dagoela diote Oñatiko Sortukoek, eta horren aurrean, euskal preso politikoen eskubideen errespetuaren alde jardutea eta presoaren eskubideen aldeko borroka indartzea nahi dute. Auzitegi Goren espainiarrak bilkura egingo du bihar 47 euskal preso politikoren zigorraren luzapena erabakitzeko. Euskal preso politiko horien artean dago, hain zuzen, 24 urte kartzelan igaro ostean berriki atera den Alberto Plazaola oñatiarra. "Ezin dezakegu ahaztu preso horiek zigorra bete dutela. Izan ere, preso horiek delitu berdinatik zigorra bi aldiz betearazi nahi zaie", adierazi dute Oñatiko Sortutik.

Bailarako ordezkariak bikain, First Lego League lehiaketan

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Zapatuan Zamudion jokatu zen gazteak zientzia eta teknologiarako hurbiltzeko asmoa duen First Lego League lehiaketako EAEko kanporaketa eta bertan parte hartu zuten bailarako bi ikastetxetako ikasleek: Arizmendi eta Mariaren Lagundikoek.

Arizmendikoak bosgarrenez ari dira txapelketan parte hartzen eta Arizmendi-Ikerlan-MUren lau taldek jokatu zuten lehen fasea Zamudion. Txapelketako hirugarren saria eskuratu zuen, gainera, horietako talde batek eta hurrengo kanporaketarako -Espainiako txapelketarako- sailkatu

da. Tenerifen jokatu da kanporaketa hori.

Bergarako Mariaren Lagundiko ikasleek, berriz, aurten hirugarren aldiz hartu dute parte lehiaketan eta parte hartu zuen taldeak Innobasque saria eskuratu zuen, robotaren mekanika onenari emandako saria, hain zuzen ere.

Robotekin hiru misio egin behar izan zituzten ikasleek eta proiektu zientifikoa ere azaldu behar izan zuten gazteek Zamudion. "Gure gazteek oso lan ona

egin dute, umore onez, jarrera bikainarekin eta adiskidetasun handiz lehiatu dira. Guztiak izan dira txapelketan", azaldu zuen Arizmendiko Mikel Egiguren irakasleak zapatuko lehiaketaren ostean. Mariaren Lagundiko Ekaitz Azula irakaslea ere pozik zegoen ikasleen lanarekin: "Oso gustura ibili gara. Gazteentzat esperientzia ona izan da, kontaktuak eta lagunak ere egin dituzte. Ondo ibili dira eta espero ez genuen saria ere eskuratu dute. Pozik etorri gara etxera".



Arizmendikoak, Zamudion. | M. EGIGUREN

Inauguratu dute San Juan auzoko baseliza

Auzolanean berritu dute Bergarako San Juan auzoko baseliza eta domekan egin zuten inaugurazio ekitaldia. Zuzeneko musika, dantzariak eta bertsoak izan ziren ekitaldian eta apaizaren bedeinkapena ere jaso zuen erabilera anitzera egokitu duten aretoak. Ondoren, bazkaria egin zuten auzotarrek baselizan bertan.



Langabezian eta kalte-ordain barik geratu direla diote

Cegasa taldearen kudeaketa txarra 2008a ezkerro datorrela diote, Txinan enpresa sortu zutenetik

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Komunikabideetara bidalitako ohar bidez, Cegasa taldeko langile kaltetuek euren egoera salatu eta "benetako errealitatea" argitara eman nahi izan dute. Orain arte, Sherpak Cegasa erosi izana "arrakastatsutzat" jo dela salatu dute, eta, horregatik, euren bertsioa azaldu dute: "Bertsio erreala, ez hain triunfalista eta askoz ere dramatikoagoa".

Langileen errealitatea

"Kalean eta kalte-ordain barik geratuko diren 320 familien bertsioa da hau", diote oharrean. Gaineratu dute kaleratzeak mezu elektronikoen bidez jakinarazi zaizkiela langileei. "Normala da 130 langileek lanean jarraituko dutela zalaparta handiz esatea, erre-

litatean 320 langile (%71) kalean geratuko direnean?", azaldu dute. Datuen harira, zera diote: "Lanean jarraituko duten 130ak lantalde osoaren %29 dira, eta ez, esan izan duten moduan, %45".

Kudeaketa "txarra" dela diote

Azken urteetan taldeak izan duen kudeaketaren gainean zera diote: "Kudeaketa txarra 2008a ezkerro dator, pila alkalinoen ekoizpena deslokalizatu eta Txinan enpresa berria sortu zutenean", diote. Eta gaineratu dute: "Orduan 184 langile kalean geratu ziren". Orduetik hona "norabide txarrean" jardun dutela diote, eta bidean "600 langile" geratu direla lan barik.

Zuzendariak "neurrigabeko soldatak" jasotzen dituzten bitar-



Cegasaren Gasteizko lantegia. | ARTXIBOA

tean langileek murrizketak izan dituztela salatu dute. "Urte askotako lanaren ondorioz irabazitako eskubideetan murrizketak, eta murrizketak baita ere gure eskuratze-gaitasunean soldaten izozteekin, aldi baterako enplegu erregulazio-espedituekin, ez ordaintzeekin, eta, azkenean, iruditu genezakeen bukaera okerrarekin: kalera kalte-ordain

barik". Langile kaltetuek ez dute arrakastatsutzat jotzen Cegasa Sherpari saldu izana, ezta Cegasaren eta Azkarren arteko operazioa ere. Sherpak Oñatiko lantegia eta komertzializazioen negozioa patente guztiekin 2,5 milioigatik eskuratu izana "barregarria" dela diote. Urrian, zuzendaritzak, administrazio konkurtsalak eta langileek itun soziala sinatu zuten;

hori ez betetzea ere salatu dute langileek.

Oñatiko langileei elkartasuna

Langile kaltetuek lanean jarraituko duten 130 langileak zoriondu nahi dituzte, eta, era berean, elkartasuna adierazi, euren soldata baldintzak "asko okertuko" direlako. "Etapari berri honetan zorte ona opa dizuegu", diote.

Diputatuaren esanetan euren da aurrekontu proiekturik "eraginkorrena"

A.E. | ARRASATE

Martin Garitano, ahaldun nagusiak euren aurrekontu proposamena defendatu du batzar nagusien ezezkoren aurrean. Haren esanetan "legealdi honetako aurrekontu proiekturik eraginkorrena" aurkeztu dute, "pertsonak erdigunean" jarri eta "aurrekontu sozialak eta murrizketarik gabekoak" landuz.

Hala, gobernuaren borondatearen erakusgarri, hiru egitasmo nabarmendu ditu honela: "Lehen, ekonomia sustatzeko 85 milioi euro bideratu ditugu, oposizioko alderdiek sustatutako foru arauak eskatzen dutena baino gehiago; bigarrena, sei milioi euroko poltsa jarri genuen mahai gainean negoziatzeko; eta hirugarrena, ekonomia sustatzeko gure estra-



Martin Garitano, Gipuzkoako ahaldun nagusia. | GOIENA

tegia aurkeztu dugu". Proposamenarekin aurrera egin ezinda, ohartarazi du, zorpetze berria behar duten inbertsioen eta laguntzen kasuan ezezko horrek "kudeaketa zaildu" egingo duela, baina aipatutako "izpiritu berberarekin" datozen asteetan ekimen zehatzak aurkeztuko dituztela aurreratu du Garitanok.

Interes elektoralak

Ezezkoak interes elektoralei erantzuten diela dio Garitanok. Oposizioak negoziatze nahi ez izatea ere salatu du.

EAEko ekonomia %1,3 hazi da hirugarren hiruhilekoan

A.E. | ARRASATE

Eustatek osatzen dituen hiruhilekoko kontu ekonomikoen arabera, EAEko ekonomia hazkunde erritmoa bizkortu zuen aurtengo hirugarren hiruhilekoan eta %1,3an kokatu zuen BPGaren urte arteko tasa, aurreko balioa lau hamarrenetan hobetuz.

Datu horrek amaiera eman dio EAEko ekonomia Europar Batasunaren batez bestekoarekiko zuen atzerapenari, eremu hori ere %1,3 hazi baitzen hirugarren hiruhilekoan. Hala ere, Europak egonkortasuneko joera erakutsi zuen bitartean,

EAEko ekonomia gehikuntza tasa bizkortu zuen. Halaber, EAEk puntu erdi batean gainditu du Euroguneko tasa (%0,8), nahiz eta Espainiaren aldean (%1,6) oraindik hamarren batzuk gutxiago garatu den.

Familien kontsumoa handitu

Barne eskariaren barruan, familien kontsumoaren sendotasuna nabarmendu zen berriro, bigarren hiruhilekoaz jarraian, aurreko urtearen aldean %2,2 handitu zelako. Kontsumo horren zati bat aurrezkiarekin finantzatu dute.



ORDAINDU

Ordaindu, PSE-ko batzarkideekin

Ordaindukoak gustura geratu ziren egubakoitzean Rafaela Romerorekin eta Maria Jesus Egidorekin Batzar Nagusien egoitzan egindako bilerak emandakoarekin. Plataformak jakinarazi zuen PSE-EEko ordezkariak ados agertu zirela udaletan aurkeztekoak dituen mozioen edukiarekin. Harremanak izaten jarraitzekotan geratu ziren bi aldeak Donostian egindako bileran.

Azken urtean sortu egin dira lanpostuak

A.E. | ARRASATE

Azken urtebetean ia 4.500 lanpostu sortu dira Eustaten datuen arabera. Halaber, aldagai horrek marraztu duen joerak lan merkatuaren etengabeko susperraldia adierazten du, 2012ko laugarren hiruhilekoan eta 2013ko lehenengoan jaso zen %-4,2tik gorago aipatu den %0,5era iritsi arte. Industriak lanpostuen %1,4 galdu zuen azken urtebetean; beste bi sektoreetan hazi dira lanpostuak.

Yolanda Iglesias | Agifes-eko psikologoa

"Geratu egin behar dugu eta pentsatzen jarri zergatik pasatzen ari zizkigun gauzok"

- ▶ Antsietatearen gainean jardun du berriki Arrasaten, eta argi utzi du gaindi daitekeela
- ▶ "Bizitzan ez dago eskola hoberik esperientziak, norbere akatsak, arazoak baino", dio

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Buru gaixotasunen bat duten pertsonen eta horien senideen Gipuzkoako elkarte da Agifes, eta bertako psikologoa Yolanda Iglesias. Antsietatea "beldurraren adierazpen emozionala" dela azaldu zuen Arrasaten.

Antsietateari buruz ari garenean antsietate patologikoari buruz jardun ohi dugu, ezta? Ze, normalean denok dugu eta gainera ona da; baina patologikoa ere esan dezakegu, kakotx artean, mesedegarri dela, gure barruan zerbait ondo ez doala adierazten digulako?

Kontua da sufrimendu maila. Ez da ona sufritzea, antsietate hori kontrolatzeko gai ez garenean gertatzen dena, nolabait. Antsietatea ona da adierazten digulako mehatxu bat dugula, eta neurrien bat hartu behar dugula. Mehatxu horri duena baino kategoria handiagoa ematen diogunean, edo ez dakigunean zergatik gauden tentsioan edo beldurrez, irits daiteke arazo bilakatzea. Eta, kasu batzuetan, antsietate hori duena nahikotxo desgaitzea eragin dezake. Antsietateak, batez ere, eragiten duena da kontrol-galtze sententzia, gertatzen zaizkizun gauzen kontra ezin duzula egin sentitzea. Beraz, eraginkortasun ezaren sententzia sortarazi dezake. Antsietate patologikoa dela esaten dugu maila jakin batzuk gaintzen dituenen eta pertsonaren eguneroko funtzionamenduari eragiten dionean. Pertsona batzuen kasuan, antsietatearen ondorio fisikoak handiak izaten dira, eta izan ditzakete kolitis ultzerosoak, dermatitisa... Eta horiek eragin diezaiekete euren arlo pertsonalari eta lan arloari. Kasu hauetan hitz egiten dugu antsietate patologikoari buruz, eta gainera, normalean, egoten dira lotuta beste antsietate patologia batzuekin edo beste era bateko trastornoekin, adibidez depresioarekin.

Esan duzun gauzetako batera itzuliz, beti ez dago, beraz, uneko gauza konkretu bat antsietatea eragiten duena; antsietatea agertzea lotuta egongo da pertsonaren izaerarekin, arazoei aurre egiteko duen moduarekin, ezta?

Antsietatea da beldurraren adierazpen emozionala, nolabait. Eta, bai, agian egoera batek ez ditu une jakin batean antsietaterik eragiten, baina agertzen zaizu aurrerago. Batzuetan izan dezakezu antsietatea, eta ez dakizu zergatik, ez zara arazoak identifikatzeko gai. Agorafobia izan dezakegu, egoera berriei beldurra;



Yolanda Iglesias. | JULEN IRIONDO

edo paniko atakeak, pilatutako antsietatearen ondorioz. Baina bai, batzuetan oso argia da zerk eragiten duen antsietatea, eta beste batzuetan ez. Minaren adibidea jarri ohi dut: minak adierazten digu zerbait gertatzen ari zaigula; eta min dugunean ez gara hainbeste min horretan zen-

"Antsietateak eragiten duena da kontrol-galtze sententzia"

"Sarri egoten da lotuta bakoitzaren norberari buruzko ideiarekin"

tratzen, baizik eta gure kezka izaten da ze gaixotasun izan daitekeen min hori eragiten diguna. Antsietatea ere horrela ikusi behar dugu. Antsietatearen sintometan bakarrik jartzen badugu fokua, ez dugu ikusten antsietatea esaten ari zaigula zerbait ari zaigula gertatzen; geratu egin behar dugu eta pentsatzen jarri zergatik pasatzen ari zaizkigun gauzok, zergatik orain eta zergatik ezin dugun kontrolatu.

Gaindi daiteke antsietatea arazoaren muinera jo gabe?

Tratatu gaitzke; une batean medikazio beharra izan dezakegu, antsiolitikoen beharra. Eta psikoterapia bat ere has daiteke; saiatu ikasten zergatik ari zaigun gertatzen, eta nola bizi gaitzkeen antsietatearekin, aipatutako desgaitze maila horretara iritsi gabe. Aukeraketa pertsonala da; nik uste, bien arteko konbinazioa dela egokiena, kasu batzuetan behintzat. Baina beti da ona jaki-

tea zergatik ari zaizkizun gauzak gertatzen, bati zergatik eragiten dioten ohikoak izan daitezkeen gauzek, edo zergatik orain bai eta lehen ez. Sarri egoten da lotuta bakoitzaren pentsamendurekin eta norberari buruzko ideiarekin.

Sintomei aurre egiteko aipatzen

"Tentsioa kanporatzeko modu onak dira erlaxazio ariketak, yoga..."

"Pentsamenduek mehatxuaren esajerazioa izan dezakete oinarrian"

zenituen yoga, erlaxazioa...

Adierazpen fisikoak dituenek, tentsioa kanporatzeko modu onak dira erlaxazio ariketak, yoga, kirola egitea... Kontua da norbere burua zaintzen hastea; pentsatu beharrean ezin dugula kontrolatu, neurriak hartzea. Aipatutakoekin tentsioa kanporatzen duzu, adrenalina kanporatzen duzu, oso ondo dator. Honek guztiak, gainera, serotonina sortzea dakar; zorientasunaren hormona deitzen zaio, eta, beraz, ez dugu bakarrik tentsioa kanporatzen, baizik eta hobeto sentiarazten gaitu. Elikadura ona ere garrantzitsua da: "Zerbait gertatzen ari zait, zaindu egingo naiz". Elikadura ona, lo erritmo ona; eta, horrekin batera, zalantzan jartzen hasi datozkizun pentsamenduak, mehatxuaren esajerazio batean oinarrituta egon daitezkeelako. Baina antsietatetik irten egiten da; bakarrik ezin bada, laguntzarekin.

Aipatzen zenuen papera eta arkatza erabili beharra.

Bai, ze hasten bagara jasotzen ze unetan jartzen garen urduri, ze pentsamendu izan ditugun une horietan, zer gertatu zaigun aurretik eta ondoren, has gaitzke informazioa lortzen. Antsietatearen kontrako gauza onena da informazio ona. Eta agian hasiko gara gauzak elkarri lotzen: testuinguru jakinetan gertatzen zaigula, gauza jakinetan pentsatzen dugunean... Berreskuratu behar da kontrol sententzia, zergatik zerbait egiteko aukera duzun sententzia. Agian ez zara ohartu urduri jarri aurretik pentsamendu bat izan duzula, egoera berrien aurrean gertatzen zaizula, edo urduri jartzean dituzun ondorio aurreikuspen txarrak ez direla gero betetzen. Arkatza eta papera, beraz, baliagarriak dira.

Horrelako prozesu batetik pasatzeak norbere burua hobeto ezagutzen lagunduko du, ezta?

Bizitzan ez dago eskola hoberik esperientziak, norbere akatsak, arazoak baino. Esaten den bezala, hiltzen ez zaituenak indartsuago egiten zaitu. Ez dut esan nahi positiboa denik antsietate prozesu batetik pasatzea, baina da bizitzako beste esperientzia bat, eta onartu behar da bizitzan dena ez dela zorientasuna. Bizitzaren parte da egoera zail batzuk izatea; onena ez da halakorik gerta ez dakigula, baizik eta jakitea halakorik gertatzen bazaigu gai izango garela aurre egiteko. Hori da, benetan, buru osasun on bat.

ZABALIK

AGUSTIN UNZURRUNZAGA
goiena.eus/komunitatea/



Immigrazioa eta hauteskundeak

S ei hilabeteren buruan udal hauteskundeak izango dira; beste behin, bertan bizi diren atzerritar ez komunitario gehienek ezingo dute botorik eman. Hemengo sistema elkarrekikotasunean oinarrituta dago, eta hamabi estatu ez komunitarioekin bakarrik daude akordioak sinatuta.

Egia da Espainiako Estatuan elkarrekikotasunak aurrerapauso bat ekarri zuela. Lehen, atzerritar komunitarioek soilik zuten botoa emateko eskubidea. Baina, hala eta guztiz ere, funtsean, sistema diskriminatorioa da. Ez du kontuan hartzen bertan bizi diren atzerritar ez komunitarioen egoera konkretua, nongoak diren bakarrik. Askoz demokratikoagoa izango litzateke erresidentzian oinarritzea, Europako beste leku batzuetan egiten den antzera, hala nola Holandan, Suedian eta Danimarkan.

Nahiz eta oraindik hauteskunde errolda guztiz osatua ez egon, azken udal hauteskundetako errolda kontuan hartuz, Euskal Autonomia Erkidegoan 5.335 atzerritar komunitario inguruk izango dute botoa emateko eskubidea, 1.227 Araban, 2.495 Bizkaian eta 1.813 Gipuzkoan.

Ez komunitarioen kasuan, elkarrekikotasun akordioak sinatu dituzten estatuak sartuko dira hauteskunde erroldan: Bolivia, Cabo Verde, Txile, Kolonia, Korea, Ekuador, Islandia, Norvegia, Zeelanda Berria, Paraguai, Peru eta Trinidad eta Tobago. Baina kasu honetan, beraiek eskatu beharko dute izen-ematea, abenduaren 1etik datorren urteko urtarilaren 15era bitarte. Jatorri horietakoek epe horren barruan joan beharko dute bizi diren udaletara izen ematera.

Badira urte batzuk Europako hainbat lekutan udal mailan demokraziaren eremua zabaltzearen aldeko joera dagoela, eta, boto eskubidea nazionalitatean oinarritu beharrean, erresidentzian oinarritzearen aldeko joera indartzen ari da. Bide hori jorratu behar dugu, Konstituzioaren 13.2 artikulua eskatuta.

"Erresidentzian oinarritzearen aldeko joera indartzen ari da"

USTEAK USTE

AMAIA TXINTXURRETA | atxintxurreta@goiena.com

'Lagun ezkutua', buruhauste

Kuadrillan ohitura daukagu Gabon sasoian urtero *lagun ezkutua* egiteko. Hori erabiltzen dugu aitzakia gisa guztiok elkartu, afari eder bat egin eta tertulian egoteko. Dagoeneko egin dugu *misteriozko zozketa* eta horrekin batera etorri da urteroko buruhauste: zer oparitu diot? Kuadrillan askok ohitura dute eskulanak oparitzeko, baina horretan nik pazientzia gutxi! Oraindik ez dut *lagun ezkutua*-n eta oparrietan pentsatzen hasteko denborarik ere hartu eta aitortu behar dut pereza pixka bat ere ematen didala. Seguru irakurle batek baino gehiagok buruhauste bera izango duela... Animo, zerbaitekin asmatuko dugu-eta. Bide batez, ondo pasa Gabonetan!

KALE INKESTA

Zer iruditzen zaizu lege berria?



AMAIA FUERTES
ARRASATE

"Ba, askatasuna murrizten dutela uste dut. Baina, azkenean, jendeak nahi duena egingo du".




JON ZEZIAGA
ARRASATE

"Nire ustez, oso gaizki dago. Adibidez, elkarrekin bazkideek osatzen dituzte, norberaren etxea izango balitz bezala da".



MARIA JESUS MONJE
ARRASATE

"Oraindik ez dut iritzi argirik horri buruz. Baina uste dut alde batetik ondo dagoela; umeendako, adibidez".



IMANOL ROMAN
ARRASATE

"Gaizki ikusten dut. Tabernetan eta horrelako leketan ondo ikusten dut, baina futbol zelaietan, adibidez, ez".

HANDIK ETA HEMENDIK

Tabakoa, betiko borroka

Leire Narbaiza Arizmendi
eibar.org/blogak/leire/

Gaurko gaiarekin badakit jendea haserretuko zaidana, ez naizela berriro ere "emakume jator hori", edo "irratian berba egiten duen zoro hori". Ziurrenik, batzuek begitan hartuko naute; izan ere, badira gai bi pertsonak zuzurrenak ere zoratzen dituenak: futbola eta tabakoa. Kontra eginez gero, jakina. Futbolaz ez dut jardungo, hemen askotan egin dut berba-eta. Gaur tabakoaz egitea tokatzen zait, eta tabakoa soziedadeetan! Elkarte gastronomikoak hainbat esentziaren gotorleku sakratu hori!

Aspaldi nerabilen tabakoaren gaia buruan, lehengo egunean, trenaren zain banku batean jarrita nengoela ondokoaren kea etorri zitzaidanean. Nasan geunden, "kalean" nolabait esatearren. Harritu ninduen ke bafada hain gertu sentitzeak, aspaldi sentitu ez nuena sentitu nuelako. Orduan konturatu nintzen ze jende gutxi erretzen duen nire inguruan! Ia inork ez! Eta lankide eta ikasleak lantokian

sartu aurretik egiten dutenez, jakin ere ez dut egiten, sentitu ere ez dut sentitzen kea, zorionez. Era berean, esango nuke, erretzaile ziren askok ere laga diotela erretzeari, eta ez ditugula jasan behar ke txarrak. Eta hau guztiau tabakoaren legeengatik da. Bai!

Debekuak sentimendu anibalenteak sortzen dizkit; izan ere, ez dut oso gogoko galarazi behar izatea zerbait lortzeko. Baina badirudi hala dela: tabernetan -ordu txikietan ez bada, behintzat- sar liteke ketu barik, gustura egon gintezke bertan inoren keak arnastu gabe. Hala ere, gobernuak inposatu behar izatea ere latza da! Horrek sortzen dituen kontraesan guztiak (zergak, pribatutasuna, eskubideak...).

Tira, nik ere erretzen nuen, erre zitekeen tokietan. Ez naiz inoiz erretzaile ofiziala izan, baina bai soziala: lehenengo zuritoarekin sortzen zitzaidan erretzeko gogoia. Baina irten ezean, ez. Sekula ez nintzen menpekotasunaren sareetan jausi, zorionez. Baina egia da ezer erretzen ez dudanez keak gehiago molestatzen nauela, lehen ere hala zen, baina gutxiago.

Egia esatera, debekuenak funtzionatu du. Gogoan dut

duela ez hainbeste urte, ia edonon erretzen zela. Medikuek kontsultan, adibidez. Gelan euskaltegian, Eibartik Donostiara *rutako* autobusean (herriz herri zihoan hartan) puru ederrak erretzen ikusi eta jasan ditugu!

Beste mundu bateko kontuak dirudite. Orduan ere esaten zen orain esaten dena: nor da gobernu arautzeko, gure eskubidea da, nola pasatuko dute denbora hori guztia erre barik? Eta horri esker, zoritxarrez, lortu dira ke bako espazioak.

Beharbada, horregatik, araei aurre egiteagatik, da, antza Amelia Barquinek bere blogean dioena: espazio autogestionatuetan tabakoa jaun eta jabe dela. Eretzea "progrea" dela, ez erretzeko eskatzea, atzerakoa...

Pertzepzioak pertzepzio, debekua onerako izan dela uste dut. Oraindik automobilen keak daukagu airean, eta badakigu horiek murrizteko gobernuak askoz gauza gutxiago egingo dituela, interes ekonomiko gehiegi daudelako jokoan (autogintza, zergak, gasolina eta hidrokarburoen negozioa, autopistak,...). Ke horiek ere egunen batean murriztuko ahal ditugu!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Altor Izagire

Zuzendaria Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailkatu arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaria), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna

Julen Iriondo

Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo

Argazkilaria Imanol Soriano

Publizitatea Mireia Larrañaga,

Amaia Mundiñano, Zortza Martin,

Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

publi@goiena.com

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

Leg. Gordailua: SS-88/2004

ISSN: 2174-369X

Tirada: 4.050 ale

Diffusio: 3.893 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala




Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Goiena Klubeko abenduko zozketak!

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



Arrasateko hipermerkatua
 EROSKI

PS3

Sony Play Station 3 kotsola eta Invizimals The Lost Kingdom jokoak

Parte hartzeko sariaren izena:
PS3




www.harremandenda.org
 Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.
 Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra



ARRIKRUTZ
 oñatiko kobak

Sarrerak
Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.
 Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikruz



argia

Jokoak
Kosmojet, 2 joko ditugu
 Parte hartzeko sariaren izena:
Kosmojet



IRRIEN LAGUNAK KLUBA

Irrien Lagunak aldizkaria
Aldizkariaren 15 ale.
 Parte hartzeko sariaren izena:
Irrien Lagunak

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
 Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
 Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

BERGARA



Odola emateak ez du minik ematen, eta hamar minutu eskas besterik ez da behar. | GOIENA

ANTONIO HERZOG
BERGARAKO ODOL
EMAILEEN LEHENDAKARIA

"Odola ezin da fabrikatu eta ospitale batean ia edozertarako behar da"

Zein da emaileen perfila?

50 urte inguru izan ohi dituzte, eta horregatik behar dugu jende gazte gehiago.



GOIENA

Bergaran ere zenbait kanpaina egiten dituzue.

Agorrosinen eta Migel Altunan odol-emate bereziak egiten ditugu, gure lana ikustarazteko balio izaten du.

Odola behar da?

Azken urteotan, odola bada-gonez, erlaxatu egin gara. Pentsa ezazu: odola ezin da fabrikatu, eta edozein ebakuntzatan erabiltzen da.

Bizitzaz beteriko odol tantak

- ▶ Gizonek urtean lau aldiz eman dezakete odola; emakumeek, hirutan
- ▶ 2015ean ere hamabost egunean behin egingo dira odol-emateak

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Hiru minutuan behin pertsona batek odola behar izaten du Erki-degoan. Odol behar horiei erantzuteko lanean dihardu Odol Emaileen Elkarteak, eta hurbilean, zehatzago, Bergarako Odol Emaileen Elkarteko ordezkariak.

Odol ematea borondatezko ekintza, doakoa, anonimoa, elkartasunezkoa eta arduratsua da. Emaileek ordainez ez dute dirurik jasotzen. "Ekintza on bat gau-

zatzek ematen duen poztasunagatik egiten dute", dio Bergarako ordezkariaren lehendakari Antonio Herzogek. Dohaintza horri esker, beste komunikazio eta elkartasun era bat ezartzen da gizakien artean.

Oso erraza

Odola emateko bete behar diren baldintza mediko eta legezkoen ostean, odola ematea oso gauza erraza da, ez du minik ematen,

eta hamar minutu eskas behar dira hori egiteko "gizonek urtean lau aldiz eman dezakete odola, emakumeek aldiz hirutan", diote Bergarako delegatuek. Emakumeen burdin erreserba baxuagoak dira muga honen arrazoia. Saioen artean, gainera, denbora tarte bat errespetatu behar da.

Elkartasun keinu bat

Gipuzkoan dauden odol beharrak betetzen direla esan du Herzogek,

"kontuan hartu behar da, ordea, odolaren erabilera eta beharrak gero eta gehiago direla". Horregatik ez da kopuru zehatz bat markatzen. Bergaran, emaile kopurua handitzeko lanez gain, "leialtasuna" lortu, eta emaileak fidelizatzeko ahalegin berezia egiten dute.

Animatzen zaretenok kontuan izan eguaztenean urteko azken odol emateak egingo dituztela osasun zentroan.

2015EKO EGUTEGIA

HILABETEA	EGUNAK
Urtarrila	7 eta 21
Otsaila	4 eta 18
Martxoa	4 eta 25
Apirila	8 eta 22
Maiatza	6 eta 20
Ekaina	10 eta 24
Uztaila	8 eta 22
Abuztua	26
Iraila	9 eta 23
Urria	7 eta 21
Azaroa	4 eta 18
Abendua	2 eta 16

*Odol emate guztiak 18:00etatik 20:00etara egingo dira, osasun zentroan.

Inoiz pentsatu duzu odola ematea?

JAVIER BARRENETXEA
BERGARA



"Urte askotan eman dut odola, baina adin kontuak direla-eta emateari utzi diot. Jendeak ez uste arren, odola ateratzea ez da molestia bat, eta, kontrara, mesede handia egiten diozu gizarteari".

OIHANA ORCAJO
DONOSTIA



"Askotan pentsatu izan dut odola ematea, baina ez naiz animatu. Gurasoak emaileak ditut eta askotan esan didate, baina tatuajea egin nuen... eta urte bat itxaron behar denez... ez dut egin".

PILI GISASOLA
BERGARA



"19 urterekin hasi nintzen eta erretiroa hartu nuenean utzi nion odola emateari. Ez dago zertan, baina ebakuntza egin zidatenean utzi egin nuen. Orain jendeak injektioari beldurra dio, baina ez da ezer".

ASIER ARRIETA
BERGARA



"Izan naiz, baina azken hiru urteetan ez dut eman, mareatu egin nintzen eta etenaldi bat egitea erabaki nuen. Baina bueltatuko naiz; hemen, gainera, indarrak berritzeko jateko zerbait ematen dizute".

ESTI LASAGABASTER
BERGARA



"Ez dut inoiz odolik eman. Gaztetan animatu nintzen, baina pisura iristen ez nintzenez ez zidaten utzi, eta ordutik ez naiz berriro saiatu, baina, nire ustez, emaileek mesede handia egiten dute".



Basotxok omendu zituen 90 urteko bazkideak elkarrekin, omenaldiaren amaieran. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Bedoña auzoko Santa Eulalia jaiak giro onean ospatu dituzte

A.T. | ARRASTE

Festa giroa nagusitu da asteburuan Bedoña auzoko Santa Eulalia jaietan. Egubakoitzean, patata-tortilla eta postre lehiketa egin zuten eta horrekin hasi ziren auzotarrak festa giroan sartzen. Zapatuan, berriz, umeak izan ziren protagonista; Gorritiren animaliek sekulako arrakasta izan zuten haur eta gaztetxoeren artean, eta poni

eta asto gainean ibiltzeko aukera ere izan zuten. Txokolate-jana eta gaztaina-jana ere izan zuten txikienek. Nagusiek, ostera, mus eta briska txapelketen ostean, auzotarren afarian bapo jan zuten. Domekan, doke txapelketaren ostean meza nagusia izan zuten Garagarzako abesbatzarekin, eta ondoren, jende dezente elkartu zen mokadutxorako.



Gorritiren animaliekin primeran pasa zuten ume eta gazteek. | IMANOL SORIANO

ARETXABALETA

Omenaldia egin diete Basotxoko 90 urteko hamar bazkideei

Aureskua, abesbatza, opariak, txokolatea eta trikiti doinuak izan zituzten

AMAIA TXINTXURRETA | ARETXABALETA
Basotxo erretiratuen elkarteko kideek, aurten 90 urte bete dituzten bazkideak omendu zituzten zapatuan, Santa Lutzia egunean. Hamar lagun izan ziren omenduak: Juan Urreta, Matias Uribealzo, Caridad Perez, Juana Alda Fernandez, Pilar Azkarretazabal, Nieves Lopez de Oñate, Consuelo Olabe, Fructuosa Camuesco, Pilar Agirre eta Pilar Gartzia.

Herriko dantzari gazteek aureskua dantzatu zieten omenaldiaren hasieran. Ondoren, Basotxoko kantu taldeak bi abesti kantatu zituen: *Zorionak zuri* eta *Elurra mara-mara*. Opariak banatu zizkieten gero; Gabonetako saski bat eta Basotxoko zapia. Eta horren ostean, Basotxo kantu taldeak euren elkarteko ereskia abestu zuen ozen. Trikiti doinuak lagun zirela, txokolatea

merendatu zuten bertaratutakoek jaiari amaiera emateko.

Elkartea jendez lepo bete zen eta gustura egin zuten ospakizuna: "Oso pozik gaude horrelako bazkideak izateaz. Oso egun polita izan da, jendea pozik egon da eta gu ere gustura gaude", azaldu zuen Jose Ignacio Isasmendi elkarteko presidentek. Omenduek ere ederto pasa zuten arratsaldea lagunartean.

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.

Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuetarako erreferentzia puntua.

Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.

Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.

Interneten bereizten gaituen puntua.

Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.

Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.

Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago

www.domeinuak.eus webgunean

Hemen duzu zure puntu berria



gure domeinua

OÑATI

Elkar Heziren Gabon bezperako azokak elkartasun mezua zabaldu du berriz

Hamasei Gobernu Kanpoko Erakunde euren proiektuak erakutsi dituzte

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Hamasei Gobernu Kanpoko Erakunde ezberdinek jarri zituzten euren postuak zapatu goizean Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeak antolatutako Elkartasun Azokan. Hortxe erakutsi zituzten euren produktuak eta proiektuak. Horrez gain, baina, ikastetxeko ikasleek egindako madalena eta bizkotxoak ere bazeuden salgai. Txosna ere muntatu zuten eta euroak txanxiengatik aldatzeko postua ere

jarri zuten, erosketak txantxiekin ere egin zitezkeen-eta.

Abenduan egin ohi du, Gabon aurreko egunetan, Elkartasun Azoka Elkar Hezik. Badira gutxienez hamalau urte lehenengoa egin zutela.

Azoka, baina, ikastetxean egin duten Elkartasun Hamabostaldiaren barruan sartzen da. "Txiapaseko bi emakumek, esaterako, hango egoeraz berba egin ziguten. Gu puntua eginen ari gara eta

asmoa da egindako koloretako puntuzko lanekin zuhaitz bat apaintzea", adierazi zuen Maialen Santos ikasleak. Emakume horietako bat, gainera, Oñatiko Foruen plazan hasi zen harizko lan bat egiten. "Kontsumo arduratsua izan da hamabostaldi horretan jorratu dugun gaia. Produktu teknologikoen piezak non egin eta ze ibilbide duten ere aztertu dugu", gaineratu du Martin Jaurregialtzo irakasleak.



Herritarrek azokako postuetako batek zituen produktuei begira. | IMANOL SORIANO



Ozkarbi elkartean egin zuten ekitaldia. | IMANOL SORIANO

ELGETA

Otarren zozketa eta luntxa izan dituzte Elgetako erretiratuek

O.E. | ELGETA

Gabon jaiak gainean daudela eta antolatu duten kultura aste-ari amaiera emateko, otarren zozketa eta luntxa izan zuten egubakoitz iluntzean Elgetako erretiratuek.

62 erretiratu

Ozkarbi elkartean elkartu ziren hainbat erretiratu 18:30erako. "Guztira 62 lagun elkartu ginen eta oso ondo egon ginen. Urtero egiten dugun ekintza izaten

da. Diru pixka bat gordeta izaten dugu opari batzuk zozkatzeko eta luntx horretan egiten dugu zozketa. Aurten ere horrelaxe egin dugu. Gabonetako produktuak dituzten otar batzuk prestatu ditugu eta gero denok elkartean gaudela egin dugu zozketa, denen aurrean atera dira opariak egokitu zaizkien izenak", azaldu du Luis Mari Arantzetak. Jateko eta edateko, ardoa eta txistorra izan zituzten, besteak beste.

Arrasateko hipermerkatua

zurekin

Musakola 11 ARRASATE. Tel.: 943 71 10 30

1880
Erosi Jijona edo Alicante
1880 turroi bat
+ botilla bat Segura Viuda
Brut Erreserba cava

11,99
eurogatik bakarrik
Promozio barik
15,40 euro

Eskaintza baliagarria 2014ko abenduaren 17ra arte

42LB650V LED SMART 3D TELEBISTA
A+ sailkapen energetikoa.

539€

42"
106,68 cm

53,90 €/hileko

DOAKO FINANTZAKETA
10 hilabeteen

3D BI BETAURREKO OPARI

Furby Boom!

Una nueva generación está naciendo

79,86€

alea

OÑATI

Moxalak eta jostunak Oñatin ere, Santa Lutzia eguna ospatzeko

Edurne Agirrezabal jostuna omendu zuten Lagun Leku elkarteak, Eteon

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Jostunen zaindaria da Santa Lutzia eta hala, eskuz egindako eta jositako lanen erakusketa egitea pentsatu zuten Oñatiko Lagun Leku elkarteak. Zapatuan egin zuten erakusketa hori, tokatzen zen egunean. Oraindik ere besteendako josten aritzen den Edurne Agirrezabal ere omendu zuten. "Asko estimatzen diet omenaldi hau baina gaur nik jasotako bertso, opari eta besarkada denak omenaldian parte

hartu duten guztiekin banatu nahi nituzke, hemen dauden gehienei konpondu diet eta poltsikoren bat edo egin diet mozorroren bat", adierazi zuen Agirrezabalek omenaldian.

Zumarragako feria

Omenaldirako, eskuz egindako lan asko zituzten erakusgai jarrita Lagun Lekuko tabernan. Mantelak, tapeteak, mantak eta buruko zapiak, esaterako. Bazegoen duela 70 bat urte eskuz bordatu-

tako mantel bat ere eta baita lehengo josteko makina bat eta patrioiak ekartzen zituzten aldizkari zaharrak.

"Josteko tailer txiki bat dugu hemen, Lagun Lekun, eta horregatik pentsatu genuen Santa Lutzia eguna horrela ospatzea. Horrez gain, gainera, moxal pintxoak ere prestatu ditugu herritarren artean banatzeko. Hala, Zumarragako feriari ere keinu bat egin diogu", adierazi zuen Lagun Lekuko kide den Lourdes Ugartek.



Eskuz jositako gauzekin egindako erakusketa. | O.E.



Mirari Sagarzazuk idatzitako hiru bertso abestu zizkioten Agirrezabali omenaldian. | O.E.

EDURNE AGIRREZABAL | JOSTUNA

"Lehengo makinekin josten dut oraindik, indar handiagoa dute"

Txikia zela hasi zen Edurne Agirrezabal josten eta jarraitzen du oraindik.

Zer nolako josteko lanak egin dituzu?

Arropa onik ez dut inoiz josi. Gonak eta mozorroak, aldiz, mordo bat. Konponketak ere asko: krema-ilerak jarri, fraken barrenak hartu, hankartearen babesak jarri, apurtuak konpondu...



O.E.

Etxean jostendu zu?

Bai, eta lehengo makinekin, indar handiagoa dute eta. Bergarako Confecciones Vascas enpresan ere ibilia naiz, mahoizko alkandorak egiten.

Inor etorri zaizu josten ikasteko gogoz?

Ez, ez. Hala ere ez dakit erakusteko balioko nukkeen, neure erara josten dakit nik-eta.

Zorionak, Andrea!

Andrea Navarro izan da hirugarren saioko lehiaketaren irabazlea.



Andrea Navarro irabazlea eta Aintzane Lasa Arrasateko Udaleko ordezkaria saria ematen.



badagogauzazailagorik



Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea
baino gauza zailagorik.
Arrasaten, euskaraz.



Arrasateko
euskalgintza



IMANOL SORIANO



ELGETA

IMANOL SORIANO

Hondarribitik Elgetara egun pasa

Aurten ere etorri dira Hondarribiko arraunlariak Elgetara. Duela bederatzirte hasi zen ohiturari eusten diote oraindik eta elkarte horrek Elgetan duen lagunartean gonbidatuta etortzen dira arraunlariak urtean behin. Han arraunean ez, baina pilotan eta musean ibili ziren. "Jarraitzaile finak dira elgetarrak eta egun ederra antolatzen digute urtero. Pozik etortzen gara", zioen zapatuan Asier Puertas arraunlariak.



Hilaren 20an banatuko dituzte saskiak Herriko plazan; Ibai-Arte txartela erabili izana sarituko dute merkatariek. | J.B.

Gabonetarako 100 otzara banatuko ditu Ibai-Artek

Zozketan sartzeko aukera dago oraindik, elkarteko txartelaz erosketak eginda

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aurten bosgarren urtez, Ibai-Arte merkataritza elkarteak Gabonetako 100 otzara zozketatuko ditu Ibai-Arte txartela erabiliz elkarteko kide diren komertzioetan erosketak egiten dituztenen artean. Zozketa bidez banatzen dira otzarak eta Ibai-Arteko bezeroen fideltasuna saritzea da ekimenaren helburu nagusia. Saskiak abenduaren 20an banatuko dira Herriko plazan (13:30), eta askotariko produktuez osatuta daude: bi cava botila, lau ardo botila, gazta, txorizoa, saltxitxoa, pikillo piperrak, zainzuriak, anak, turroiak eta bonboiak, besteak beste.

Ibai-Arteko zuzendaritza taldeko kideen arabera, "sekulako harrera" izaten du saskien ekimenak: "Oso pozik gaude herri-

tarrek egiten dugun lana baloratzen dutelako. Aurtengoa bosgarren urtea da eta dagoeneko oso errotuta dago bezeroen artean. Gabonetako saskien ekimena geratzeko etorri da".

Loteria-txartelak doan

Saskien zozketa ez da, baina, Ibai-Arte Gabonetara begira antolatu duen ekintza bakarra. Elkarteko kide diren edozein saltokitan erosketak egiteagatik Errege eguneko loteria-txartelak oparitu dituzte; 72.608 zenbakia duten txartelak, hain justu.

Horrez gain, joan den zapatuan haur eta gaztetxoendako egin ziren animazio ekintzak errepikatuko dituzte hilaren 20an; tirolina, pendulua, puzgarriak, joko ludikoak, *super-jumping*-a, mahai-futbol erraldoia... Zabal

izango da eskaintza; Biteri plazan, 11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Helburu argia du ekimenak: "Adin guztietako haur eta gazteek Gabon garaiko egun hauetan Arrasaten gozatzea gura dugu", diote Ibai-Artekoek.

Bezeroekin batera, cava kopa

Era berean, nobedade moduan, urtea cavarekin topa eginez bukatuko du Ibai-Arte: "Abenduaren 31n cava kopa batez gozatu ahal izango dute bezeroek 12:00etatik aurrera, Ibai-Arteko kide diren saltokietan".

Bestalde, udalerrira girotu eta Gabon giroa emateko kaleak argiztatu dituzte Gabonetako argidun bola eta errezelekin saltoki, fatxada eta balkoiak apainduz. Horrez gain, Ibai-Arteko loreontziak ere pazko loreekin apaindu dira.

Gabonak ekintzaz beteta datoz Iturbide egoitzan

Askotariko kantaldiak daude egitarauan; urtarrilaren 5era arte ia egunero dago zerbait

J.B. | ARRASATE

Abenduaren 9an hasi ziren Gabonetako ekintzekin Iturbide egoitzan eta urtarrilaren 5era bitartean egitarau zabala prestatu dute egoiliarrendako. Gaur Arizmendiko Olarte guneko haurren kantaldia (10:00) eta Oñatiko Pake Leku abesbatza-aren emanaldia izango dituzte (17:30). Bihar Arrasate Musikalen Gabonetako kontzertua izango dute, 17:30ean, eta etzi diana txapelketa (10:00) eta gaztaina erreteak jateko aukera izango

dute (17:30). Ondoren, Gabon kantak abestuko dituzte. Hilaren 18an, Al-Andaluseko abesbatza etorriko da (18:00) eta hilaren 19an, berriz, Udaleko ordezkariak opariekin etorriko dira (13:00). Egundorretan ere Gabonetako bingoa izango dute (17:00).

Abenduaren 24an Goikobaluk kontzertua emango du (17:00) eta hilaren 26an Gabonetako bolo txapelketako finala izango dute (10:00). Amaitzeko Hiru Errege Magoen bisita izango dute urtarrilaren 5ean (17:30).

Ferixalekua eta Altamira lotzen dituzten igogailuak itxita egongo dira bihar, hilak 16, egun osoan

Arrasateko Udalak jakitera eman duenez, Ferixalekua eta Altamira auzoa lotzen dituzten igogailu publikoen kanpoaldeko beiraren garbiketa lanak egingo dira. Lan horiek direla-eta, bihar, abenduak 16an, igogailuak itxita egongo dira egun guztian zehar. Era berean, Musakolako kiroldegiko saunan lurzoru berritu egin behar du Aukeak. Bada, hobekuntza lan horien eraginez, gaur hasi eta egunera bitartean sauna gunea itxita egongo da (egun biak barne).

1934ko urriko iraultzaren gaineko liburua aurkeztuko dute bihar Kulturaten, 19:00etan

Octubre de 1934 en Euskal Herria. Revolución, insurrección y huelga general liburua aurkeztuko dute bihar Kulturaten (19:00). Jesus Gutierrez, Josu Chueca eta Juan Ramon Garai izan dira idazleak eta Intxorta 1937 Kultur Elkartearen laguntzarekin argitaratu dute. Hiru idazleak eta Intxorta 1937 taldeko Julia Monge izango dira biharko aurkezpenean. 1934ko urriko gertakariak ekarriko dira gogora, Arrasaten oihartzun handia izan zuten gertaerak.

NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA



alboan maite dituzten pertsonak ez dituztenak. Zakua betea dakarren Olentzero da egun haurren ilusioa. Abenduaren 24rako gutuna prest izaten dute ia haur guztiei: "Kaixo Olentzero, aurtan oso ondo portatu nahiz eta nik eskatu nahi dotena hau da: ...", eta horri lotuta zerrenda luze bat. "Denen artean biltzen ditugu, dozena eta erdi pakete, oparirik ez dakarrenak, haurrik ez ote du maite", Mikel Markezzen hitz horri etorri zaizkit burura momentuan.

Badira familia ugari urrunera joan gabe ez dutela baliabiderik euren haurrei jokoak erosteko eta horiei ilusioa banatzeko. Baina hori al da benetako ilusioa? Zein da egun haue-tako helburua? Norbaitek egin al dio noizbait bere buruari halako galderarik? Norberak berea egingo du eta nire helburua ez da inoren asmoa aldatzea baina bai buruari eragin eta pentsaraztea eta zerbait erosi baino lehen kontzientzia hartzea. Non, zertarako, noizentzako, zein helbururekin...?

Bereziak? Guztiontzat?

Badatoz Gabonak, Olentzero, Erregeak, Papa Noel... Munduko izkina bakoitzean pertsonaia mitiko ezberdin bat. Opariak, muxuak, zorionak, bazkariak, afariak, lagun zaharrak, familiako kideak... Ohitura bihurtu dira data hauetan elkar-tu eta mahai baten bueltan jarrita familia zein lagunekin egun "berezi" hauek ospatzea.

Baina zoritxarrez, data hauek ez dira guztiontzat ederrak, zoragarriak, politak, ilusioz hartzen direnak. Badaude munduko leku guztietan haurrak, nagusiak zein heldu ugari euren alboan inor ez daukatena edo egun hauek ospatzeko dirurik ez dutenak edo euren

Azken astea hondakinen bulego ibiltariendako

Hondakinen material kitak jasotzeko azken astea da oraingoa. Erguin guneko bizilagunak Arizmendiko Arimazubi gunetik – lehengo San Viator txiki – pasa beharko dira ontzi marroia eta grisa, horiek zabaltzeko txartelak eta hondakinen gida zein hiztegia jasotzeko. Edozein argibiderako, BAZera jo (943 25 20 00).



JOKIN BEREZIARTUA

Bidezko merkataritza oparitzeko gonbidapena egin du Harreman dendak

Atzean "istorio berezi" bat duten opariendako bonuak atera dituzte; saski bat ere zozketatuko dute abenduan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Harreman Gobernu Kanpoko Erakundeak kanpaina berezia abiatu du aurten ere Gabonei begira. Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuan oinarritutako opariak egiteko deia egin diete herritarrei: "Zergatik ez kontuan hartu bidezko merkataritzako produktuak opariak egiterako orduan? Era honetan, opari berezi bat egingo zenioke zuk aukeratzen duzun pertsona horri. Baina baita ere zure bulzadaxoa emango zenieke Hegoaldeko herrialde pobreetako ekoizleei ere, euren duintasuna eta garapena ahalbidetzeko bidean".

Kafea, kakaoa, bonboiak, zerealak, kosmetikoak, artisautza... Eskaintza zabala dute, eta horretarako opari-bonuak ere atera dituzte, 10, 20 eta 30 eurokoak. Gainera, saskiak bezeroaren neurria ere egiten dituzte, "ekoizpen organikoa eta kalitate altua" bermatuz. Abenduan zehar, era berean, saski bat zozketatuko dute Hiper Eroskiko sarreran dagoen dendan zerbait erosten duten ohiko bezeroen artean.

Harreman: 2014ko ekintzak
Harremanek egubakoitzean Gokobalu abesbatzak San Juan Bataiatzailearen parrokiaren eskainitako kontzertuarekin eman zion amaiera 2014ko ekintzei. Izan ere, hainbat proiektutan egon dira murgilduta aurten ere: Mozanbikoko proiektua Mundukidarekin batera, Ankur proiektua -Indiako 220 neskatari zuzen-

zko merkataritza comercio ju



Harremaneko Cristina Etxenautia iazko zozketako irabazleekin. | GOIENA

dukato umezurtz-etxerako, hitzaldi informatiboak, Elkartasun Eguna, pobrezian bizi diren Indiako 49 familia babestea, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoarekin batera bailarako artistek egindako koadroen zozketa solidarioa...

Amaitzeko, honako mezua helarazi gura izan diote "modu batera edo bestera" lagundu dieten guztiei: "Gure esker onik zintzoena lagundu diguzuenoi. Inork ezin du pertsona oro lagundu, baina pertsona orok lagundu dezake norbait. Gabon zoriontsuak eta urte berri on!".

Bergarako Fly Shit gonbidatu du Kooltur-ek eguen honetarako

J.B. | ARRASATE
Abenduko kartela ixtera datoz eguen honetan, hilak 18, Fly Shit bergararrak. Talde beteteranoa da Fly Shit, 1996 urtean sortutako hardcore banda ezaguna. Musika bide luze bezain oparoa egin dute eta bidean, zenbait disko eta hainbat zuzeneko pilatu dituzte.

Barneko ahotsaren bila izeneko azken diskoarekin datoz: "Betiko ildo beretik jarraitzen dugu baina beste buelta erdi bat eman diogula uste dugu. Asko erritmo ertainak dira, baina Fly Shiten etiketa ere hor dago: erritmo aldatetako, intentsitate aldatetako... Azken finean, denborak aurrera egin ahala influentzia



Fly Shit. | GOIENA

berriak xurgatzen dituzu eta nahitaez igartzen dira. Eskola zaharreko hardcoretik gatoz, baina hortik hasita hainbat adar ditugu gustuko", diote. Gaztetxean izango da kontzertua, 22:00etan.



AZEko Antton Del Campo, Sebas Agirretxekin, hilaren 10eko saioan. | AZE

Euskal labearren gaineko saioa, hitzaldi zikloarekin amaitzeko

J.B. | ARRASATE
Arrasateko Zientzia Elkartearen *Arrasateko Iragana Astintzen* hitzaldi zikloa etzi amaituko da, Zientzia Geologikoetan doktore Xabier Orue-Etxebarriak eskainiko duen saioarekin: *Euskal labea metalurgiaren historian: Arrasateko eredia*. Gaztelaz izango da, Kulturateko areto nagusian (19:00). Aurreko saioan Sebas Agirretxe indus-

tria ingeniaria izan zen AZEkoen gonbidatua. Gipuzkoako udalaxe barrokoren gainean egin zuten berba Agirretxek eta bereziki Arrasatekoa nabarmendu zuten, eraikin barrokoren artean "dotorenetakoa" dela esanez: "Oso aberatsa da apaindurari dagokionez eta proportzio bakarrak ditu; horregatik Euskal Herriko udalaxe ederrenetakoa da", uste du.

Zaintza partekatua mitoei "mozorroa kentzeko" saioa, bihar, Emakume Txokoan, 18:00etan hasita

Emakume Txokoak haurren zaintza partekatua gaineko saioa antolatatu du biharko (18:00-20:30era). Lur Etxebarria izango da irakaslea, eta haurren zaintzaren gainean adostasunik ez dagoen gerta daitekeenaren gainean egingo du berba. Doakoa izango da saioa eta oraindik badago izena emateko aukera: emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net edo 943 79 41 39.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress



"Ura edatea baino errazagoa egin zitzaidan euskara ikastea"

Irekasle San Vitorren, fraille, presentadore ATBn... Ze ez zan Koldo Rodriguez... Baitte euskaldun barrixe be: "14-15 urterekin ikastera Eskoriatzara etorri nintzen. Hurrengo urtean, 100 pezetatan euskara ikasteko metodo bat erosi nuen. Valladolidera joan nintzen, eta metodo harekin segitu nuen. Gasteizera itzuli eta hiru hilabete eman nituen gaueskoletan. Hurrengo urtean ni neu hasi nintzen euskara irakasten. Ura edatea baino errazagoa egin zitzaidan euskara ikastea".

Fraillien pentsamendue kanbixetan ebillela pentsetan euen, eta, horregaitik, ez euen arraro ikusten fraille bat telebisiñuen agerketie: "Guk geuk, batzuek, behintzat, ez dugu nahi fraide komunitatea gauza itxi, misteriotsu eta klerikal bezala ikustea. Jendearengana hurbiltzeko, herriarekin lotura eta harremanak izateko gauza asko egin daitezke eta horietako bat telebistan agertzea izan liteke".

Zuhaitz Egunek indder haundixe
Amador Portillo Ibarluzeak bieldu euen eskumako erretratue; Zaragozan bizi zan ha, baiñe 1918tik 1933re Mondrauen bizi izen zan. Gaiñera, astero-astero jasoten euen *Arrasate Press*, Zaragozan bertan.

Zuhaitz Egune zan, 1920xen. "Artean, garrantzi handiko eguna izaten zen. Eskolako umeok arbolak landatu eta Udalak merienda eman ohi zigun", esan euen Portillok.

Erretratue Herriko Plazan atarata dau. Parien, Cafe Universal dau -gaur egun Kajoi tabernie- eta plazaren erdixen musika-kioskue.

Ume pillue, eta harein erdixen gizon bat dau, kalbue: Inazio Portillo, maixue -merkau ondue euen eskolan-. Bost seme-alaba zittuen, eta horreittako bat zan erretratue bieldu euen Amador.

Musika eskolako kideek Gabonetako saioarekin amaituko dute urtea

Egubakoitzean, hilaren 19an, izango da Bergarako musika eskolaren Gabonetako kontzertua

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Aurten ere, Gabonetako kontzertua eskainiko du Bergarako Musika eskolak urtea agurtzeko. Txikienetatik hasita, ikasle heldu-geagoetara pasata, orotariko instrumentuak eta abesbatzak izango dira protagonistak. Emanaldia egubakoitzean, hilak 19, izango da, 18:30ean hasita, frontoian.

Adin guztietako ikasleak

Urtero legez, musika eskolako txikienek zabalduko dute kontzertua; hiru urteko biolineko 30 ikasle osatutako *Suzuki* taldeak pieza bat joko du. Izan ere, aurten lehenengokoz, musika tailerreko ikasleek perkusioarekin lagunduko dituzte.

Txistuekin jarraituko du emanaldiak eta Maite Sagastibelza irakasle berriaren gidaritzapean bi abesti joko dituzte. Ondoren, akordeoi taldearen txanda izango da eta horko kideek beste pieza bat joko dute.

Hasiberrien abesbatzakoek bi kantu abestuko dituzte: bata, akordeoien laguntzarekin, eta bestea, pianoarenarekin. 70 haur daude abesbatza horretan, bost eta bederatzi urte bitartekoak.

Bestetik, aipatzekoa da orkestra sinfonikoak aurten zuzendari berria estreinatuko duela. Jose Miguel Laskurainen taldekoek Wolfgang Amadeus Mozarten eta Gustav Holst musikagile ezagunen pieza bana interpretatuko dituzte, hurrenez hurren.

Jarraian, trikiti taldeak Mikel Urdangarinen kantu bat eta *Trikitilariak Gara* kantu herrikoia joko dute.

Ostean, haurren abesbatzarekin jarraituko du emanaldiak. Abesbatza hori, bederatzi eta hamabi urte bitarteko 60 ikasle inguruk osatzen dute, hain juxtu. Horiek, Xabier Sarasolaren hiru Gabon kanta interpretatuko dituzte soka-taldearen eta flautaren laguntzaz.

Gazte bandak, Jacob de Haan-en *Hanseatic Suite* abesti ezaguna joko du; lau zati ditu obra honek. Laskurainek zuzentzen du banda hau ere eta ia 60 kidek osatzen dute.

Gonzalez Bastida omenduz

Urteon, Bergarako Udal Banda zuzentzen zuen Miguel Gonzalez Bastida musikagile eta organo-jolea hil zela urtebete egin du Hura omentzeko, *Belengo estalpe txiki batean* Gabon kanta interpretatuko dute musika eskolako ikasle guztiak elkartuta.

Amaitzeko, Gabonetako kontzertu emanaldia ixteko musika eskolako martxa joko dute. Beraz, horrekin guztiarekin, agurtuko dute urtea musika eskolakoek.

Aulki hutsak dokumentala Mizpirualden, egubakoitzean

A. L. | BERGARA

Egubakoitzean, hilaren 19an, Aulki Hutsak dokumentala proiektatuko da Mizpirualde egoitzean, 17:00etan.

Iñaki Peñak zuzendutako lanak, gertuko baten heriotzaren aurrean izan beharreko dolua eta itxaropena ditu bizkarrezur; bistakoa da, gaurko gizartearen tabu den gaietako bat dela. Ondoren, dokumentalaren gai beraren bueltan, solasaldia egongo da: *Gabonak dira, eta etxean aulki bat hutsik* izango da solasaldiaren gaia.

Saioa ixteko, M. Albisturaren oboearekin eta X. Bertzunen gitarrarekin musika emanalditxoak egongo da.

Amaitzeko, aipatzekoa da ere sarrera doakoa izango dela, baina, plazen kopurua mugatua izango da.

Etxebizitza duinak, prezio sozialean alokagai

M.T. | BERGARA

Bergarako Udalak alokairu sozialeko sustatzeko programa martxan jartzeko asmoa du, eta etzi egingo dituzte informazioa zabaltzeko lehen bilerak. Udaletxeko pleno aretoan izango dira, 12:00etan bata, eta 18:30ean bestea. Horrez gain, informazio pertsonalizatua ere eskainiko dute.

Programa "oinarrizkoa den etxebizitza eskubidea bermatzea" eta hutsik dauden etxeei bizia ematea du helburu. Horretarako, etxejabeen euren etxebizitzak alokatzeko erraztasunak eskainiko dizkiete.

Besteak beste, eraberritze lanak egiteko interesik gabeko kredituak izango dira, Bizigune programan sartzen diren etxeentzat. Era berean, neurri horrek herriko ekonomiari laguntzea espero dute.

Gaztelekuko gazteek Olentzero-a egin dute, lehengai naturalak erabiliz

Gazteek eurek erabaki zuten zein natur-artelan egin nahi zuten elkarlanean

MAIALEN TORRES | BERGARA

Abendu hasieran, Xabalote gaztelekuko gazteek, Auzolanartean egitasmoaren baitan, Olentzero-a egin zuten. "Gabonak iristear daude eta oso gustuko dute", azaldu dute Garaion Naturartea elkarteak kideek. "Gainera, ekimenaren bidez, asko kontsumitu gabe gure apaingarriak sortu ditzakegula frogatu nahi izan dugu".

Gazteen ekimenez

Gaztetxoak batzarrean bildu, eta zer egin adostu zuten. "Hiru ordutan, guztion artean, naturartelana burutu genuen: Olentzero-a. Artelana egin ahal izateko: adarrak, espartzua, garoa, hostoak, zumea eta antzeko beste material batzuk erabili genituen". Natur-artelana amaitu ondoren, gaztelekuan jartzea erabaki zuten, egindako lanaz aurrerantzean ere gozatu ahal izateko.



Xabaloteko artista gazteak, Olentzeroarekin. | XABALOTE

teko: adarrak, espartzua, garoa, hostoak, zumea eta antzeko beste material batzuk erabili genituen". Natur-artelana amaitu ondoren, gaztelekuan jartzea erabaki zuten, egindako lanaz aurrerantzean ere gozatu ahal izateko.

teko: adarrak, espartzua, garoa, hostoak, zumea eta antzeko beste material batzuk erabili genituen". Natur-artelana amaitu ondoren, gaztelekuan jartzea erabaki zuten, egindako lanaz aurrerantzean ere gozatu ahal izateko.

NIRE USTEZ

KARLOS ETXANIZ



Publizitatea

Gehienok pentsatu ohi dugu publizitatea gure garaiko asmakizuna dela, baina duela milaka urte hasi zen horren historia.

Ezagutzen den idatzizko lehenengo iragarkia k.a 3000. urtean izan zen. Iragarki hura papiro baten idatzita zegoen eta Egiptoko Tebas hiriarren hondakinetan aurkitu zuten. Bertan, komer-

tzialpe batek ihes egindako esklabo bat aurkitu eta "Hapuren dendara, norberaren gustura oihal politenak egiten diren dendara" itzultzen zuenarentzat, urrezko txanpon bat eskaintzen zuten. Esaldi hori da, hain zuzen, historiako lehen publizitate iragarkitzat hartzen dena.

Egun, publizitatea komunikabideekin oso lotuta dago eta bereziki telebistarekin. Ikus-entzunezkoa denez, erakargarriagoa da. Telebistaren historian, batzuk oso arrakastatsuak izan dira, adibidez: Cola Cao, Famosa panpinak eta Coca-Colaren iragarki mitikoak. Automozio industrian

ere ederrak egon dira, baita telefonia mugikorretan ere (Eduk Gabonak zorientzen).

Euskal Herrian ere - nahiz eta diru gutxiago mugitu industria horretan - oso iragarki politak egiten dituzte, esaterako: Euskaltelek Patxirena, ETBk Olentzerorena... Ez dira hain mitikoak izango baina gureak dira. Aurten, arrakastatsua izan dena Gabonetako Loteriarena izan da, ziur naiz helburu guztiak bete dituztela egin dutenek. Ez da batere erraza iragarkietatik ihes egitea, lehenago edo geroago denok erortzen baikara tranpa horretan.

Janire Urbieta | Dantza irakaslea

"Ikasle bat plazan dantzatzera iritsi dela ikusteak asko balio du"

Erromerietako dantzak ikasteko aukera izango da urtarriletik aurrera, eta izen-ematea zabalik da

MAIALEN TORRES | BERGARA

Jardun Euskara elkarteak *Plazetako euskal dantzen ikastaroa* antolatu du, urtarriletik ekainera bitarteko. Jantxo Urbieta, Janire Urbieta eta Jon Arri-llagaren eskutik, ikasleek erromerietako dantzak ezagutuko dituzte, fandangoa, arin-arina, aureskua eta banakoa, besteak beste. 19:30etatik 21:00tara ari- tuko dira asteazkeneko, eta izen ematea zabalik da Jardun elkar- tean: 943763661.

Nori zuzendutako ikastaroa da?

Edonor etor daiteke. Izan ere, mailaka banatuko ditugu ikasleak, eta beraz, egongo da tokia zerotik hasi nahi duenarentzat, bai moldatzen direnentzat, bai ta maila ona dutenentzat ere. **Ze helmuga izango duzue?**

Batzuek dakitena praktikan jartzea bilatzen dute, eta besteek plazan dantzatzea dute erronka, baina amaieran denok batera aritzeko gai izatea da helburua. **Animatuko zenuke jendea parte hartzera?**

Noski baietz. Bada jende asko arin-arin bat edo fandango bat dantzatzeko ez dakiena, eta uste dut euskaldun izanik, hori jakin beharreko zerbait dela. Erromerietan bazterrean begira geratzen direnentzat ere, konfiantza hartzeko aukera ona da.



Janire Urbieta. | MAIALEN TORRES

Ohiko dantzez gain, zerbait gehiago landuko duzue?

Jende askok ezkontzetarako dantzak ikasi nahi izaten ditu eta izango dute aukera. Horrez gain, beste herri batzuetako dantza pausoak eta ohikotik harago doazen koreografiak ere irakatsiko dizkiegu oinarrizko mailatik gora aritzen direnei. **Zer behar da dantzan egiteko?** Batez ere, gogoia. Dena den, arropa eroso, zapatila arinak eta aldatzeko kamiseta bat ekartzera ere gomendatzen dugu.

Irakasteak lan asko eskatzen du? Batzuetan pazientzia behar izaten da, baina ikasle bat plazan (San Martzialetan, adibidez) dantzatzera iritsi dela ikusteak asko balio du.



Bizikletendako bidea marra gorritz adierazita, Kasablankan. | OIHANA ELORTZA

Bizikletendako aparkaleku eta bide berriak egingo dituzte

Olabarrieta herrigunearekin lotuko duen bidegorri proiektua ere martxan dago

I.I./O.E. | OÑATI

Mugikortasun iraunkorrerako planean jasotakoa betez, Oñatin gaur egun dauden bidegorriak lotu eta bizikleta-bideen sarea osatuko dute, garraio mota horren

erabilera sustatzeko. Horretarako, hainbat proiektu egingo dituzte herriguneari eta Olabarrieta auzora doan bidean.

Hala, Udalak bizikletendako bideak margotuko ditu erdigu-

neko hainbat kaleetan datozen egunetan. Norabide bakarreko kaleetan, bizikletendako erraila bidearen erdian margotuko da; norabide bikoitzeko kaleetan, berriz, errail bana bidearen alde

banatan. Etenik gabeko marra gorritz marrartzuko dira bizikleta-bideak, Otadui Zuhaitzian dauden bezala. Asmoa da Euskadi Etorbidetik kale Zaharrerako bidea egitea bizikletendako. Baita Bidebarrieta inguruan ere. "Mugikortasun plana egin dugu eta horrek erdigunea oinezko eta bizikletendako gordetzen du. Herri barruan ibilgailuen zirkulazio handia dago egun eta hori herri kanpoaldetik bideratu gura da. Erdigunea oinezkoei eta periferia bizikletei", adierazi du ingurumen zinegotziak, Leire Egañak.

Bizikletendako aparkalekuak ere jarriko dituzte herri barruan. Oraingoan, sei aparkaleku berri jarriko dituzte: Zuazola institutuaren, Natur Eskolan, Goiena parkean, Iturritxon eta Roke Azkune eta Ultzegi kaleetan. Azken horretan, gainera, patineteak uzteko lekua ere jarriko dute.

Olabarrieta eta herrigunea

Bestalde, herrigunea eta Olabarrieta auzoa lotuko dituen bizikleta eta oinezkoendako bidea datorren urtean egiteko asmoa ere badu Udalak. Horretarako, zanga bat zabaldu beharko dute bidegorriaren luzera osoan, eta Udalak hasi ditu batzarrak bidegorriak hartuko dituen lursailen jabeekin. Obrak aprobetxatuz, telekomunikazioa eta gasa hobetzeko asmoa ere badute. "Bizikletan ibiltzeko bide segurua izango litzateke. Baita oinezkoendako ere", zehaztu du ingurumen zinegotziak.

2015eko aurrekontuak, egueneko osoko bilkuran

O.E. | OÑATI

Datorren urteko aurrekontuak eztabaidatuko dituzte udalbatza osatzen duten bi alderdiek datorren egunean. Abenduaren 18an, 19:30ean, egingo duten osoko bilkurako gaietako bat izango dira aurrekontuak.

Osoko bilkura horretara datorren urterako dituzten asmoak, proposamenak, aurkeztuko dituzte bai Bilduk, bai EAJk. Asmo eta proposamen horien zirriborroa, baina, prest dituzte alderdi biek. Esaterako, Udal Gobernuak 300.000 euroko diru parti-

da gorde gura du Musika Eltzia proiekturako. Parte-hartze sailerako egindako proposamenetako bat da hori. Proiektu guztiak zazpi ataletan banatu dituzte, eta, EAJren proposamenak zeintzuk diren jakinda, "hein handi batean gure aurrekontu proposamenarekin bat" egiten dutela aurreratu du.

Alderdi jeltzaleak, bestalde, diru partidak eskatu ditu gizarte politikekin, enpleguarekin, mugikortasunarekin, hirigintzarekin eta kirolarekin zerikusia duten gaietarako.

Martuteneko presoentzat materiala batuko dute

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko espetxe pastoraltzakoek Martuteneko presoentzat materiala bilketa kanpaina egingo dute aurtengo Gabonetan ere. Gaur, astelehena, hasiko dute kanpaina hori. Abenduaren 15etik 18ra batuko dituzte presoek bidaltzeko produktuak.

Espetxe pastoraltzako kideek adierazi duten moduan, "presoei gehien behar dituzten produktuak" batuko dituzte. Hauek dira produktu horiek: artilezko txanoak; barruko arropa berria (gizon zein emakumeen-

dako); bainuko txankletak (41 eta 44 zenbaki artekoak); kirola egiteko oinetakoak (41 eta 44 zenbaki artekoak gizonendako eta 37 eta 40 artekoak emakumeendako); galtzerdiak; eta azazkalak moztekoak. Tabako gorria eta txiskeroak, turroi biguna, kartazalak eta zigiluak ere jasoko dituzte.

Produktuak 18:00etatik 20:00ak arte utz daitezke aste honetan toki hauetan: Garoa aretoa, Hirukar liburu-dendan, Sillero oinetako-dendan eta Irizar estankotan.

NIRE USTEZ



ALAZNE GURIDI

Assalamu Alaikun

Malala Yousafzai 17 urteko neska pakistandarrak Bakearen aurtengo Nobel saria jaso berri du, Kailash Satyarthi ekintzaile indiarrarekin batera. Esker ona eta txaloa beraientzat eta, baita, era isilagoan justizia eta bakearen alde beren bizia ematen duten guztientzat ere.

Norvegiako Nobelaren Batzordeak Malala eta Kailash saritu ditu, haur guztien hezkuntza-eskubidearen alde eta hauen zapalketaren aurka egiten ari diren lanagatik. Malala gazteak, talibanen gehiegikeriak salatzen ditu, batez ere, nesken hezkuntzaren aurka daramaten politikagatik. Kailash, berriz, urteak daramatza haurrak lanera behartzen dituztenei bideak zailtzen.

Gorrotoa eta gaizkia, maldan behera doan elur pilota bezala, sendo eta sendotuz doa munduan zehar. Baina, zorionez, badira maitasunaren aukera egin dutenak ere. Malalari, talibanek masaila lehertu zioten tiroz, eta honek, gorrotoari gorrotoz erantzun beharrean, beste masaila eskaini dio munduari, errespetuz eta adorez hitz eginez, eta guztion onginahia ozen aldarrikatuz; baita bere erasotzaileena ere.

Beste behin bistan gelditu da, indarrak eta botereak hondatu ditzaketela gauza batzuk, baina baita ere, onginahia eta maitasunaren aurrean gorrotoak ibilbide motza duela.

Assalamu Alaikun.

"Badira maitasunaren aukera egin dutenak ere"

Movember-Oñatik egindako ekarpena, hamabosgarrena

Prostatiko eta barrabiletako minbizien ikerketara bideratzeko dirua batu zuen Movember-Oñati mugimenduak joan den hilean. 2.225 euro batu zituzten, eta ekimenaren bultzatzaileek jakinarazi dute Espainiako hamabosgarren handiena dela kopuru hori. Mugimendua sustatu dutenek eskerrak ematen dizkiete ekimen horrekin bat egin dutenei.

Txartelak har daitezke egueneko ipuin kontaketarako

Amaia Nekane ipuin kontalaria dator haur liburutegira egunean, Ostegun Kontalariak egitasmoaren barruan. 3 eta 6 urte arteko umeendako ipuin kontaketa egingo du. Liburutegian, baina, ume kopuru zehatza sartzeko; beraz, gonbidapena hartu behar du joan gura duenak. Liburutegian dituzte txartelak.

Eguena da kirolari onenaren alde botoa emateko azken eguna

Egubakoitzean, hilak 19, banatuko dituzte aurtengo kirol sariak. Horien artean dago herritarrek bozka bidez aukeratutako kirolariari emango zaiona. Jokin Garai, Ariadna Burgos eta Mikel Ugarte dira hautagaiak. Eguena, abenduak 18, da herritarren botoa jositzeko azken eguna. Udal webgunean eman behar da botoa.

Oñatiko bertsoaritzaren historia, liburuan

Oñatiko hitzen altxorra izeneko liburuan jaso dute herriko bertsoaritzaren historia. Urko Egañak idatzi eta Oñatiko Bertso Eskolak kalera-tuko du. Bihar egingo dute liburuaren aurkezpena, 19:00etan, kultura etxean. Andoni Egaña, Iñaki Olalde, Benito Barrera eta Urko Egaña izango dira hizlariak.

Gaur, astelehena, zozkatuko dituzte aisialdirako ortuak

Gaur zozkatuko dituzte aisialdirako baratzeak, 12:00etan, osoko bilkuren aretoan. Onartutako 66 herritarrei zenbaki bana egokituko zaie. Zenbakiak kutxa batetik aterako dira, menturaz eta banan-banan, eta ateratako zenbakia-ri, baratzeetako planoan zehaztutako baratze zenbaki bera egokituko zaio.

ESKORIATZA

Gabonetako kanpainari azken ukituak ematen

Axtroki Merkatarik Elkartek hainbat ekintza prestatu ditu aurten Gabonetako kanpaina osatzeko

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Axtroki Merkatarik Elkartek Gabonetarako hainbat ekintza prestatu ditu. Ekitaldirik esanguratsuena abenduaren 19an egingo dute. Izan ere, Axtrokiko komertzioek produktuak aterako dituzte plazara, azoka eginda. 18:30etik 20:30era izango da eta tabernek eskaintza bereziak egingo dituzte, animazioa egongo da, harakinek pintxoak prestatuko dituzte...

Gabonetako apaingarriak

Merkatu txikiari bultzada handiago emateko, bestalde, urte kolore itxurako alfonbrak jarriko dituzte komertzioetan, komertzioak koloreztatuta herritarrak erakartzeko asmoz. Komertzioen

ateetan, berriz, mihura-adar bat jarriko dute, Eguberri ukituak areagotzeko. Baina ekintza esanguratsuena axtroki monetaren aldaketa izango da.

Axtrokiak lortzeko gunea

Urtean zehar egiten den moduan, hilaren 19an ere axtrokiak euroengatik aldatzeko "banku bat" egongo da. Berrikuntzekin datoz, gainera: 50 euroren truke 55 axtroki jasoko ditu moneta aldaketa egiten duenak. 20 euroren truke, berriz, 22 axtroki jasoko ditu.

Axtroki zozketa

Hemen bizi, hemen erosi lelopean, 1.500 axtroki zozketatuko dituzte herriko merkatariek. 500 axtro-

kiko bi sari eta 100 axtrokiko bost sari banatuko dituzte, eta sariren bat jasotzen duenak hila-beteko epea izango du Axtroki Merkatarik Elkarteko dendetan nahi duena erosteko. Zozketa 2015eko urtarrilaren 5ean izango da, 13:00etan, herriko plazan. Hain zuzen ere, Eskoriatzako 26 dendatan axtrokiak gastatzeko aukera izango du saria jasotzen duenak.

Urtarrilerako plana

2015eko lehen ekintza urtarrilean izango da, *Hemen bizi, hemen erosi* zozketarekin. Baina nahiz eta eguenean egin zuten bileran erabaki zehatzik ez atera, aldaketa eta berrikuntzak egingo dituzte datorren urtean.

ARETXABALETA

Iraitz Agirre izango da azken 'ostegun kontalaria', abenduaren 18an Urbaltz tabernan

I.B | ARETXABALETA

Heldu da Ostegun Kontalariak lehiaketako azken partaidearen txanda. Hain zuzen ere, abenduaren 18an Iraitz Agirre arrasatearra izango da Urbaltz tabernan, herritarren aurrean, 21:30ean.

Arrasatearrak bere burua kontalaritzat dauka, jendaurreko zereginetan eta bestelakoetan, guztiak izan daitezke nolabait agertokiak. Agirreren asmoa da kontatzeko hainbat modu uzartuko dituen *patchwork*-a plaza-zatzea.

Ostegun Kontalarietan, Eneko Barberena, Manex Agirre, Aitor Agiriano eta Belen Azkarate izan dira orain arte kontalari, eta azkena Iraitz Agirre arrasatearra izango da. Hala, lehiaketako irabazlearen izena jakingo da azken horren emanaldia-oren ostean.

Irabazlea jakiteko irrikitan

Aretxabaletako Udalaren eskutik, Arteman Komunikazioaren laguntzarekin batera, lehiaketa-ikus-kizunaren irabazleak 150 euroko saria jasoko du. Irabazlea publi-



Iraitz Agirre. | ARTEMAN

koaren boto bidez aukeratzenez, azken kontalariarekin jakingo da nork irabazten duen saria. Hala, boto gehien jaso dituenak 150 euro erango ditu.

OHARRAK

KURTZEBARRI-BASABEAZPI ARTEKO BIDEGORRIAREN AURKEZPENEA

Aretxabaletako Udalak Kurtzebarri eskolatik Basabeazpi ikastetxera dagoen bidegorri zatiaren proiektua herritarrekin partekatu nahi du. Hala, abenduaren 15ean, Arkupeko bigarren solairuan proiektuaren inguruko informazioa emango da. 18:30ean izango da, eta herritarrak parte hartzera animatu ditu Udalak.

'JOLASAK ETA JOSTAILUAK' HITZALDIA KUKUMIKU GURASO ELKARTEAN

Datorren eguenean, abenduak 18, *Jolasak eta jostailuak* hitzaldia emango du Itsaso Pagoagak, Haur Hezkuntzako hezitzaile aretxabaletarrak. 18:00etan izango da eta Kukumiku guraso elkartearen izango da. Bertan, haurren jolasen eta jostailuen gaineko informazioa eta hizketaldia izango da.

MUSIKA ESKOLAKOEN GABONETAKO KONTZERTUA

Leizarra musika eskolako gazteek Gabonetako kontzertua eskainiko dute abenduaren 16an, 17:30ean; eta 18an, 19:30ean, bandaren kontzertua egongo da. Bestalde, hilaren 21ean, abesbatzak soprano eta organo kontzertua eskainiko du, 19:30ean; eta 27an, ordu berean, Gabonetako kontzertua eskainiko dute. Guztiak Aretxabaletako parrokiaren izango dira.

NIRE USTEZ

TXOMIN AZPITARTE



Tantaz tanta ibaia egin

Badoa 2014a. Eta gertatukoaren gaineko azterketa egiteko garaia da. Guretako oso ondo hasi zen urtea, asko maite dugun baten hutsunea bete zelako. Gainera, urtearen akaberan bat gehiago izango gara. Hori guztia dugu ispiuaren alde errealean.

Iluntasun handiarekin betetako urtea izan da; langabeziarekin, korrupzioarekin-eta bonbardatu gaituzte. Eta ekaitz horren erdian, nahiz eta ispiuaren fikziozko aldea ikusarazten saiatu, errealistak gara bakoitzari dagokion garrantzia emanaz. Alde errealean kokatutako bati ondo entzun nion behin gure arrakastak lortzeko, edozein alderditan izanda, guztiok jarri

behar dugula geure tanta txikia, uraren emarian pentsatu gabe, berez iritsiko delako hori.

Ibai luze bat zeharkatu beharra daukagu ez daudenak gurekin etxean izan daitezke, gizar normalizatua izan, tabu zaharrak gaingitu, elkarbizitza maila gorenera iritsi eta amets zahar bat egia bihurtu: herri handi bat izan. Ibai ezberdinak elkartzen direnean sortuko den emariak berak eramango gaitu portu egokira, eta han gozatu ahal izango dugu geuk diseinatutako gizarte kalitatearekin, tantaz tanta eraikitakoarekin, gure helmugatik desbideratuko gaituzten inolako hormarik eta mugarik gabe.

2015aren bezperan gaude, guztiondako urte handia izatea gurako nuke, portura garamatzan uholdearen urtea moduan gogoratuko duguna gerora. Ispiluaren alde erreala izatea gura nuke hori, eta ez ibaia noiz haziko den zain gauden fikziozko aldea. Hortaz, alderdi guztietan dugu busti beharra, portu onera iritsi gura badugu.

60 urtetik gorakoentzako osasun-fitness gela erabiltzeko tailerra egongo da kiroldegian

Abenduaren 16rako eta 18rako ikastaroa antolatu du Eskoriatzako Udalak: 60 urtetik gorakoentzako osasun-fitness gela erabiltzeko ikastaroa, hain zuzen ere. Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian egingo da, eta, bi egunotan, 10:15etik 11:15era bitartean emango da tailerra. Hala, izena eman nahi duenak kiroldegian edo erretiratuen bulegoan egin ahalko du. Bestalde, plaza mugatuak izango dira, eta, doan izanda, kirola eta osasuna sustatu nahi dute adineko pertsonengan.

'100 metro karratu' umore kutsuko antzezlanaren izango da hilaren 18an Aretxabaletako Arkupe aretoan

Abenduaren 18an, Txalo Produkzioek ekoiztutako *100 metro karratu* antzezlanaren taularatuko dute Arkupe aretoan. Begoña Bilbao zuzendutako umorezko lana 19:30ean izango da eta sarrerak 4 euro balio du. Iñake Irastortza, Ana Elordi eta Ramon Agirre aktore ezagunak izango dira antzezlanaren protagonistak. Bada, emozioz eta adiskidetasunaz betetako eszena dibertigarriak eskainiko dituzte.



MIRARI ALTUBE

Gaztaina saltzailea etorriko da

Azken urteotan moduan, Aretxarte elkarteak gonbidatuta, gaztaina saltzailea etorriko da Aretxabaletara. Hilaren, 18an, eguena, eta 23an, martitzena, 17:00etatik 20:00ak arte Mitarte kalean egongo da. Aretxarte komertzio eta tabernetan egun horietan erosketaren bat egindakoek debalde jasoko dituzte gaztainak.



Abenduko ohiko osoko bilkuran indarkeria matxistaren aurkako mozioa aho batez onartu zen. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Aramaio, Udalbiltzaren Partzuergoan sartuko den Arabako lehen udalerrria

EAJren kontrako botoarekin baina gehiengo absolutuz onartu zen erabakia azken osoko bilkuran; indarkeria matxista salatzeke mozioa, aho batez aurrera

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaio Arabako lehen udalerrria izango da Udalbiltzako Partzuergoko Kontseilu Nagusiko kide egiten. Abenduko ohiko osoko bilkuran onartu zen erabakia, Bilduren eta Aramaio Alkartasunaren aldeko botoekin (5) eta EAJren kontrakoarekin (1). Euskal Herriko 38 udalerrri dira partzuergoko kide eta helburuen artean daude, besteak beste, elkartutako erakundeen osoko gara-pena eta euren arteko elkarlan instituzionala bultzatzea, elkarrekin batera lan eginez, lurralde-eremuko lurralde, gizarte eta kultur antolamendua lortzeko.

Bestalde, 2014ko aurrekontuaren kreditu aldaketarekin kiroldegiko aldagelak berritzea onartu zen, besteak beste, abenduaren 10eko bilkuran. Lanak hasita daude aldageletako baten eta urtea amaitu baino lehen bi aldagelak berrituko dira. 60.000 euro inguruko kostua suposatuko du obrak. Bigarren fase baten kiroldegiko gimnasioa egokitzea aurreikusten da, datorren urterako.

Indarkeria matxistaren aurka

Bestalde, eguneko arreta zentroa kudeatzeko zerbitzuaren esleipen prozedura ireki zen eta indarkeria matxista salatzeke mozioa aho batez onartu zen.

Amaieran EAJko Iñaki Nafarratek hainbat galdera egin zituen. Esaterako, parkeko farolen gainen galdegin zuen: "Batzuk oso egocera txarrean daude, herdoilduta eta ustelduta, eta zinta isolatzaileaz forratuta. Istripuren bat izan arte itxaron behar dugu?". Jose

Ramon Uribe zinegotziak kontuan hartuko dela erantzun zion. Azken galdera moduan Hontza Extrem abentura parkea ekarri zuen gogora Nafarratek: "Nola da posible publizitatea egitea Koadrilako medio baten Aramaion dagoen enpresa batena bertako Udalaren aktibitate lizentziarik ez duena?". Parkea non legezatu behar denaren gaineko eztabaidan sartuko ez dela esan zuen alkateak, eta hori "interes politikoak" dituen salaketa dela esan zuen bilkuran.



Kiroldegiko aldageletako baten lanak hasita daude dagoeneko. | J.B.

ANTZUOLA

Askotariko ekintzak herrian, Gabonei ongiatorria egiteko

Olentzeroren bisita, musika eskolako kontzertua eta mendi irteera egingo dituzte, besteak beste

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Gabonak ate joka daude, eta, horiei ongiatorria egiteko, egitarau zabala osatu du Kultura Sailak. Hilaren 19tik urtarrilaren 4ra arte askotariko ekintzak egongo dira herrian.

Lehena larruzko pilota txapelketako kanporaketa izango da, hilaren 19an. Horren ostean,

21ean, txistulariek kalejira egingo dute (10:00), eta gazte txokoko kideek txorizo-pintxoak salduko dituzte Zurrategin. Era berean, Euskararen Egunerako egindako txapak salduko dituzte (18:30).

Hilaren 22an, txistor-pintxoak egongo dira Landatxopen eta karta jokoetako sari banaketa ekitaldia egingo dute. Egun

berean, musika eskolakoek Gabonetako kontzertua egingo dute Torresoroan (18:30).

Gabonetako parkea

Hilaren 24an Olentzero eta Mari Domingi helduko dira, 18:30ean. San Josetik jaitsi eta kantuan joango dira Herriko Plazaraino. Han, umeak agurtuko dituzte.

Bestalde, rocka izango da nagusi gaztetxean, hilaren 26an. Hiba-kusha eta Taupada taldeek kontzertua egingo dute.

Azkenik, urtarrilaren 1ean mendi irteera egingo dute Arrolara eta urtarrilaren 4an Gabonetako parkea ipiniko dute, umeendako, eskolako patioan.

ELGETA

LARRAITZ ZEBERIO

Prebentzio tailerra gaztelekuan

10 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoen droga-menpekotasuna izan dute aztergai gaztelekuan, Kalexa elkarteko bi dinamizatzaileen eskutik. Droga-menpekotasunari aurre egiteko errekurtsoak eta estrategiak eskaintzen ahalegindu dira dinamizatzaileak, eta gazteekin gaiari buruz sakon hitz egiteko aukera izan dute. Hezitzaileen esanetan, irtenbidea ez da uneoro arduratuta egotea, are gutxiago polizia lanak egitea. Gai horretan eraginkorragoa da gazteek azaltzen dituzten kezak eta larritasunak garai detektatzea eta ahal den neurrian erantzuna ematen saiatzea.

Hondakinen bilketa sistema berria dela-eta arreta zerbitzua eskainiko du Udalak abenduan

Martitzena ezker martxan da hiri-hondakinak biltzeko sistema berria Elgetan. Berrikuntza nagusia da txartel bidez zabaltzen diren edukiontzi grisa eta marroia. Hala, sailkatuta bota behar dira hiri-hondakinak. Hasierako asteotan herritarrek izan ditzaketan zalantzak argitzeko edo sor daitezkeen galderak erantzuteko arreta zerbitzu berezia ipini du martxan Elgetako Udalak. Arduraduna udaletxean egongo da, astelehenetik barikura bitartean, 09:00etatik 13:00etara. Hasi era batean, abendurako aurreikusitako arreta zerbitzu berezia.

LEINTZ GATZAGA

Gabonetako egutegiak, herriko txokoekin

150 ale atera, eta, ohi duten moduan, baserri baserri banatuko dituzte, Olentzero egunean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Abenduaren 24an, herriko haur eta gurasoek egiten duten Gabon eskea aprobetxatuta banatuko dute datorren urteko egutegia, Udalak prestatzen duena, urteroko ohiturari jarraituz.

Aspaldiko partez, udalerriko baserriak ez dira izango egutegiko motibo. "Urtetan baserriak ateratzen ibili ostean, gure azkeneko urte honetan aldaketa egitea pentsatu dugu eta Leintz Gatzagako paisaien eta txokoekin bidez osatzea", kontatu du Iñaki Agirreurretak, Kultura zinegotziak. Adibidez, Gatz Museoaren argazki bat irtengo da bertan, Agirreurretak berak ateratakoa.

Egutegia eta gatz potea

Guztira, egutegiaren 150 ale argitaratuko dituzte. Eta Gure-

len Gabon eskean, Gatzagako umeek egindako gatz potetxo batekin batera banatuko dute, goizez.

Dorletako Ama elkartea

Bestalde, eta datozen egunei begira, abenduaren 22ko loterriaren zozketako sari nagusiaren zerbaki izango da Dorletako Ama Txirrindulari Elkartearen txartelen zozketako zerbaki irabazlea.

Hain justu ere, San Milixan azokan jardun zuen elkartek txartelak saltzen, urtean antolatzen dituzten bi txirrindulari probak egiten jarraitu ahal izateko, uztailekoa eta irailekoa, alegia. Batetik, 300 eurotan baloratutako saskia emango dute, eta bestetik, *Marisanean* bazkari edo afari bat bi lagunendako.

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



Markiegi

MARKIEGI JANTZI DENDA
Olarte kalea 2 | Arrasate
Produktu guztietan %10eko deskontua.

MIREN GARAI

MIREN GARAI
Zarugalde kalea 23, 2 ez. Arrasate
Tel.: 943 799 690
Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin,
eskuetako tratamendua doan.

LONBIDE

OINETAKOAK

LONBIDE Oinetakoak
Bidekurutzeta kalea 5, Bergara
Produktu guztietan %10eko deskontua.



ML Ile-apaindegia
Alfonso X Jakintsua plaza 1 behe,
Arrasate / Tel.: 943 797 965
"Nanokeratin System" proteina tratamenduan
%20ko deskontua.
Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.



NEBRASKA taberna
Zarugalde 35 - Arrasate
Tel.: 943 79 09 39
Mahou garagardo botila, euro bat bazkideentzat
Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxotxo doan
Interneteko menuetan %5eko deskontua



SARA MERENDERUEA Jatetxea
Meatzerreka auzoa 19,
Kanpazar bidean, 3km-tara - Arrasate
Tel.: 943 77 15 86
Astelehenetik igandera, eguneko menuarekin,
kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren
titular bakoitzeko).
Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin,
kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren
titular bakoitzeko).



TABERNA-BERRI Jatetxea*
Durana kalea 26, Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 67
Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide-
txartela erakutsiz gero;
Astelehenetik igandera, eguneko menuan,
bazkarian kafea doan.
Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian
kafea doan.



ZABALA Jatetxea*
Labegaraiaeta 14, Bergara
Tel.: 943 76 42 57
Zabala jatetxeko otorduetan bazkide-
txartela erakutsiz gero; Astelehenetik larunbatera,
eguneko menuan, bazkarian kafea doan



ARGIA Aldizkaria
www.argia.com
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide
berrientzat soilik).



NAREN
Fisioterapia eta osteopatia zentroa
Belorrieta 5 behe | Aretxabaleta
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan
izan ezik).



ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



JAUJA KIROLAK
Irizar pasealekua 1 behe, Bergara
Produktu guztietan %5eko deskontua..



LILURA EDERTZE INSTITUTUA
RPS: 299/13
LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7 | Bergara
%15a laser depilazioan: hanka osoa +
izterrondoa (besapekoak opari).
%20eko deskontua elikagai intolerantzia
proban.
%10eko deskontua mikropigmentazioan:
begiak, ezpainak edo bekainak.
%10eko deskontua fototerapia bidezko
aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



MAGDALENA Gasolindegia
Santxolopetegi auzoa | Oñati
% 2ko deskontua gasolindegian erregeia erositza.



OÑATI GARAJEA
Autoen garaje. Konponketak
Goribar Auzoa 9 | Oñati
Oñati %5eko beherapena egiten diren
konponketetan.



EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia
Mikeletegi 43-45 | Donostia
Sarrera bat erositza eta kupoiak Goiena Klubeko
txartela erakutsita, sarrera bat doan.



LASTAI
Koltxoak eta umeentzako artikulua
Arkatza 1, 49 Pab | Gasteiz
%5eko deskontu gehigarria helduentzako
atseden arloan.
%5eko deskontua haur kotxe eta automobileko
segurtasun - aulkietan.
%5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta
automobileko segurtasun-aulkietarako
denboraldiko ehun-gaietan.
%10eko deskontua denboraldiko hau-arropan.
(Beherapenetan eta eskaintza berezietan
izan ezik).



PORTALOI optika
Erdiko kalea 10, Arrasate
%15eko deskontua (ez metagarria beste
eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria
segurtasun betaurrekoetan).



KUTTUNA Estetika
Aranburuzabala 19, behe | Eskoriatza
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste
promozio batzuk izan ezik).



ALZU, S.L. Ehiza eta arrantza
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati
Arropetan %10eko beherapena.



CARAVANAS OÑATE
Galdaragintza. Bizikletak
Otdadi Zuhaitzia, 25 | Oñati
50€-ko erosketara egiteagatik, %10eko
deskontua stockean dauzkaten oinetako
eta ehun-gaietan. (ez du balio beste
promozioetarako).



ESTACION SERVICIO ARRASATE
Gasolindegia
San Andres 7 | Arrasate
% 2ko gasolindegian erregeia erositza.
% 2ko dendako produktuetan.



GAHIR Fisioterapia / Osteopatia
Aranburuzabala 6 behe | Eskoriatza
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.



NINIKA Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara
%10eko deskontua artikulua guztietan.



GAES Entzumen zentroa
Otalora 18 | Arrasate
Zurradero 10 | Bergara
%10eko deskontua (ez metagarria beste
eskaintza batzuekin)

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean.

Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 55 €. | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com



* Eskaintza honek GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Hiru puntuen bila hustu dira bi taldeak, intentsitate eta lehia handiko derbian

- ▶ Bergarak ez zuen baliatu jokalaria bat gehiagorekin geratu izana; ate aurrean ez dabilta fin
- ▶ Aloña Mendi ere partiduaren bila irten zen, eta amaieran ondo eutsi zien etxeko eraso

EMAITZA

BERGARA

1-1

ALOÑA MENDI

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Lupo, Etxebarri, Retege, Xabi, Urrutia, Julen, Alberdi, Asis, Markel, Eñaut eta Baltzategi.

Aloña Mendi: Aginagalde, Igarzabal, Endika, Irizar, Palacios, Urkia, Moreno, Juaristi, Markinez, Lizarra eta Martxel.

Bestelakoak: Anduaga epaileak ez zuen lan erraza izan. Hartu zituen zenbait erabakik kekek eragin zituen futbol zelaiaren zein harmailetan. Aloña Mendiko Juaristi egotzi zuen.



Aloña Mendiko jokalaria baten falta Bergarako kapitain Jokin Baltzategiri. | JOSETXO ARANTZABAL

jokaldi eder bat lotu zuten oñatiarrek eta erdiraketa on bat aprobetxatu zuen Lizarrak baloia buruz sarreratzeko. Etxeko enatazaina ez zen oso fin ibili irteeran. Gero, lehen zatia amaitzeaz zela, 1-2koa egiteko aukera ederra galdu zuten txantxikuarrek.

Bigarrenean, bizi-bizi

Bigarren zatia lehena baino biziago izan zen. Bergara hobeto hasi zen eta lehen minutuetan Aloña ito zuten Aitor Arrateren mutilek. Orduan, 14. minutuan, heldu zen derbiko jokaldi erabakigarria; epaileak Oñatiko Juaristi egotzi zuen bigarren txartel horia aterata. Beste partidu bat hasi zen orduan; Aloña aldaketak egin eta lerroak atzeratzera behartuta, eta Bergara garaipenaren bila. Handik gutxira, bigarren jokaldi aipagarria: penaltia Jokin Baltzategiri. Eñaut aurrelariak hartu zuen penaltia jaurtitzeko ardurara, baina Mikel Aginagaldek ederto gelditu zuen baloia.

Hortik aurrera Bergarak ezin izan zuen aukera garbirik sortu, lasaitasun zein sakontasun ezak eta nekeak eraginda. Aloña Mendiko ondo eutsi zien bergararren erasoaldiei; azkenera arte emozioa, eta puntu banarekin etxera.

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Derbi ederra jokatu zuten atzo Agorrosinen Bergarak eta Aloña Mendik. Intentsitate handiko lehia izan zen –baita gogorra ere, hainbat jokalditan–, bi taldeetako jokalariek hustu egin ziren garaipenaren bila, eta tarteka jokaldi politikak ere ikusi ziren.

Oñatiarrek ordu erdi luzea egin zuten hamar jokalarirekin, Juaristi erdilaria egotzi zuelako epaileak, baina bergararrek banakoarekin ez zuten arerioen atea bigarren zulatzen jakin. Penalti bat ere huts egin zuten, gainera. Bi taldeek egin zituzten partidua irabazteko meritua eta

azkenean puntu bakarrarekin konformatu behar izan ziren oñatiarrek zein bergararrak.

Partiduaren bila hasieratik

Bi taldeak hasieratik irten ziren garaipenaren bila. Golak heldu aurretik Aloñak izan zituen aukera batzuk eta Bergarak baloi gel-

dietan sortu zuen arriskua bereziki. Halako jokaldi baten, kornerrak buruz errematatuz, egin zuten etxekoek 1-0koa. Kolpearen ostean ondo altxatu zen Aloña Mendi eta berdinketaren bila joan ziren Igor Serranoren mutilek. Laster heldu zen banakoa: Bergara irteten zebilela

AITOR ARRATE | BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Lauzpabost aukera sortu behar izaten ditugu gol bat egiteko"

Gola egiteko zailtasunak dituztela behin eta berriz aipatzen zuen Aitor Arrate entrenatzaileak partiduaren amaieran.

Nahia izan duzue, baina ezin.

Bai... Partidua irabazteko egin beharrekoak egin ditugula uste dut, baina amaieran ezin dugu golik egin. Tamalez asko kostatzen ari zaigu golak egitea. Gol bat egiteko lau zpabost aukera sortu behar izaten ditugu; askotan lortzen dugu, baina beste askotan bidean gelditzen gara.

Nola aritu da Bergara zure ikuspegitik?

Orokorrean ondo ibili garela esango nuke. Lehen zatia nahiko orekatua izan da baina



J.B.

bigarren zatian jaun eta jabe izan da Bergara. Aukerak egin ditugu, baina hori, gola egitea falta izan zaigu.

60. minutuan hamar jokalarirekin geratu da Aloña Mendi, baina ezin abantaila hori markagailuan islatu.

Bai, aldeko jarri zaigu partidua eta gola egin nahian ibili gara. Penalti bat ere izan dugu eta beste zenbait aukera ere... baina ezer ez.

Aloña Mendik ere ondo egin ditugu gauzak, edo?

Kategoria honetan ez dago partiduak erraz irabazterik, eta are gutxiago ez baduzu

golik egiten. Aloña Mendi oso ordenatuta egon da eta zail jarri dizkigu gauzak.

Hurrengo jardunaldian UDA, lider sendoa.

Domekan Aretxabaletara goaz, bai. Irabaztera joango gara, inongo konplexu barik.

IGOR SERRANO | ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA

"Taldeak sekulako lana egin du, oso gustura nago jokalariekin"

Lehiaren bukaeran oso gustura zegoen Igor Serrano bere jokalariek egindako lanarekin eta erakutsitako jarrerarekin.

Hamar jokalariekin geratu zaretela ikusita, ona al da puntua Aloñarendako?

Ez pentsa... Lehen zatian aukera asko izan ditugu gola egiteko eta pena bat izan da ez asmatzea. Gero bai, hamar jokalariekin geratu garenean lerroak atzeratu behar izan ditugu. Taldeak sekulako lana egin du, oso gustura nago nire jokalarien errendimendurekin.

Ate aurrean ez da zuen eguna izan.

Ez. Partidua nola zihoan ikusita, gezurra



J.B.

zirudien 1-0 galtzen joatea. Buelta eman diogu gutxienez, eta hori bada zerbait.

Nola ikusi duzu Bergara?

Orokorrean ondo ikusi dut. Bigarren zatian lehenengoan baino hobeto, egia esan. Oso talde lehiakorra da eta gauzak argi dituzte; hori ona izango da euredako. Hala ere, aurkariari begiratzen ibili baino nahiago dut nire taldeari begiratu eta horren arabera lan egin.

Hurrengo bi partiduak zailak izango dira.

Bai, lehenengo Aurrera Ondarroaren kontra jokatu behar

dugu eta ondoren Aretxabaletaren aurka. Hau da, orain bertan lehen bi sailkatuak direnen aurka. Baina gu beldurrik gabe joango gara, futbolearen ez dago ezer alde

baterra uzterik.

ERREGIONAL PREFERENTE A

Baloiaaren jabe izan arren, sakontasun eta ideia garbirik gabe aritu da Mondra

- ▶ Atea defendatzera etorri zen Ikasberri, eta helburua erdietsi zuten
- ▶ Azken txanpan Iker Lopezek aukera ederra izan zuen garaipena lortzeko



Arrasateko erdilari Gorka Eraña baloiaarekin. | JOSETXO ARANTZABAL

EMAITZA	
MONDRA	
0-0	
IKASBERRI	

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Ohorezko Erregional Mailara igotzeko helburuari begira Mondrak ez zuen emaitza onik lortu atzo Ikasberri taldearen aurka. Baloiaaren jabetza eta iniziatiba euren izan zen, baina ezin izan zuten aukerak sortu eta sortutako apurrak ez zituzten aprobetxatu. Nahi eta ezin aritu zen atzo Mondra: "Baloia denbora luzez izan dugu gure oinetan baina sakontasunik gabe ibili gara", adierazi zuen Gotzon Urzelai entrenatzaileak.

Atea defendatzera irten zen Ikasberri; baloirik ez zutenean bosna jokalariz osatutako bi linearekin eta baloia zutenean gutxi-

tan- bost atzelarekin, lau erdilarekin eta aurrelari bakar batekin. Horren aurrean etxekoek ez zuten jakin aurkariaren sarea zulatzen; Mondra eroso zegoen atzean baina aurrera begira eskas, eta hori izan zen, hain justu, Ikasberrikoen helburua.


Aukera garbiena 92. minutuan
Aukera gutxi izan ziren baina partidua deskontuan zegoela, 92. minutuan, Iker Lopezek izan zuen 1-0eko egiteko aukera ederra, atea ia hutsik zuela kanpora bota zuen baloia. Horren aurretik epaileak ez zuen penalti bat adierazi, Ikasberriko atzelari batek baloia eskuarekin ukitu ostean: "Ez da aitzakia, ezin gara horrela justifikatu. Halako planteamendu defentsiboen aurrean ere nola jokatu landu beharko dugu entrenamenduetan", dio Urzelaiak.

Hurrengo jardunaldian Azkoitin jokatu dute sarrailagileek, azken bigarrena den Anaitasunaren aurka. Liderra, Getariako Keta taldea, hamar puntura dago dagoeneko.

GOTZON URZELAI
ENTRENATZAILEA

"Sakontasun barik ibili gara; gola egitea asko ari zaigu kostatzen"

Eraso jokoan hobetu behar nabarmendu zuen Mondra-ko entrena-



GOIENA

tzaileak partiduen ostean.

Nola joan da partidua?

Oso planteamendu defentsiboarekin etorri dira, lehen linean bost jokalarik eta bigarrenen beste bost jarri dituzte ia-ia. Ez genuen halako planteamendurik espero eta kosta egin zaigu aukerak sortzea, sakontasun gutxiarekin ibili gara. **Hori ikusita, atsedenaldira-oren ostean plana aldatzea erabaki duzue?**

Iniziatiba eta baloiaaren jabetza gurea izan arren euren kontraerasoekin kontuz ibiltzeko esan diet, batez ere golik ez jasotzeko. Planteamendua berbera izan da bigarren zatian, eta guk aukerak ezin sortu. Entrenamenduetan eraso hobeto landu beharko dugu. Sakontasunik ez dugu lortu eta nekeak ere eragin du amaieran. Gola egitea asko ari zaigu kostatzen azkenaldian.

OHOREZKO ERREGIONALA

Defentsako akatsek zigortuta, zuloan sartuta segitzen du Antzuolak

EMAITZA	
ANTZUOLA	
2-4	
OSTADAR	

Baloia geldiko hiru jokaldi eta hiruetan etxekoek akatsak aprobetxatu zituen Ostadarrek.

Erreakzioa bigarren zatian

Bigarren zatian dena ematera irten ziren antzuolarrak eta 60. minuturako 2-3 jartzea lortu zuten Josu Zubikarairi esker. Lehena gol ederra, eta bigarrena haren erdiraketa bikain batek eragindakoa. Eta ez hori bakarrik: 3-3koa gertu izan zuen erdilari antzuolarrak, langara bidali zuen eta falta jaurtiketa bat.

Horren ostean, kanpokoek baloia geldituz, faltak eginez eta



Josu Zubikarai, Antzuolako jokalaria, atera jaurtitzen. | IMANOL SORIANO

denbora galduz lortu zuten partidua hoztea. Amaieran, 80. minutu inguruan, 2-4koa egin zuen Ostadarrek, antzuolarrak beste

akats bat baliatuta. Aipatzekoa da Osasun, Numantzia eta Eibarren ibilitako Gorka Brit jokalariek hiru gol egin zituela.

OHOREZKO ERREGIONALA

Azken estropezuaren ostean, garaipen garrantzitsua lortu du UDAk Elgoibarren

Aretxabaletak Hirugarren Mailara igotzeko hautagai nagusia izaten jarraitzen du. Azken lehia Beti Gazteren aurka etxean galdu arren, Gorka Valleren mutilek argi utzi zuten atzo lidergoan sendo segitu gura dutela. 0-1 irabazten hasi ziren eta horrela heldu ziren atsedenaldira. Bigarren zatian markagailuari buelta ematea lortu zuen Elgoibarrek, baina UDAk beste bi gol egitea lortu zuen (2-3). Hurrengo jardunaldian Bergearen aurka jokatu dute.

EMAKUMEZKOEN ERREG.

Mondra nagusi Arizmendiren aurrean 0 eta 2

Mondra gailendu zen Arizmendiren aurka zapatuan, Ibarran jokaturako derbian. Andrea Paredesek egin zuen 0-1eko eta bigarrena, berriz, Eider Zeziagak egin zuen. Arizmendiko neskek saiatu ziren, baina ezin izan zuten golik egin.



IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

ATLETISMOA

Inoizko kuadrilla gehien, eta Beñat Arnaiz eta Ane Zabala onenak

Zabalaren kuadrilla –Rubixak– izan zen, gainera, taldeka ere txapeldun; mutiletan, Arrasate Runners

JULEN IRIONDO | ARRASATE
Santamas krosak girotu zuen domeka goiz –aurretik neskati-la-mutikoak ibili baitziren korrika– eta eguerdi parte Arrasaten. Lasterketan, inoizko jende kopuru handiena; 270 lagun inguru –iaz baino, adibidez, ehun bat gehiago–. "Beldurtuta", zioen Arrasate Atletiko Taldeko kide Fernando Zufriak. Aurreikuspenak askogatik gainditu zituzten, eta zenbait korrikalari oparirik gabe –ardoa eta bestelakoak– geratu ziren. Pena apur bat bazuten antolatzaileek. Gainera, ez bakarrik bakarka korrika egiteko, talde modura ere beste urte batzuetan baino askoz gehiagok eman zuten izena, bai mutiletan eta bai nesketan.

Eta lasterketaren bueltan sortutako giro ederraren beste osagarria, jendea; jende ugari kale bazterretan, orain hemen eta hemendik pasatakoan hor, gertukoak eta gainerakoak animatzen. Herriko kaleetan egindako lau itzuliko lasterketak horretarako aukera ematen du.

Kutsu herriko handiko lasterketa izan arren, denak ez ziren,

baina, goiza pasatzera –bakarrik– joan. Mutiletan, Antxintxika taldeko Beñat Arnaiz aretxabaletarra eta Xabier Luis oñatiarra laster nabarmendu ziren. Amaieran aitortu zuten kuadrilla arteko sailkapena ziurtatu nahi zutela, nahiz eta azkenean ez zuten lortu –bigarren izan ziren, Arrasate Runnersen atzetik eta Orixol taldekoak baino lehen–. Arnaizek bigarren itzulirako utzi zuen

atzean Luis, eta hurrenkera horretan amaitu zuten; hirugarren, Iñigo Altzola arrasatearrak egin zuen.

Nesketan, alde handiagoak izan ziren lehenengo artean, eta Ane Zabala arrasatearrak eroso irabazi zuen, Raquel Alonsoren eta Onintza Langaranen aurretik. Kuadrillak, Rubixak izan ziren nagusi, Oinazkarrak gero, eta Erratzautoa hirugarren.



Beñat Arnaiz eta Xabier Luis, elkarrekin. | ARITZ GORDO



Beñat Arnaiz, helmugan sartzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Korrikalari taldetxoak, ahalegin betean. | ARITZ GORDO



Arrasate Runners taldekoa, gainerakoak gidatzen. | ARITZ GORDO



IKER SARABIA
KUADRILLA IRABAZLEKOA

"Aurreneko urtea izan da irabazi dugula, eta poz-pez gaude. Jende asko egoten da animatzen. Parte-hartzea ere handia izaten da, giro polita egoten da. Saria, bildotsa, urtarrilean jango dugu".



LEIRE RUIDIAZ
KUADRILLA IRABAZLEKOA

"Nik ahal izan dudana egin dut, baina beste batzuk aurretik joan dira, eta irabazi egin dugu. Nire lehenengo aldia zen, eta helmugara iristea nuen helburu; aspaldi korrika egin gabea".



XABIER LUIS
OÑATI

"Beñatekin berba eginda nuen ea biok batera iristen ginen helmugara. Baina bera ni baino gehiago da, eta bigarren egin dut. Lasterketa herrikoia da, eta denok etorri gara ondo pasatzera".



KEREN VAZQUEZ
ARETXABALETA

"Indartsu hasi naiz. Lehenengo bi itzuliak nahikoa ondo egin ditut, eta gero erritmoa jaitsti dut. Baina pozik nago. Arrasaten izatera, lagunek eta familiakoek animatzen zaituzte, eta polita da".



UNAI UGALDE
ARRASATE

"Kuadrillako eta inguruko jendearen artean egin dugu taldea. Lehenengoak erdi profesionalak izaten dira, baina guk eman dugu gure maila. Jatekorik ez, baina ardoa asko daramagu".



Enrike Kabiketaren argazkia soinean; haren omenezko krosa da. | J.A.



Korrikalari eta zale ugari, Arrasateko kaleetan. | J.A.



Korrikalariak, elkarrekin gurutzatzen. | J.A.



Mutil kuadrilla irabazleko kideak. | JULEN IRIONDO



Neska kuadrilla irabazleko kide bi, neskatila pila batekin. | J.I.

BEÑAT ARNAIZ GIZONEZKO ONENA

"Lasterketa honek badu zerbait berezia; urtetik urtera gora doa"

Aretxabaletarra gustura zegoen amaieran.

Lasterketa-ekin, pozik.

Ezin da gehiago eskatu. Arrasate horrelako lasterketa batekin horrela bolkatzea, hainbeste jende ikustea, eta gainera irabaztea...

Xabier Luisekin joan zara hasieran, baina gero zeure lasterketa egin duzu.

Elkar ondo ezagutzen dugu, eta hitz egin dugu. Asmoa zen Xabi eta biok aurrera joatea hasieratik. Aguantatu du, baina gero bakarrik geratu naiz.

Garaipena arriskuan ez duzu izan behin ere.

Lau itzuli izatera, leku askotan ikusten genuen elkar. Ikusi dut nahikoa kontrolatuta nuela, eta disfrutazera.

Kale bazterrean, animatzen, jende asko.

Lasterketa asko egin ditut, baina herrikoia izateko eta herri txiki batean, lasterketa honek badu zerbait berezia. Jende pila bat etortzen da, eta urtetik urtera gora doa. Eta kaleetan animatzen egoten den jende mordo... Polita da.

Urtea bukatzen joateko modu on bat.

Eta kuadrillak ere badenez eta bildotsak eta tartean egonda, aitzakia polita izaten da gero bazkari on bat egiteko.



J.I.

ANE ZABALA EMAKUMEZKO ONENA

"Kuadrillen artekoa nola den, beste ilusio batekin egiten da"

Iaz lortutako garaipena errepikatu du aurten arrasatearrak; Santamas krosa gehiagotan ere irabazitakoa da.

Giro ederra herriko kaleetan, goiz-pasa polita, eta gainera irabazi.

Bai, gainera aguantatu du euria egin gabe. Eta irabazita, pozik, bai.

Giro polita sortzen da lasterketaren bueltan.

Bai. Lehenengo ordutik umeak ibiltzen dira lasterketetan, eta goiz polita izaten da hemen, Arrasaten.

Korrikalarien artean ere giro ona suma zitekeen.

Bai. Kuadrillen arteko lasterketa nola den, beste ilusio batekin egiten da.

Nolakoa izan da zure lasterketa? Topera irten duzu? Nola ikusi dituzu kontrarioak?

Gustura ibili naiz lasterketa osoan. Beste neskekin atera naiz, eta gero poliki-poliki aurreratu egin naiz.

Etorri ere irabazteko asmoz egin zara? Edo aukera baze-nuela jakinda, behintzat?

Ez. Beste behin egiteko eta bukatzeko asmoarekin.

Orain, San Silvestre?

Bai, han edo hemen, egingo dugu.



J.I.

ESKUBALOIA

Gol bakarragatik, baina irabazi egin du Ford Mugarrik Tolosan

"Oso partidu zaila izan da. Hiru golengatik galtzen joan ginen atsedenaldira. Bigarren zatia ondo hasi genuen eta markagailuan aurretik eta atzetik ibili ginen zati osoan. Azkenean, zuzeneko falta baten huts egin zuten eurek, eta geuk irabazi genuen partidua, gol bakarragatik. Kepa Kruzetak ez zuen jokatu eta Kepa Isasmendik, berriz, lesionatuta jokatu zuen. Partidu gogorra izan zen eta pozik gaude", adierazi du Pablo Gartzia entrenatzaileak.

Datorren asteburuan Hondarribiaren aurka jokatuko dute Iturripen eta urtarrileko lehen asteburuan, bestalde, Euskadiko kopako finalerdia Bidasoaren aurka, etxean, Arrasaten.

ESKUBALOIA

Ondo jokatu arren, bigatik galdu zuten Aloña Mendiko neskek

Euskadiko Txapelketaren barruan, Aiala taldearen aurka jokatu zuten Aloña Mendiko neskek zapatuan Zarautzen eta 22 eta 20 galdu zuten. "Ondo jokatu genuen eta defentsan oso ondo ibili ginen, primeran. Atakatzea falta izan zitzaigun", kontatu du Rebecka Sanchez jokalaria.

Partiduko bi zatiak, baina, berdinak izan ziren. Aloña Mendiko neskek galtzen hasi ziren baina azkenean hiru puntu goitik bukatu zuten lehen zatia. Bigarren zatian hasieran ere motel aritu ziren eta beranduegi indartu ziren. Azkenean bigatik galdu zuten partidua. Datorren astean ere etxetik kanpo jokatuko dute, Urrietako taldearen aurka, hain zuzen ere.

ESKUBALOIA

Ondo hasi baina gaizki bukatu du Bergarako taldeak Bilbon

Gorputzaldi txarrarekin bueltatu ziren Bergarako eskubaloitako taldekoek Bilbotik zapatuan. 25 eta 23 galdu zuten Escolapios taldearen aurka, baina lehen zatia zazpi goleko diferentziarekin bukatu zuten, Bergarakoen alde. "Bigarren zatian ere ondo hasi ginen baina eurek defentsan aldaketa batzuk egin zituzten, eta ez genuen asmatu horri aurre egiten. Jokalaria gazteak dira eta partidua maldan beheara doanean garrantzitsua da jokalaria beterranoen esperientzia, baina baxa askorekin joan ginen. Konfiantza faltagatik, aurretik jarri ziren eurak partidua bukatzeko bost minutu falta zirela, eta ezin izan genion buelta eman. Ea hurrengo irabazten dugun", dio entrenatzaileak, Josetxo Muniategik.

EBA MAILA

Itoginek, lesioek eta aurkari oso lehiakor batek ezin izan dute Ointxeko jokalarien adoreaekin

Azken sailkatuak garaipena oso garesti jarri zuen Iturripen; defentsako lan onari esker irabazi zuen MUK



Martxel Balantzategi erasoko jokaldian; taldeko onena izan zen zapatuan. | I. SORIANO

EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

66-61

GRUPO SANTIAGO AUTOMOCION

FITXA TEKNIKOA

MU: Zeziaga (17 puntu), Balantzategi (15), Barbero (13), Saez de Cortazar (5), Arexolaleiba (4), Arantzabal (2), A. Atxa (5), Lorenzo (5), M. Atxa (0) eta Kintana (0).

Grupo Santiago Automocion: Lopez (16 puntu), Gartzia (11), Gomez (8), Ortega (7), Lozano (6), Duarte (5), Ruiz (4), Villaquiran (3), Delgado (2) eta Gadea (0).

Bestelakoak: Astean zehar itoginek eragindako buruhausteek ez zuten zapatuko norgehiagoka baldintzatu.

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Zapatuan argi geratu zen beste behin EBAn garaipena oso garesti dagoela. MUK gogotik izerditu behar izan zuen azken sailkatua menderatzeko, Grupo Santiago de Automocion taldea. Esperientzia handiko taldea da Burgoskoa; seguruena aurkari zuzenak izango dira ez jaisteko borrokan. Kontrako beste faktore batzuk ere baziren zapatuan: astean zehar itoginaren erruz ganoraz entrena-

tzerik izan ez eta hiru jokalaria lesionatuta izatea, besteak beste. Horren aurrean, adorea eta bereziki defentsako lan ona izan ziren garaipenaren gakoak. Izan ere, jaurtiketetan ez zuten egunik finena izan. Zenbakiei erreparatu ezker, lehen bi laurdenetan kanpokoak izan ziren nagusi (14-18/15-18) eta atsedenaldira galtzen heldu ziren etxekoak (29-36).

Aldageletatik bueltan egindako defentsako lan eder horri esker hirugarren eta laugarren laurdenean (15-6/22-19) gehiago izan ziren sarraileak Amaieran, merezitako garaipena Ointxe saskibalo klubarendako.

Fisikoki ahulago

Lau garaipen eta lau porrot ditu MUK. Jokalariak ondo egokitu dira EBA mailara; hori bai, barruko jokoan asko sufritzen dute, aurkariak fisikoki indartsuagoak direlako. Zapatuan ere talde altuago baten aurka -ACBko jokalaria ohiren bat ere tartean- neurtu zituzten indarrak. Horren aurrean defentsako lan ona ezinbestekoa da; zapatuan, adibidez, Martxel Balantzategi izan zen defentsako lanean nabarmendu zena: "Estatistiketan normalean puntuak eta errebotek hartzen dira kontuan, baina Martxelen kasuan gaur defentsan egin duen lana gorai-patzekoa da", dio Josu Larreategi. Defentsan bikain aritu zen Balantzategi, Burgosko jokalaria onena lehorteza lortu zuen hein handi baten. Erasoan ere fin, 15 puntu

JOSU LARREATEGI
ENTRENATZAILEA

"Bereziki defentsan sufritzen ikasi dugulako irabazi dugu"

Taldeak egin-dakolanarekin oso pozik zegoen Josu Larreategi.



GOIENA

Pozik? Nola

ikusi duzu zure taldea?

Oso ondo. Itoginak direla-eta modu kaskarrean entrenatu dugu eta gure maila emateko ezinbestekoa zaigu ondo entrenatzea. Azkenean, baina, partidua irabaztea lortu dugu; hori da garrantzitsua.

Zailtasunei aurre egiten dakien taldea da MU.

Halaxe da. Hiru jokalaria lesionatuta daude, beste bik ezin dute entrenatu kanpoan ari direlako lanean... Maila probintzialeko taldearekin batera ari gara entrenatzen. Baina ez dago aitzakiarik, zailtasunei aurre egin eta aurrera!

Zein izan da lehiako gakoa?

Defentsako lan ona. Erasoan ez gara oso fin ibili, 66 puntutan geratu gara. Defentsan sufritzen ikasi dugu eta horri esker irabazi dugu.

egin zituen-eta. Saririk balego, zapatuan harendako izan behar litzateke onenarendako saria. Hurrengo Tolosan jokatuko dute, azken lehia Gabonetako etenaldiaren aurretik: "Partidu oso garrantzitsua izango da".

SENIOR GIZONEZKO 2. MAILA

Natra Oñatik galdu egin du liderraren aurka 84 eta 72

J.B. | OÑATI

Liderraren kantzara egin zuen bisita Natra Oñatik zapatuan, Gasteizko Tecnum taldearen aurka lehiatu ziren Gorka Judezen mutuilak. Atsedenaldira arte ondo eutsi zioten aurkariari, baina atsedendititik bueltan etxekoak agintzen hasi ziren. Hamar puntuko partziala egin zuten eta oñatiarrek laugarren laurdenean alde hori murrizten jakin zuten arren, gasteiztarrek hiruko marratik barrura egingako hiruzpalau jaurtiketen ostean erabat amaitu zen partidua. Azken minutuetan ez zen emoziorik izan. Galdu arren nahiko pozik zegoen Judez: "Oso kantxa zaila da eta emaitzarekin baino taldeak eman duen itxura onarekin geldituko naiz".

EMAKUMEZKO SENIORRAK

Eskoriatzako neskek jipoi galanta jaso dute 51 eta 29

J.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako neskek oso partidu eskasa egin zuten egubakoitzean Donostian. Lehen laurdenean ia dena egin zuten txarto eta horrek partidu oso baldintzatu zuen. Atsedenaldira 33-5 joan ziren eta hirugarren laurdenean zertxobait hobeto ibili baziren ere, partidua ahalik eta duinen amaitzea izan zen eskoriatzarren helburua hirugarren eta laugarren laurdenetan. Zazpigarren postuan daude orain eta datorren jardunaldian Summa Aldapeta taldearen aurka neurtu beharko dituzte indarrak. Bi taldeak 11 punturekin daude; asteko entrenamenduetan joan den egubakoitzeko akatsak zuzendu eta itxura hobea ematera kantzaratuko dira eskoriatzarrak.

BIGARREN ERREGIONALA

Galdutako baloiak izan dira gakoa edozeinek irabazi ahal izan duen derbi parekatu baten

Partidu gorabeheratsua, akats askokoa eta emozio handikoa jokatu zuten arrasatearrek eta bergarrek egubakoitzean Musakolako kiroldegian

EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

62-59

SORALUCE BKE

J.B. | ARRASATE

Derbi baten ohiko osagaiak izan zituen MUK eta Soraluze BKEk egubakoitzean Musakolako kiroldegian jokatu zuten partiduak: lehia parekatua, akatsak protagonista -galdutako baloiak izan ziren gakoa- eta emozioa azken arte. Etxeko taldeak hobeto hasi zuen partidua eta euren izan zen lehen laurdena.

Hala ere, bigarren laurdenean urduri irten ziren jokalaria arrasatearrek eta bergarrek tx-

kal-aldi hori aprobetxatu zuten gora egin eta markagailuan gerturatzeko. Hala, atsedenaldira berdinketarekin erretiratu ziren bi taldeak (44-44).

Bergarren minutu onenak

Hirugarren laurdenean nabarmen egin zuten behera arrasatearrek: "Atsedenaldiraren ostean bereziki, defentsan oso gaizki aritu gara eta erasoan oso urduri. Azkar eta gaizki egin ditugu jokaldiak eta aurkariak ondo aprobetxatu dute hori", adierazi du MUko entrenatzaile Juan Carlos Davilak.

Izan ere, orduan iritsi ziren Soraluze BKEren minuturik onenak. Hiruko marratik oso fin ibili ziren Jon Beistegiren mutuilak eta horrez gain, defentsan ere zazpi puntuko alde lortu zuten hirugarren laurdenean

amaieran eta partiduko azken hiru minutuetara arte alde hori mantentzea lortu zuten kanpokoak. Eta garaipena Bergarara joan behar zela zirudienean, Davilak gazte mailako hiru jokalaria kantzaratu zituen eta haize fresko horrek iraultza ekarri zuen: "Defentsan oso gogor aritu dira, baloiak errekuaritzen, eta jaurtiketetan ere ondo". Gazteen ekarpenak eta azken orduko zorteak eraginda azken segundotan lortu zuten etxekoak aurretik jartzea.

Bigarren erregional mailako goiko postuetan daude bi taldeak; MUK bederatzi partidu irabazi eta bi galdu ditu. Soraluze BKEk, aldiz, zazpi norgehiagoka irabazi ditu eta lau galdu. Hurrengo jardunaldian bergarrek azken sailkatua hartuko dute eta MUK, aldiz, Oiarzuneri egingo dio bisita.

Jone Uriarte | Mendi lasterkaria

"Mendi lasterketak amaitzearekin konformatzen naiz, disfrutatzea da kontua"

- ▶ "Asfaltoan korrika egitea oso desberdina da, gogorragoa; nik neuk nahiago dut mendia"
- ▶ "Gogoz egonez gero, eta entrenatuta, egin daitekeela uste dut, ez da beste ezer behar"

IMANOL BELOKI | ESKORITATZA

Jone Uriarte Iñurrategi (1997) gazte eskoriatzarrak mendian ibiltzea du zaletasun. Izan ere, hainbat korrika-lasterketa egin ditu, eta, gaztea izan arren, balio duela erakutsi du.

Noiz hasi zinen mendi lasterketan?

Betidanik gustatu izan zait mendia, baina txapelketetan 15 urte nituela hasi nintzen. Arizmendi Kirol Taldea sortu zen, eta Iñaki Uribeberria entrenatzaile eta laguna zenez, hark gomendatuta hasi nintzen.

Iñaki Uribeberriaren gidaritzapean lasterketa batzuetan parte hartzeko entrenamenduak egiten hasi ginen taldekide nituen Iñaki Astiazaranekin, Asier Urtzelarekin eta Aitor Arroiaberekin, eta gogo handiz hasi nintzen, nahiz eta gaur egun pixka bat utzita dudan lehiaketa.

Zer da beharrezkoa mendi lasterketa batean?

Txapelketa batera lehiatzera joateko, ondo entrenatuta egon behar da. Ni neu lasterketak amaitzearekin konformatzen naiz; disfrutatzen badut, pozik geratzen naiz. Astean behin edo bi aldiz dezenteko bidexka egitea komeni izaten da. Edozelan ere, gogoz egonez gero, eta entrenatuta, egin daitekeela uste dut, ez da beste ezer behar.

Hasi zinetik zenbat txapelketatan hartu duzu parte?

Entrenatzen hasi eta gutxira hasi nintzen lehiatzen. Orain arte, hiru txapelketatan bakarrik izan naiz, egia esan.

Lehenengoa junior mailako Zegama-Aizkorri izan zen, 16 urte nituela. Emakumezkoetan azkena izan nintzen, baina lasterketa amaitzearekin oso pozik geratu nintzen. Izan ere, nahiz eta maila horretako lasterketa ez den Aizkorriaino heltzen, oso gogorra da eta paisaia ikusgarriaz disfruta daiteke hango inguruetan. Gainera, nire lehenengo lasterketa izanda, bukatzea besterik ez nuen buruan... [barrez]

Ondoren, Eskoriatzan, Gabez Takarraran lasterketan bi aldiz hartu dut parte eta bietan irabazi nuen nire kategorian. Hori bai, neska bakarra nintzen gazteen mailan, eta, hala, normala irabaztea. [barrez]

Gauz eta mendian ibiltzea arriskutsua izango da...

Egia esan, adi ibili behar da, baina gauz egiteak xarma berezia du. Bakarrik, ilunetan, frontalak ematen duen argi txikia



Jone Uriarte, lasterketan. | IÑAKI URIBETXEBERRIA

rekin... baina egoten den giroa izugarria izaten da. Gure kategorian, Asentziora joan-etorria egiten dugu, eta, beharrezko entrenamenduarekin eta bidea ezagututa, ez dago zertan ezer

"Gabez Takarraran lasterketa egiteak xarma berezia dauka"



Jone Uriarte, Asier Urtzelai, Iñaki Uribeberria eta Aitor Arroiabere mendi lasterkariak.. | IÑAKI URIBETXEBERRIA

gertatu.

Mendiko lasterketak, gauz egini-koak... egin dituzu, baina ibili zara asfaltoan?

Iaz, Behobia-Donostia lasterketa mitikoan izan nintzen eta oso gogorra iruditu zitzaidan. Luzea egin zitzaidan bidea, eta, mendian ohituta egon arren, asfaltoan korrika egitea oso desberdina da, gogorragoa. Niri, gogorragoa egin zitzaidan. Edozelan ere, bukatu egin nuen, eta pozik nago horregatik, baina nik neuk men-

dia dut gustuko.

Jarraitzen duzu Arizmendi taldearekin entrenatzen?

Ez, taldea desagertuta dago. Nor bere kabuz entrenatzen da, eta, oso gustura ibiltzen ginen arren,

"Katalunia aldera joango nintzateke, paisaia ederrak daude han"

beste zeregin batzuk ditugu guztiok. Denbora luzeagoa izan nahiko nuke, baina... Mendi lasterketak egitea zaletasuna da, baina nahiko nuke zaletasun honekin jarraitu eta, ahal badut, lehiatzen jarraitu.

Gaur egun badukazu lasterketan bat buruan?

Ikasketak direla-eta ez dut astirik. Gainera, eguraldiak ez du laguntzen eta zaila izaten zait korrika egitera joateko denbora hartzea. Noizean behin, joaten naiz entrenatzera, baina ez dut lasterketarik buruan. Ea Zegama-Aizkorriko lasterketa nire kategorian egiteko beste aukera bat dudan. Izan ere, laster nagusien kategoriara pasatuko naiz, eta egun hori heldu aurretik berriz egin nahiko nuke. Nire lehen lasterketa izan zen, eta berezia da niretzat.

Egin dituzun lasterketez gain, nora joango zinateke korrika egitera?

Katalunia aldera joango nintzateke korrika egitera, han paisaia ederrak daude eta lasterketa politik antolatzen dituzte. Anbotoko eta Aloña Mendiko igoerak ere gustura asko egingo nituzke. Izan ere, ez nago seguru, ez dakit nire mailakoek Aloñako igoeran parte har dezaket; bestela, urte batzuk pasatu ondoren, ikusiko dugu...



Ez zaitez galdu.

EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!



Dokek egindako galderekin identifikatu eta irribarre egin dute ikus-entzuleek

- ▶ 'Galderak' antzezlanaren birritan egin du Arrasateko antzerki taldeak Amaia antzokian
- ▶ Bizitzako etapa ezberdinetan egin eta entzun ohi diren galderak errepikatu dituzte

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Arrasateko Doke antzerki taldeak *Galderak* antzezlanaren birritan egin du aste-buru honetan Amaia antzokian. Zortzi aktorek, zein baino zein naturalago, antzeztu dituzte bizitzako sasoi ezberdinetan egin edo entzun ohi diren galderak. Esa-

terako, ume jaioberrira oraindik ospitalean dagoela bisitan doazenek, "zeinena da sudurtxo hau?" bezalako galdera ekarri zuten gogora. Edo umea haur eskolara doanean eta izena jartzen diotenean aldean: "Zergatik jartzen didate izena, nik nirea zein den

baldin badakit, nire laguntxoek irakurtzen ez baldin badakite eta irakasleak guztionak baldin badakizki?".

Tolestean den aulki bana eskutetan dutela ibili dira oholta gainean zortzi aktoreak eta psikologo lanak egiten zituen pampina

bateri egin dizkiote galderak. Baina herritarrek egindakoak ere erantzun zituzten. Izan ere, ondo erabili zuten dekoratu ez handiaren erdian pantaila bat zuten. Bizitzako momentu batean edo bestean eurei egindako soberrako galderaren bat bota zuten

herritarrek. Adibidez, hiru lagun 23:00etan jatetxe batera joan afaltzera eta hango zerbitzariak esan: "Hiru lagun afaltzera, ezta?".

Arropa zuriekin edo traje laranja batekin, baina denak aritu ziren arropa erosoekin eta oso ondo egin zuten lana.



Antzezlanaren parte hartu zuten zortzi aktoreak, bakoitza bere aulki gainean. | IMANOL SORIANO



Mercader, Velez de Mendizabal eta Pagoaga. | IMANOL SORIANO

San Pedroko organoaren alde dirua batzeko lehen kontzertua egin dute

- ▶ Bergarako organoa babesteko sortu zen elkartearen lehen ekimena izan da
- ▶ Herriko talde ezberdinekin egingo dituzte hurrengo kontzertuak



Domekan Bergarako Santa Marina parrokiaren izan zen kontzertua. | JOSETXO ARANTZABAL

O.E. | BERGARA

Begarako San Pedro parrokiako organoaren alde dirua batzeko kontzertua egin zuten atzo, domeka, iluntzean Santa Marina parrokiaren. Kaltetua dagoen organo-jole titularrak, Aitor Oleak, egin zuten kontzertua.

San Pedroko organoa babesteko sortutako elkarteak antolatu zuen kontzertua eta egingo dituen ekintzetatik lehena izan zen. Aurrerantzean ere kontzertu gehiago egingo dituzte, herriko musika talde ezberdinekin batera, eta horietan batutako dirua ere organoaren konpontze lanak egiteko izango da. Atzoko kontzertua entzuteko, adibidez, bost euro ordaindu zuten sarre-entzuleek. Izan ere, organoa babesteko sortu den elkartearen helburua argia da, organoaren lehen lanak egin ahal izateko behar dituzten 100.000 euroak lortzea.

San Pedro parrokiako obrak egin zituztenean ikusi zuten hango organoa babestu beharra zegoela, eta horrela sortu zen elkarte hori. Konpontze lanetarako diru laguntzak lortzea eta ekitaldiak antolatzeke ardura hartu zuten.

HURRENGO KONTZERTUAK

MARTXOAN

Begarako Orfeoiekin.

APIRILEAN

Koru Parrokialarekin.

Marije Ugalderekin

Alai taldearekin.

MAIATZEAN

Aritzeta abesbatzarekin.

EKAINEAN

Begarako Orkestra Sinfonikoarekin.

URRIAN

Begarako Udal Musika Bandarekin.

Gabon kutsuko kontzertua, Goikobaluko eskutik

Arrakastatsua izan da aurten ere Harreman Gobernuz Kanpoko Erakundearen alde egindako emanaldia

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Jende dezente bertaratu zen Goikobalu abesbatzakoek Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiaren egubakoitzean eman zuten kontzertura. Harreman Gobernuz Kanpoko Erakundearen alde egindako emanaldia izan zen eta Gabonetako hainbat kanta entzun ahal izan ziren.

Haurrak izan ziren kontzertuari hasiera eman ziotenak. Goikobaluko tailerrean dabilzan 4-6 urte bitarteko txikienek koreografia eta guzti jarri zieten hainbat abestiri. Gabonetako apaingarriak zituzten, gainera, soinean. Goikobalu abesbatzako kantari txiki eta gazteek ere parte hartu zuten kontzertuan eta gurasoen txalo zaparradak entzun ziren euren abestien ostean.

Gaztetxoek ostean, nagusien txanda iritsi zen eta Iñaki Maidaganen zuzendaritzapean zazpi abesti kantatu zituzten. Batzuk, taldearen errepertorioko abestiak, eta beste lau abesti kontzertuan bertan estreinatu zituzten: ABBA-



Goikobalukoak kantuan, egubakoitzeko kontzertuan. | JOSETXO ARANTZABAL

ren *Chiquitita*, Richard Rodgersen *Blue Moon*, Aita Madinaren Gabonetako abesti bat eta Errege Magoen beste abesti alai bat. "Denbora oso gutxi izan dugu entseatzeko, baina kontzertua ondo atera da", azaldu zuen Maidagan zuzendariak.

Amaitzeko, Goikobaluko adin guztietako abeslariak *Hator, hator* abestia kantatu zuten batera.

Harremanekoak eskertuta

Harreman erakundeak idazkari Cristina Etxenautia eskertuta zegoen Goikobalukoek eman zuten kontzertuarengatik: "Gustura hartzen dugu urtea amaitzeko Goikobalu abesbatzakoek kontzertua. Oso-oso garrantzitsua da guretzat kontzertu hori eta hemendik Goikobaluko guztiak eskertu nahi ditugu".

Bergarako bikotea hirugarren, Euskadiko Dantza Solte Txapelketan

A.T. | BERGARA

Gorka Kerejeta eta Ania Irigoien bikote azpeitiarrak irabazi du Bergaran domekan egin zen bikote gazteen XXXVII. Euskadiko Dantza Solte Txapelketa. Bigarren gelditu dira Lezoko Iker Belintxon eta Maider Aginaga, hirugarren postua lortu dute Bergarako Julen Murgiondo eta Saioa Galarragak, laugarren gelditu dira Azpeitiko Jon Ibarzabal eta Larraitz Larrañaga eta bosgarren Errezilgo Julen Berrondo eta Nagore Berrondo.

Jantzi egokienaren saria, berriz, Ibarzabaleri Odriozolak eta Izaro Urrestarazuk eskuratu dute eta bergarar onenen saria eskuratu du hiruga-

rren gelditu zen herriko bikoteak.

Epaimahaia Euskal Dantzarien Biltzarrak izendatutako lau kidek osatu zuten: Ander Garitanoandiak, Gabriel Alonsok, Idoia Besadak eta Lierni Martiarenak. Baloratu zutena da nola dantzatzen zuten eta erabiltzen zituzten pausuak, gerritik gorako aldearen mugimendua, alaitasuna eta erritmoa. "Garbi ikusi dugu nortzuk izan behar ziren irabazleak", azaldu zuen Besada epaimahaikideak.

Parte-hartzaileek fandango eta arin-arina dantzatu zuten eta frontoian jende asko izan zen. Aurten lehenengo urtez, Bergarako musika eta dantza eskolak antolatu du txapelketa.



Bergarako Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo, txapelketan. | J.A.



**ALMACENES
ARRASATE**

Kataide poligonoa 3 • Arrasate
Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34
Faxa: 943 77 13 13



Etxe-Lan
Confort

Torrebaso Pasealekua Ibilbidea, 14 | 20540
Eskoriatza Gipuzkoa | SAT industrial: 943 79 12 30
SAT etxekoa: 943 79 89 97

35 urte
goren LIZ OHIALA gisa

NEGUKO ESKAINTZA BEREZIA Hormako gas-galdarak

ARISTON EGIS NOX



- 24 kW-ko potentzia.
- LCD pantaila.
- Errendimendu handia.
- Termoerregulagarria.

1.499 €

PREZIO BARRUAN DAUDE:

- Mantentze-lanak, urtebete doan.
- Oinarritzko instalazioa barne, bertako iturginen kontura.
- Urtebeteko garantia osoa (piezak + eskulana) + aurreneko manten-lan prebentiboa barne.
- Garantia 5 urtera arte luzatzeko aukerarekin.
- Piezetan bi urteko garantia

ARISTON CLAS PREMIUM EVO



- Lehen mailako kondentsazio-galdara.
- Efizientzia energetiko handia.
- %35eko aurrezpena.
- 24 kw potentzia.
- LCD pantaila.

1.750 €

PREZIO BARRUAN DAUDE:

- Mantentze-lanak, urtebete doan.
- Oinarritzko instalazioa barne, bertako iturginen kontura.
- Urtebeteko garantia osoa (piezak + eskulana) + aurreneko manten-lan prebentiboa barne.
- Garantia 5 urtera arte luzatzeko aukerarekin.
- Piezetan bi urteko garantia

TERMO ETA
BEROGAILUETAN
%20ko
DESKONTUA

Sastiñako jazz kontzertua goxoa eta gertukoa izan da

Goi mailako musikariek ikus-entzuleen berotasuna jaso zuten zapatuan

AMAIA TXINTXURRETA | ARAMAIO

Jazzaren munduan esperientzia handia duten artistak izan ziren zapatu iluntzean Aramaio Sastiñan kontzertua ematen. Espainia mailako jazz figura onenatarikoekin jo izan duten lau artista elkartu ziren emanaldirako: Jon Robles –saxofoia–, Jose Barrio –gitarra–, Gonzalo del Val –bateria– eta Marcelo Escrich –kontrabaxua– laukoteak eskaini zuen kontzertua.

Cole Porter edo Sonny Rollins jazzlarien abesti ezagun batzuk jo zituzten zuzenean, eta beste hainbat kantuz osatutako erreperitorioa entzuten, bertaratu ziren herritarrak gustura egon ziren, Gabonen atarian egindako



Laukotea Sastiñan, jazz kontzertua eskaintzen. | IMANOL SORIANO

jazz doinuen emanaldiarekin disfrutatzen. Adin guztietako herritarrak izan ziren gainera kontzertuan.

Musikariak ere gustura

Laukotea ere oso gustura egon zen Sastiñan kontzertua ematen. Hauxe azaldu zuen Gonzalo del Val bateria joleak emanaldiaren hurrengo egunean: "Toki zoragarrian jo dugu, oso ondo zaindu gaituzte, gertuko ikus-entzuleak izan ditugu eta euren berotasuna igarri dugu kontzertuan. Oso polita izan da".

Asteburuko bira egin dute

Gaur egun taldeko partaide gehienak Bartzelonan bizi dira eta hainbat jazz talde eta proiektutan murgilduta daude. Duela denbora asko ezagutu ziren eta hainbat proiektutan hartu dute parte batera. Normalean ez bezala, baina, oraingoan laukote bezala elkartu dira Euskal Herrian zehar bira txiki bat emateko: egubakoitzean Bilbon jo zuten, zapatuan Aramaio eta baita Arrasateko Monte tabernan ere eta domekan, berriz, Gasteizen izan ziren. Azken kontzertu horren ostean, Bartzelonara itzuliko dira.



J.A.



JOSE TXO ARANTZABAL

Bergarako osoko bilkuren aretoa txiki gelditu da Alai taldearen emanaldian

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Bergarako Alai taldeak 43 urte bete ditu aurten eta euren ibilbidea jasotzen duen kontzertua eskaini zuten zapatuan osoko bilkuren aretoan. Herritarren ikusmina piztu zuen kontzertua izan zen eta jendez bete zen aretoa; atearen kanpoko aldean ere herritarrak zutik egon ziren otxotearen emanaldiaz gozatzen. Nahiz eta taldearendako lehen aldian izan osoko bilkuren aretoan kontzertua ematen zuena, lekua txiki gelditzea lortu zuen erakarri zuen jendetzarekin.

Kontzertuan, euren ibilbidea

Alai taldearen hasierako emanaldiak kalean izan ziren: Santa Ageda egunean eta Gabonetan kaleak girotzen ibiltzen ziren. Gerora, herriko auzoetako eliz-

kizunetan eta hainbat ezkontzatan ere parte hartu dute. Ibilbide horrek isla izan zuen kontzertuan.

Elizako kantu birekin eman zion otxoteak hasiera; Lorenzo Perosiren *O Salutaris Hostia* eta Bepi de Marziren *Signore delle cime* abestiak kantatu zituzten lehenengo. Bost bat kantu herriko abestu zituzten gero; Alberto Mitxelenaren *Ai hori begi eder* eta Pablo Sorozabalen *Maitte*, besteak beste. *Deep river* abesti beltz espiritualaren gaztelaniazko bertzio bat egin zuen ostean taldeak estreinako. Santa Agedako pare bat kantuan ere ez zuten hutsik egin erreperitorioan eta Gabonetako beste bi abesti ere kantatu zituzten. *Agur Jaunak* kantua erekin borobildu zuten kontzertua eta publiko guztia zutik jarri zen abesti horren hasieran.

Herritarrak gustura

Txalo zaparrada luzeak jaso zituzten herriko abeslariak eta kontzertuaren amaieran herritarren zorionak eta esker hitzak jaso zituzten protagonistek. "Zoragarria izan da. Taldea aspaldikoa da eta niri betidanik gustatu izan zaizkit abestu dituzten euskal kantuak", azaldu zuen ikus-entzule batek kontzertuaren amaieran. "Askok gustatu zait. Erreperitorioa egokia izan da nire ustez; Gabonetako kantak, Santa Agedakoak... Herrian ez dute sekula hutsik egiten eta espero dut jendea herrian eta baita herritik kanpora ere konturatzea zer daukagun bertan", zioen beste batek. Otxoteko kideak ere gustura gelditu ziren emanaldiarekin.

Justo Idigoras esker hitzak

Alai taldeko zuzendari Xabier Olabarriak Justo Idigoras izan zuen gogoan zapatuko kontzertuan, urte askoan euren zuzendari bezala egindako lanagatik.



Alai taldea Santa Agedako abesti bat kantatzen eta osoko bilkuren aretoa ikus-entzulez beteta. | A.T.

Tabernaz taberna kantuan

Elgetan domekan tabernaz taberna kantuan ibili ziren 55 lagun inguru. Taberna bakoitzean hiru euskal abesti kantatu zituzten bertaratutakoek. Euria egiten zuelako taberna barruetan abesten ibili ziren, baina kalejiran mugitu ziren taberna batetik bestera. Giro alai murgilduta, gustura ibili ziren elgetarrak. Herritarrez gain, Eibarko Kantuzaleak taldeko hamabi abeslari ere izan ziren giroa alaitzen.

RUPER
ORDORIKA

GURE MUSIKA TALDEAK



Ruper Ordorika. | GOIENA

"Musikari handiak ondoan, zuzenekoaren indarra harrapatzen saiatu naiz estudioan"

- ▶ Oñatiarrak irailean erabaki zuen 'Lurrean etzanda' diskoa grabatzea
- ▶ Kenny Wollesen bateria-jolearekin zazpigarrenez sartu da estudioa

JAGOB DOMINGO | OÑATI

Koplariaren istorioak bueltan ekarri ditu Ruper Ordorikak, beste behin. Azken orduan grabatzea erabaki zuen arren, *Lurrean etzanda* abesti bilduma paregabea da. Ordorikaren imajinarioko bazterretatik hainbat erritmo eta giro islatu ditu, Kenny Wollesen, Leo Abrahams eta Simon Edwards bidelagun izan dituela.

Zelakoak izan dira grabazio saioak? Saioak zoragarriak izan ziren; oso giro ona egon zen eta berehala jarri ginen denok martxan. Elkarrekin grabatu dugu base osoa eta bi egun inguru eman genituen. Horrek, baina, ñabardura asko eskatzen ditu: gitarra parteak amaitu, ahotsak... hori tarteka anaiarekin egin nuen, Azkaraten, Katarainen estudioan. **Nola aukeratu dituzu grabatzeko musikariak?**

Kantuek eskatzen didatena egiten saiatzen naizela esan ohi dut;

batere erraza ez den kontu bat erantzuteko balio duen esaldia da. Normalean, denbora luzea behar izaten dut erabakitzeke eta ahal dena egiteko dauzkagun baliabideekin. *Azukre koxkorrak* neure azken urteetako taldearekin grabatu nuen, baina, oraingoan, garbi ikusten nuen aldaketa nahi nuela, eta hortik abiatu nintzen. Kenny Wollesen aspalditik ezagutzen dut, nirekin grabatzen duen zazpigarren lana izan da. Iazko Jazzaldian, John Zorn Masada kontzertu-maratoi gogoangarrian parte hartu zuen

"Libertade eta freskotasun handia duela iruditzen zait"

Wollesenek eta Donostian hiru egun eman zituen. Entseguen ostean harekin elkartzen nintzen paseo bat eman edo afaltzeko. Halako batean, nire hurrengo diskorako gitarrista ezagutu zuela esan zidan; nolabait, Abrahams nirekin oso ondo konponduko zela uste zuen Wollesenek.

Aurten, ostera, udaberri inguruan, honen guztiaren gainean pentsatzen hasi nintzela, Wolleseni deitu nion, eta orduan jarri ginen martxan. Esan beharra daukat oso berandu erabaki nuela diskoa egitea, ez neukan oso argi aurten egin behar nuenik edo goizegi izango zenik. izan ere, uda aurretik elkarrizketa bat egin nuen eta ez nuen aipatu ere egin diskoa kaleratu behar nuela; neuk ere ez nekielako. Iraileko lehen astean erabaki nuen.

Beraz, dena oso azkarra izan da. Bai; kantuak baneuzkan, neguan ibili nintzen horretan lanean,

ZERTZELADA



LURREAN ETZANDA

Estiloa: Rock.

Egilea: Ruper Ordorika (Oñati, 2014).

Argitaletxea: Elkar.

Iraupena: 44:37 minutu.

Ruper gordinago eta misterioitsuago

Ruperrek erregistroan, melodiak egiteko eran... marka propioa du, beste inork ez duena. Lan honetako zenbait kantutan, baina, marka egon arren, bestelako sonoritate, giro, erritmo eta gitarrak landu ditu. Egia da 'Atako bandan'-ek patroi guztiak betetzen dituela, baina pauso handi bat eman du eta sonoritate grabeago eta ilunagoak landu ditu. 'Bitzza eder denean' rock pieza erraldoia da, hit!a; 'Zerutik gertu ez da ondo egoten' Lou Reed-i omenaldizat daukat nik; 'Euria etengabe'-n Rory Gallagher iruditzen dut; 'Ordu txiki horietan' orain arteko rock makurrena da, itzela; eta 'Liluraren ondok' zein 'Orain barre orain negar' misterioitsuak.

IKER BARANDIARAN

baina azken orduan erabakitako emaitza da *Lurrean etzanda*.

Nola egiten duzu lan kasu hauetan? Diskoak egiteko hamaika modu daudela argi dago, nork berea izan ohi du. Hala ere, gauza hauek ondo atera daitezten, aurreko lana ezinbestekoa da, oso zehatza izan behar du. Nire kasuan, abestiak

goitik behera egiten ditut, baina musikariei ahalik eta askatasun handiena ematen saiatzen naiz, eurengandik ere ahalik eta gehien jasotzeko. Hortik abiatzen naiz; oraingoan, Edwards baxu-jotzaileari eta Abrahamsi kantuak eta partiturak hamabost egun lehenago bidali nizkien. Abrahamsen kasuan, baina, badakit ezin izan zuela lanik egin, bira baten zegoen-eta.

Orduan, grabazio saioek inprobisazio puntu bat ere badute.

Bai, handia, hori da nire asmoa; lehenengo indar hori harrapatzea. Musikari hauek guztiak mundu horretan oso ibiliak dira, musikari handiak dira, eta hori harrapatzea da helburua.

Eta lortu duzu?

Hainbatetan harritu egiten naiz. Diskoa grabatu eta aldi batera hasierako demoak entzuten ditut, eta batzuetan zelako berdintsuak diren harritu egiten nau. *Lurrean etzanda* era askotariko diskoa dela iruditzen zait, libertate eta freskotasun handia duela uste dut, bat-batean eta indar handiz egindako kantuak.

Istoriok kontatzeko bidea?

Kantua ez da ez berba ez doinua, bien artean sortzen den zerbait da. Ez dakit zer den lehenengo, zerk duen indar handiagoa; nire ustez, oreka bat bilatu behar da; edo desoreka bat, ez dakit.

Teklatuak ere presentzia du.

Hiru kantutan grabatu du Jamie Saffek. Aspaldian ezagutzen dugu elkar, eta musikari handia da. Urriari New Yorken emanaldi bat egin nuen, eta hiru kantu amaitu barik eraman nituen, han Saffek graba zezan. Etxean grabatu genituen Hammond organoa eta Wurliitzer teklatura.

Zuzenekoak noizko?

Lurrean etzanda-ren aurkezpena abenduaren 20an egingo dugu Bilboko Kafe Antzokian, baina diskoaren aurkezpena soseguz hartuko dugu.

Lur Etxeberria | EH Bilduko legebiltzarkidea

"Haurra jaiotzen den une beretik izan behar luke zaintzak partekatua"

Zaintza partekatua lehenetsi ordez, legearen ardatzak haurren ongizatea eta interes gorena babestea izan beharko lukeela uste du Etxeberriak

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Kidetzak, EAEko guraso bananduen elkarteak, Gasteizko legebiltzarrean aurkeztutako herri ekimen legegilearen harira, bihar ikastaroa eskainiko du Lur Etxeberriak Arrasateko Emakume Txokoan. Lege proposamenak gurasoen banantze kasuetan, adostasunik ez dagoenetan, haurren zaintza partekatua lehenetsia du helburu, baina Etxeberriaren ustez, azaldu gabeko hainbat helburu ditu atzean. Horiek age- rian utziko ditu bihar, 18:00etan. **Ze arazo ikusten dizkizu lege proposamenari?**

Batez ere, ez duela haurren ongizatea eta interes gorena behar bezala babesten. Besteak beste, zaintza partekatua arau orokor bihurtzea proposatzen du. Uste dut ez dagoela zaintza mota ideal bat guztientzat. Batzuetan izan daiteke partekatua, edo banakakoa edo txandakakoa, eta horrek kasu bakoitza aztertzea, konponbide indibidualizatuak eskatzen ditu. **Gaur egun, zein irizpide hartzen da kontuan zaintza esleitzerakoan?** Kasu bakoitza banaka aztertzen da, eta ekipo psikosozialek begiratzen dute ordura arte haur horren zaintza nola egin den, ze lotura afektibo dituen gurasoe- kin... Eta erabakia hartzen da egoerari jarraikortasuna eman eta haurrak ahalik eta haustura gutxien izan dezan.



Lur Etxeberria, Gasteizen. | JULEN ORBEGOZO

Zaintza eskuratzeko garaian emakumeak abantailak dituela ere entzun ohi da. Egia al da?

Egia da, gaur egun, gehienbat amei ezartzen zaizkiela banakako zaintzak, baina hori banaketa aurreko egoeraren isla da. Izan ere, datuek erakusten dute oraindik amak direla gehienbat haurren zaintzaz arduratzen direnak, eta horren erakusle dugu laneko eszedentziak eta lanaldi murrizketak hartzen dituztenen %90 emakumeak direla. Hala ere, euren abiapuntua da gizonak diskriminatu egiten dituela legeak. Hori asmakizun bat da.

Zaintzari bakarrik ez, beste arlo batzuei ere eragingo die legeak. Zer dio etxebizitzaz?

Orain arte, haurrek daukate familia etxebizitza erabiltzeko esku-

bidea, baina Kidetzak, kasu haue- tan, etxebizitzaren likidazio auto- matikoa proposatzen du. Nola egiten du bat horrek haurraren interesak babestearekin? Etxebi- zitza likidazioa ondo etor dakioko gurasoetako bati, baina haurrari? **Zein irtenbide proposatuko zenuke?** Legeak haurren interes gorena babestu behar du guztiaren gainetik. Bestalde, banantze-prozesua gatazkatsua bada, lege batek ez dauka gatazka hori gainditzeko gaitasunik. Eta, horregatik, gura- soen erantzunkidetasuna bultzat- zeko bestelako lege eta politikak egin behar dira, sakoneko alda- keta sozialak ekarriko dituztenak. Haurrak jaiotzen direnetik zain- ta partekatua izatea lortzen bada, gurasoak banantzean ere horre- la izaten jarraituko du.

Espazio kolektiboetan komunikazioa hobetuz

Merkatu gizartearen erasoei aurre egiteko, komunikazio eraginkorra ezinbestekoa da

GORKA TORRE | ARRASATE

Espazio kolektiboek epe luzera iraun dezaten, pertsonen arteko harremanak, besteak beste, ondo- ko baloreetan oinarritu behar dira: zintotasuna, errespetua, konfiantza eta elkar laguntza; eta gatazken prebentzioarako eta kon- ponketarako, sentimenduen adie- razpenean oinarritzen den komu- nikazioa gauzatu behar da.

Hori, ordea, ederra bezain zaila da, pertsonen baitan mende- tan zehar merkatuaren logikak eragin duelako. Merkatu logikak gizatasuna kentzen du, harreman sozialak desegiten ditu eta indi-

bidualismoa eragiten du. Jendar- te askatua, oraindik posible da, baina horretarako, merkatu gizar- tetik atera behar gara, gure harre- man sozialak eraldatu behar ditugu, elkarrekiko zaintzaz eta afektibitatez askatasunean bizi diren pertsonaz osatutako espa- zio kolektiboak eraikiz.

Horretarako, sentimenduen adierazpenean oinarritzen den komunikazioa gauzatu behar da.

Komunikazioa hobetzeko gakoak Marshall Rosenbergen teoria eta esperientzia oso lagungarria izan dakiguke, eta erran gabe doa

komunikazio molde horrek bizi- ko egoera guztientzat balio duela, pribatuak zein publikoak.

- 1) Hausnartu: Zeintzuk dira gustuko ditugun edo gustuko ez ditugun gertakariak?
 - 2) Gure egiazko sentimenduak zehazki adierazten entseatu.
 - 3) Sentimendu hauen jatorrian diren gure nahiak, beharrak edo baloreak zeintzuk diren argitu.
 - 4) Nahi genukeena adierazi.
 - 5) Gure mezua era argian adie- razi dugula egiaztatu.
 - 6) Gure adierazpenak bestearen baitan eragin dituen senti- menduak entzun.
 - 7) Ongi ulertu dugula ziurta- tzeke eta erakusteko, bestearen mezua gure hitzekin islatu.
 - 8) Entzundakoaren ondotik, iritziak berrikusteko prest izan.
 - 9) Gure umore txarraren jato- rriari buruzko galderak pausatu gure buruari.
- Artikulu osoa irakurgai, www.guraso.com webgunean.

Drogamenpekotasunari aurre egiteko onena, eguneroko lanketa

MAIALEN TORRES | DEBAGOIENA

"Ez dira substantziak arrisku- tsuak direnak, substantzia horien kontsumorako ohitura, arrazoi edo jarrerak baizik", dio Fermin Martin Kalekka elkarteko gizarte hezitzaileak. Hain zuzen ere, asteburu hone- tan bertan izan dira Elgetan, hamar eta hamabi urte bitar- teko gazteei informazioa eskain- tzen. Egiten dituzten saioen helburua haur, nerabe eta gaz- teei drogamenpekotasunari aurre egiteko errekurto eta estrategia desberdinak ematea da, beti ere talde bakoitzaren beharretara egokituz.

Gazteak, hitz egiteko prest

Martinek azaldu duenez, orain arte egindako saioetan, gazteak hausnarketa eta lanketarako prest agertu izan dira, beraz ezin ukatu gaiarekiko interesa dutenik "normalean ondo har- tzen dituzte gure saioetako ari- ketak eta gomendioak", dio gizarte hezitzaileak.

Edonola ere, argi du aste- buruan Elgetan izandakoa beza- lako tailerrak zerbait puntuala baino ez direla. Izan ere, zen- baitetan gazteentzat zalantzak argitzeko erreferente izan dai- tezkeen arren, Martinek uste du ezinbestekoa dela egunero- kotasunean ere lanketa hori

egitea, era jarraitu batean eta gaitza normaltasunez tratatuz.

Irtenbidea, gizarte hezitzaile- ren esanetan, ez da uneoro arduratuta egotea, eta are gutxia- go polizia lanetan hastea. Bai- na bai gaiari arreta eskaintzea, eta hori gazteekin harreman zuzena dutenei dagokiela uste du, esaterako, familiarri eta esko- lari, baina baita gaztelekuari edo bestelako herri eragile batzuei ere, gazteengan azaltzen diren kezta eta larritasunak detektatu eta horiei erantzunez.

Gurasoak gazteen eredu

Martinek azpimarratu du, bai- ta ere, substantzia guztiak izan daitezkeela kaltegarriak, eta prebentzioak ez duela arreta droga gogorretan bakarrik jarri behar. "Kokaina marra bat sar- tzea oso kaltegarria izan daite- ke, baina egunean tabako pake- te bat erretzea edo asteburu- ro kalimotxoia litroka edatea ere bai", dio, eta horregatik uste du gurasoek kontziente izan behar dutela eurak direla seme alaben erreferente eta ez dute- la kontraesanean erori behar.

Hori dela eta, etxeko kom- tsumo ohiturak zaintzea gomen- datzen du. Esaterako, alkohola- rekin lotuta ez dauden dibe- rtsio edo ospakizun eredu desberdinak jorratuz.

ERREZETA

Gabonetarako prest: Intxaurdun txokolatezko turroia

M.T. | ARRASATE

Ezer baino lehen, turroiaren oinarria egiteko, 230gr txokola- te eta 160gr esne kondens- tsatu egosi behar dira bainu mariatan. Txokolatearen kakao maila norberaren gus- tuen araberakoa izan daiteke, beltzetatik hasi, eta esnedu- neraino, baina edonola ere, ezinbestekoa da, urtu ahala, pixkanaka eta era uniformean nahastea.

Behin bi osagaiak nahas- tuta, aurrez zuritu eta zatitu- tako intxaurrak gehitu behar dira, 70gr gutxi gorabehera. Gainera, intxaurrekin egin beharrean, beste fruitu lehor batzuk ere gehitu dakizkioke txokolateari.

Azkenik, nahasketa labe- rako paperez estalitako mol- de batera bota eta hozten utzi behar da, guztiz gogortu arte. Gomendagarria da turroia jan aurreko egunean egitea, gogortzeko denbora izan dezan.

ARGITALPENA

'Eskuzorroa', Errusiako negu hotzeko abenturak

M.T. | ARRASATE

Errusiar tradiziozko La Mou- fle kontakizuna euskarara itzuli dute, Flammarion Pèrre Castor sailetik. Maialen Galle- ras eta IKAS Euskal Pedago- gia Zerbitzuko hainbat langi- laren aholksean, euskara batuan, CD batean bildu dute *Eskuzorroa* izenburupean.

Laborari batek basoan gal- dutako eskuzorroa da isto- rioaren abiapuntua. eta elu- rretan hotzak akabatzen dau- den basoko animalien elkargune bilakatuko da. LH 1. eta 2. mailetakoa haurrei zuzendutako ipuinak, negua- ren eta hotzaren aitzakian, elkartasuna eta laguntza beza- lako gaiak lantzen ditu.

www.ikas.org webgunean ere jarri dute entzungai ipui- na, ustiapen pedagogikorako. Gainera, bertan, euskara batuaz grabatutakoa zein zube- rerez irakurritakoa bildu dituzte.



1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Bergara. Bergara aldean baserri bat erosiko nuke. Telefonoa: 602 51 0771

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Bilogelako etxebizitza ematen da errentan Santakurtz kalean. Prezio onean. 943 79 63 68 edo 675 00 95 77

Aretxabaleta. Hiru logela, bi bainugela, sukalde-jangela eta egongela. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Ia berria. Informazio gehiago www.euskalnet.net/aguirre helbidean edo telefono honetan: 630 60 4775

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean, Ferrerías kalean. Hiru logela, guztiz hornitua eta berokuntzarekin. 669 66 54 99

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. Egoera onean. Hiru logela, egongela, sukalde, bi komun eta garaje-trasteleku. Berokuntza eta urberozentrala. Bizkaia Etorbidea 7ean. 645 73 29 66 edo 943 76 03 31 (Jose Manuel)

Bergara. 50 metro koadroko apartamentua ematen da errentan Zubieta kalean. Erosteko aukera ere bai, 48.000 euroan. 679 45 57 62

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan alde zaharrean. Guztiz berritua. Bi logela. Berokuntzarekin eta altzariz hornitua. 629 38 29 96

Elgeta. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, jangela-egongela, sukalde hornitua eta bi bainugela. Berokuntza eta igogailua. Egoera oso onean, eraikin nahiko berria. 606 08 39 92 edo 679 56 84 78

Eskoriatza. Goiko Kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta bi bainugela. Jantzita. Berokuntza eta igogailuarekin. 687 78 86 98

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, gutxienez bi logelakoa. Hilean gehienez 500 euro ordain ditzaket. 605 68 18 49

Baserri bila Debagoienan. Bikote arrasatearra Debagoienan edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

Bergara. Etxebizitza errentan hartu nahi dut. 667 36 09 39

Oñati. Hiru logelako etxebizitza bila nabil, deitu zerbaki honetara. Eskerrik asko. 658 86 98 38

Oñati. Onatiko neska arduratsua bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartuko luke. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 655 71 15 15

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 629 80 7773

Arrasate. Pertsona bat behar da erdigunean dagoen etxebizitza osatzeko. 678 82 69 77

Bergara. Logela ematen da errentan, sukalde eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaian dago. Wifiarekin. Hilean 250 euro, gastuak barne. Kontratu barik. 637 18 07 23

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia, 19 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. 943 76 06 60 edo 689 36 86 42

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Garbitasunean edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, gauetan zein asteburutan. Eskarmentua dut eta lege papearak ere bai. 618 14 71 34

Arrasate. Asteazkenean zehar ume eta nagusiak zaindu edo denetari garbiketarak egingo nituzke. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 603 33 50 64

Arrasate. Eskarmentu handiko neska goizetan nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 634 12 56 87

Arrasate. Esperientzia handiko mutila asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu. Erreferentzia onak ditut. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 662 43 08 54

Bergara. 24 urteko neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baita janaria prestatu, etxea garbitu eta ospitaleko egonaldia egiteko ere. Esperientzia dut eta erizaintza ikasketak eginda. Bergaran zein Arrasaten edo Antzuolan. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 618 92 40 53

Bergara. Eskarmentua eta informez daukan emakumea etxeko lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko gertu. 610 34 97 88

Debagoiena. Emakume euskalduna lanerako gertu. 606 50 25 67

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eu/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagor argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarria egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 apartamentu eta txokorekin. 85.000 €.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Espoioia 95 m², 3 logela. Garajea eta trastelekuarekin.
- Masterreka 70 m², 3 logela. Igogailua eta trastelekuarekin. 130.000 €.
- Irizar pasealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000 €.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100 €.
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €.
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €.
- Fraizozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m²ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Antonio 86 m², 3 logela, trasteleku eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m²ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berritua. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 160.000 €.
- San Lorenzo 65 m², 2 logela. Garajea eta trasteleku aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berritua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berritua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trasteleku, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trasteleku. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Bidekurutzeta 65 m², 2 logela. Trasteleku. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Ibarra 129 m², 4 logela, berogailua. 150.000 €.
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trasteleku eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

ANTZUOLA:

- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €.
- Sagasti 86 m², 3 logela. 163 m²ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Behoko Auzoa 60 m², 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekale 94 m², 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Aiherra 83 m², 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

SORALUZE:

- Sagor Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:

- Torrealdia 77 m², 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iurbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

OSINTXU:

- Osintxu 85 m², 3 logela. Igogailua. Berritua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

Debagoiena. Lan bila nabil: nagusiak zaintzen, garbitasunean edota sukaldelaguntzaile. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta garbitasunean. Autorik ez dut. Berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 603 63 21 99

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Garbiketara, zerbitzari eta banatzaile moduan lan egin izan dut. Berehala hasteko gertu nengoke. Gidabaimena daukat. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 646 72 08 24

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Gidari, sukalde laguntzaile, margotzen, eraikuntzan edota nagusiak zaintzen aritutakoa naiz. 636 60 48 51

Debagoiena. Mutila nagusiak zaindu edota garbitasun lanak egiteko gertu. Gidabaimena eta autoa daukat. 687 08 37 16

Debagoiena. Nagusi eta umeak zainduko nituzke eta baita garbitasun lanak egin ere. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 632 87 22 46

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Ingrid. 649 14 82 61

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna lanerako gertu. Umeak zaindu, orduka garbiketarak egin edota nagusiak zaindu eta paseoa ateratzeko laguntzen. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Geriatria ikasketan ditut. Nagusiak zaindu edota garbitasun lanak egingo nituzke. Egun osoz, erdiz zein orduka. 656 85 66 02

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaindu edo denetari garbiketarak egiteko gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izanda. 603 34 58 20

Debagoiena. Neska arduratsua, euskalduna, umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 634 42 67 04

Debagoiena. Neska arduratsua, oinarriko geriatria eta sukaldaritza ikasketaduna, nagusiak zaindu edo denetari garbiketarak egiteko gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izanda. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 615 06 28 04

Debagoiena. Neska espainiarra nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko gertu. Egun guztian zehar. Esperientzia dut. 633 84 65 30

Debagoiena. Neska gertu gaez nagusiak zaintzeko edo umeak zaintzeko. 603 23 86 28

Debagoiena. Neska gertu lanerako: zerbitzari, sukaldean, nagusiak zaintzen eta abar. 654 11 15 14

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketarak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo baita orduka ere. 602 15 56 95

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta garbitasunean. Autorik ez dut. Berehala hasteko moduan. 603 63 31 55 edo 677 83 37 23

Debagoiena. Sukaldari laguntzaile, garbitasun lanetan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Autoa daukat. 636 11 23 40

Sukaldaria. Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egingen urtetan aritutakoa. 666 83 21 95

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Irakaslea behar da mutiko bati eskola partikularrak emateko. DBH 2. mailako matematikak. 688 65 73 49

Bergara. Irakaslea behar da mutil bati eskola partikularrak emateko, ingeniaritza graduko 2. maila. 695 75 65 64

Oñati. Irakaslea behar da bi neskatilari eskola partikularrak emateko. DBH 4. maila eta Batxilergoko lehenengo mailarako. 627 91 23 21 (Mila)

6. MOTORRA

602. EROSI

Mendirako motorra. Mendirako motorra erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 656 75 76 98

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katu ar heldua. 3 urteko katu arrarentzat etxe berri baten bila nabil, zaindu ezin dudalako. Esterilizatuta dago eta behar dituen txertoak hartuta ditu. Oso jostaria da. Deitu 653 71 78 82 telefonora.

Txakurkumeak. Txakurkumeak ematen dira opari. Deitu telefono zerbaki honetara. 677 54 05 96

Txakurra opari. Pomerania arrazako txakurra, lau urtekoa, ematen da opari. Alergia arrazoiak direla eta, ezin dugu zaindu. Oso maiztagarria da eta ume artean hazitakoa. Txertoak eta txipa dauzka. 625 70 38 92

704. BESTELAKOAK

Txoriak. Txoriak badituzu emateko, nik jasoko nituzke. 637 18 07 23

8. DENETARIK

802. EROSI

Realeko kamiseta. 6-8 neurriko kamiseta erosiko nuke. Berdin da zein denboralditakoa den. Interesatuok idatzi marysea15@hotmail.com helbidera edo deitu edo whatsapp bidaliz zerbaki honetara: 653 72 22 54

804. HARTU

Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Iñaki. 699 06 23 95

805. TRUKATU

Korrika egiteko zinta. Oinez ibiltzeko edo korrika egiteko zinta trukakutako nuke spinnineko bizikleta baten ordez. Zinta Domios TC270 modeloa da. 13 km orduko hartzen ditu eta plataforma aldapan ere ipin daiteke. 665 75 88 52

806. GALDU

Dirua Arrasate. Abenduaren 11an, goizeko 11:20-11:30ak artean, dirua galdu dut Zarugalde-rik Garibairabidean. Ikaslea naiz eta garrantzitsua da niretzat diru hori berreskuratzea. Aurkitu baduzu, deitu zerbaki honetara, mesedez: 648 51 16 17

807. AURKITU

Kartera Antzuolan. Dirua bakarrik duen kartera topatu dute Antzuolan. Ez dauka dokumentaziorik. Galdetu udaletxean. 943 76 62 46

Pen-drivea Aretxabaletan. Azaroaren 20an, Durana kalean pen-drive bat aurkitu genuen. Informazio gehiagorako: 600 05 19 00

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Neska bila. 40-45 urte bitarteko neska ezkongabea ezagutu nahiko nuke. 615 75 09 90. 615 75 09 90

ETXKO SUKALDERAINO

Manu Muniategiandikoetxea | Artista

- ▶ Pertsona normaltzat du bere burua; lasaia eta bidaiazalea da
- ▶ Bere lanak goi mailako sukaldaritzza estimatzen erakutsi dio

"Kontua ez da non erakutsi, kontua da zure lana nora heltzea nahi duzun"

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Arte Ederrak ikasi eta pinturaren eta eskulturaren arloan espezializatu zen Manu Muniategiandikoetxea (Bergara, 1966). Estatu mailan makina bat lekutan bere lanak erakutsi ondoren, euskal artearen ikono klabea bilakatu dela esan daiteke.

Zelakoa da Manu Muniategiandikoetxea?

Pertsona lasaia da, bidaiatzea asko gustatzen zaiona. Bestetik, normaltzat dut nire burua, ez dut ueste berezia naizenik.

Zein harreman daukazu sukaldearekin?

Beti gustatu izan zait sukaldean aritzea. Aita oso jatun berezia zen eta amak beti normaltasunetik kanpo zeuden platerak egiten zituen, gehienbat; horrek piztu zidan plater berriak probatzeko kuriositatea. Duela 15 urte-edo, galeria batean lan egiten nuen eta jende asko ezagutu nuen. Euskal Herriko txoko asko ikusteaz gain, beti Mugaritzen egiten genuen bazkaria. Orduan, jate-txekoekin harremana egin eta bertan ikasi nuen estimatzen maila horretako sukaldaritzza.

Zein da zure espezialitatea?

Ondoen egiten dudana da txitxarro handia labean.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun- nik onena?

Mugaritzera gonbidatuko nuke. Bertan ez daude aukeratzeko platerak, dagoena zerbitzatzen dute; abangoardiako platerak ateratzen dituzte. Gainera, urtero aldatzen dituzte plater horiek; beraz, probatzen joaten gara.

Zeinekin gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan eseri?

Joseba Sarrionandiarekin.



Pintura ala eskultura?

Seme-alaben artean bat aukeratzeta bezala da; dena bat da niretako.

Zergatik artista?

Nire uestez, izatez danok gara artistak; denok dugu sortzaile puntua. Bestetik, kontuan izan behar da norberaren inguruko egoera naturala, soziala, ekonomikoa... baina potentzial hori lantzen bada, denok gara sortzaile.

Lotuta daude sukaldaritzza eta artea?

Duda barik. Sukaldariekin harremanetan nagoenetik ikusi dut artea kreazio bat dela. Edozein diziplinan, bere lana modu librean aurrera eramaten duena eta zerbait berria ahalegintzen dena egiten, ba, sortzen ari da; beraz, bai, batera doaz.

Artearen esparruan miresten duzun inor?

Gustuak aldatzen doaz bizitzan zehar; afinitate kontua da. Orain, XX. mende hasierako artistak atsegin ditut; errusiarrak, gehienbat. Eta, bat esatearren, Martin Kippenberger artista asko maite dut. Artista punk samarra izan zen, mugak apurtu zituena, oso ildo arrarokoa, gauza desberdinak egiten zituena umore finarekin.

Artista ez bazina...



Manu Muniategiandikoetxea artista bergarra. | GOIENA

"Asko maite dudan artista da Martin Kippenberger errusiarra"

Bidaietako gidari horietako bat. Edo bestela, irakasle.

Zer maite duzu bizimodu honetan? Bizitza bera.

Non gustatuko litzaizuke zure lanak erakutsi?

Mila leku daude. Kontua ez da non erakutsi, kontua da zure lana nora heltzea nahi duzun. Ni edozein lekutan erakusten gustura nago, baina norberaren lana artearen *meka* handi batera hel-

tzeak esan nahi du jende askorengana helduko dela; eta hori, hain juxtu, artista guztiek gura-ko luketen zerbait da.

Zer errepikatuko zenuke?

Gaztaroa; betiere, orain dudan jakinduria eta esperientziarekin.

Zerk beldurtzen zaitu?

Seme-alabei babesa eman ahal ez izateak beldurtzen gaitu gurasoak.

Lanetik etxera iritsi berri, sofan eseri eta...

Ez dut sofan esertzeko astirik; mila gauza daude egiteko. Ez naiz sofan esertzen 23:30ak arte, gutxienez.

Nora ospa egingo zenuke gustura? Mexikora, Karibera.

Ze aholku konpartituko zenuke? Bizi bizitza, bakarra da-eta.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

ETXKO POLBOROIAK

Zeinek ez ditu sasoi honetan polboroiak jaten eta *Pamplona* esaten, pareko guztiak apurrez bete arte?

Ba horixe berori egiteko proposatuko dizuet, baina oraingoan, zelan ez, etxean egindako polboroiak erabilia. 25 bat egiteko errezeta emango dizuet gaur.

Andaluziatik

Polboroiak jatorriari dagokionez, berriz, ezustekoa hartu nuen jakitean Espainiako jaki direla izatez.

Hain justu ere, Gabonetako gozo tipiko andaluziarra da. Eta bereziki, Estepako (Sevilla) eta Tordesillasko (Valladolid) polboroiak dira ospetsuenak.

Eta gurera etorrita, Nafarroan ere egiten dituzte gozo askoak: horien artean ezagunenak dira Pitillas herrikoak.

Irina, txerri-gantza, azukrea eta almendra birrindua dira polboroiaren osagai nagusiak.

Edozelan ere, askotan, beste osagai batzuk ere gehitzen zaizkie, kokoa, kanela eta sesamoa, esaterako, eta, horien bitartez, hainbat polboroi mota sortzen dira. Normalean, plater batean almendra

zurituarekin eta turroiarekin batera jartzen da.

Hautsetik

Saldu, berriz, papertxo batean estalita saltzen dira, eta, askotan, jan

baino lehen eskuarekin zanpatzen da polboroiak, jatean birrintzea saihesteko.

Postre horri hautsak ematen dio izena, gaztelaniazko *polvo*-k. Hain justu ere, irina gehitzen zaionean, badirudi gozo horrek gainean hautsa duela.

Prestaketa

1. Laberako egokia den kristalezko ontzi batean irina eta almendra birrindua jarriko ditugu. Segidan, labean sartuko dugu 180 graduan, ordu erdiz, gorritu arte. Noizbehinka eragin egin behar da, askorik ez dadin txigortu. Dagokion denbora bukatutakoan, labetik atera eta hozten laga behar da.
2. Irin eta almendra nahasketa hozten denean, azukre-hautsa botako dugu eta koilarakada bat kanela. Koilara handi baten laguntzarekin nahastu egingo dugu. Segidan, pasta egingo dugu, txerri-gantza eta gurina gehituta. Koipe gehiago behar izanez gero, gehitu. Horrekin guztiarekin egindako masarekin polboroiak egin, nahi dugun itxura eta tamainarekin.
3. Laberako bandeja bat laberako paperarekin forratuko dugu, eta gainean jarriko ditugu polboroiak. Labea 225 graduan dagoela sartuko ditugu, bost minutuz. Adi denborarekin, bost minutuak gaituz gero gogor-gogor jartzen dira-eta. Denbora pasatu ostean, labetik atera eta hozten laga. Ondoren, azukre-hautsa bota gainetik eta kito!



Polboroiak.

Fitxa

- ▶ Denbora: 120 minutu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★

OSAGIAK

- ▶ Irina, 250 g.
- ▶ Almendra birrindua, 100 g.
- ▶ Azukre-hautsa, 100 g.
- ▶ Gurina, 100 g.
- ▶ Kanela.
- ▶ Txerri-gantza, koilarakada handi bat.



Samsungek aurkeztutako prototipoetako bat. | SAMSUNG

Telefono tolesgarria salduko du Samsungek 2015ean

Plega daitekeen lehenengo modelo aterako dute datorren urte amaieran

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Urtea oraindik amaitu ez denean 2016rako joerez hitz egitea ausarta bada ere, ematen du gailu tolesgarriek hartuko dutela merkata bi urte barru. Lehena Samsung - munduan mugikor gehien saltzen dituen marka - izango da. Konpainiaren presidente-ordeak aurkeztu ditu inbertitzaileen aurrean asmo berriak. Pantaila erditik toles daiteke, eta, horrela, ikusten den azalera bikoiztu. 2015ean ekoizten hasi eta urte amaierarako aurkeztu gura dute publikoki modelo berria. Merkatu masibora, ordea, 2016an iritsiko litzateke, iragarritako asmoen arabera. Aurreratu, berez, ezer gutxi aurreratu dute eta jakin ere ez omen dakite zein modelo zehatzetarako aterako

duten. Hala ere, datorren urte amaierarako 30.000 eta 40.000 modeloren artean ekoizteko konpromisoa hartu du Samsungek inbertitzaileen aurrean. Era berean, gertu lituzkete lan horretara bideratuko dituzten lantegiak. Proiektua, gainera, ez da berria: 2013ko CES teknologia topaketan pantaila malguen teknologia erakusten zuen bideoa aurkeztu zuten eta ordutik hona garapen etengabe ibili dira materialarekin.

Murrizketa modelo kopuruan

Merkatuari dagokionez, Samsungek lehen postuan jarraitzen du mugikor gehien saltzen dituen enpresen artean. Lehena bai, baina salmentetan azken urtean gainbehera handia jasan du Korea-

ko konpainiak. Batez ere urtearen azken hiruhilekoan nabaritu dute beherakada; %74, zehazki. Galaxy modeloez jada ez dute lehenengo harrera eta Txinako ekoizleek, Xiaomik eta Lenovok, batez ere, harena zen merkatuaren zatiaren hein handi bat irentsi dute.

Samsungek bereizgarri moduan beti izan du produktuen katalogo zabala eta azkenaldian hartutako neurrien artean dago katalogo horren murrizketa, eskaintza txikiagoa izatea. Hala, ia %30 gutxituko dute modelo aukera, eta horrekin emaitza ekonomiko txarreari aurre egiten hasi gura dute. Oraingoan, ez dute argitu katalogo berrirako zein modelo utziko duten alde batera, baina, asmoari begiratuta, hasiera baten asko izango lirateke.

P2Pan oinarritutako nabigatzaile baten dihardu lanean BitTorrent-ek

J.B. | ARRASATE

Internet partekatze-sare ireki eta libre bezala ulertu dute hasieratik BitTorrent-en, *torrent* bidezko erabiltzaile arteko fitxategi banaketa sisteman. Orain zerbitzu horren areagotze moduan, nabigatzailea ere jarri dute eskura 2015ean. Interneteko ohiko nabigatzaileak ez bezala, Maelstrom nabigatzailea P2P protokoloan oinarritzen da eta, horrela, informazio eta fitxategi guztiak urruneko zerbitzari baten kokatu beharrean, erabiltzaileek eurek nabigatu ahala biltegitratzen dituzte datuak. Nabigazioarekin batera webgunearen datuak jaitsi,

gorde eta gainerako erabiltzaileekin partekatzen ditu Maels-tromek; zerbitzari jakinetan zentralizatu ordez, sare oso bat zerbitzari lanetan jarritz, torrent fitxategiekin egiten den bezalaxe.

Garapen bidean dago oraindik teknologia, webgune bat bistartzeko beharrezko diren fitxategiak ez baitira mp3 ala bideo fitxategi ohiko eta egonkorak. Zailtasunak zailtasun, zerbitzariari itzuri eginda sare independente eta autonomoago baten proposamena egiten da proiektu berriarekin, hain kolokan jartzen dabiren sarearen neultraltasunaren mesedetan.



ZANO

'Selfie'-ak egiteko 'drone'-a

Drone eta selfie modako berba bi dira. Torquing Technology enpresak Kickstarter gunean autoargazkiak egiteko drone hegalaria aurkeztu du. 200 euroko prezioa ezarri diote lehen modeloari eta laster hastekoak dira ekoizten, behin hasteko beharrezkoa duten dirua batzen dutenean. Zano dauka izena modeloak eta jabea jarraitzeko funtzioa ere badauka.

Instagramrek jadanik Twitterrek baino erabiltzaile gehiago ditu

J.B. | ARRASATE

Neurri kontuei dagokienez, Instagram gailendu zaio jada Twitterri. Datu ofizialak jakinarazi ditu konpainiak berak, eta 300 milioi erabiltzaile dituzte erregistratuta, esan dutenez, eta 30.000 milioi irudi kargatu dira. Twitterrek gaur egun 284 milioi erabiltzaile lituzke, azken estimazioei kasu eginez gero.


Irabaziak ematen hasita

Instagram, irudiak partekatze-sare soziala, 2012an eskuratu zuen Facebookek, sasoi hartan areriorik mehatxagarriena paretik kentzeko mugimendu bezala ulertu zen eros-



Instagram, mugikor baten.

keta batekin. Aurten jada sarea soziala irabaziak ematen hasi da eta lau urte justu besterik ez da bi lagunek proiektua abiarazi zutenetik.



GOOGLE

Google Glass-en bigarren belaunaldia, patentatuta

Oso txepela izan da Google Glass betaurrekoen harrera kontsumitzaileen aldetik salgai egon den hilabeteetan. Esperotako arrakastatik urrun, Googlek jada patentatu du gailu ezagunaren bigarren diseinua. Intel enpresak interes berezia agertu du betaurrekoetan, eta lan-mundura bideratu gura lukete, nagusiki, gailua. Oraingoan, ez kontsumitzaileek eta, ematen duenez, ezta Googlek ere ez dute proiektuari bultzada berezirik emateko asmorik erakutsi.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO

Klasikoak bueltan datoz






Formatu berritzaileak, 3D irudiak, zuzeneko konexioak, kroma... telebista azken aldian eguneratu egin da, eta formatu berriak ez ezik, teknologiak eskaintzen dituen onurez baliatu da ikuslea erakartzeko, baina badirudi dena alferrikako lana izan dela.

Duela egun batzuk Maria Gomez Kemp egon zen *El Hormiguero*-n, eta Will Smithen laguntzarik gabe primerako *share*-a egin zuen. Bertan 1, 2, 3 mitikoa berreskuratu, eta adin batetik aurrerako ikusleak ez ezik, adin tarte guztietakoak bereganatu zituen. Antena 3 harrituta geratu zen, eta Vasile hasi da titirik ikusten ez diren programak egiten. Mari Tere Camposek adibidez, astebururo bere alaba eta kuadrillakoekin egiten duen saio/hemerotekak ere ikusle asko lortzen ditu eta herrikidea dudan Jorge Fenandezek ere ikusle asko dituen *La ruleta de la suerte* gidatzen du.

Garai bateko programek duten arrakastaz konturaturara edo, TVEk bere albistegiak NO-DOaren antzekoak egiten hasi da. Klasikoak ez dira inoiz joan, baina bueltan al datoz? Hori horrela bada, Goienan *Amaia DJ* saioa kendu eta *Cantares* egin beharko genuke. Batek daki!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 15	MARTITZENA, 16	EGUAZTENA, 17	EGUENA, 18	EGUBAKOITZA, 19
				
San Juan ermita Bergarako San Juan auzoan dagoen ermita inauguratu zuten domekan, eta horierakutsiko dute. 20:00	Komentua Arrasateko San Franzisko komentua eza-gutzeko aukera, Mireia Bikuñaren eskutik. 20:00	Sare sozialak Amaia Pavon MUko irakasleak sare sozia-lei buruz hitz egingo du <i>Debagoiena</i> zuzeneko saioan. 20:00	Kultura kontuak Asteburura begira jarriko da Imanol Gallego eta astebururako kultura hitzordu bat landuko du. 20:00	Dekorazioa Dekorazio kontuak ekarriko ditu <i>Debagoiena</i> zuzeneko saioan. 20:00
12:00 Debagoiena zuzenean 13:00 Ur eta lur 13:25 Zorion Agurrak 13:30 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Kulturriketak 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Lekeitioko zine eta bideo bilera 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Amaia DJ 19:30 Kulturriketak 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Harmailatik 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Kulturriketak 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Harmailatik 13:00 Sasoi betean 13:25 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik 15:30 Onein 15:55 Zorion Agurrak 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Amaia DJ 17:30 Ikusi irratia 18:20 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Idemtitateak 19:30 Harmailatik 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Harira 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Harmailatik 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Lekeitioko zine eta bideo bilera 13:55 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Ur eta lur 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Harmailatik 17:30 Ikusi irratia 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Harmailatik 19:30 Idemtitateak 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Gipuzkoa pedalka 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Gogoetaren plaza 00:30 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Gipuzkoa pedalka 13:00 Idemtitateak 13:30 Ur eta lur 13:55 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Gogoetaren plaza 16:00 Debagoiena zuzenean 16:25 Zorion Agurrak 16:30 Berriak 17:00 Lekeitioko zine eta bideo bilera 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Harira 19:30 Gipuzkoa pedalka 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Amaia DJ 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Gipuzkoa pedalka 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak 01:00 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Amaia DJ 13:00 Ikusi irratia 13:55 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Amaia DJ 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Gipuzkoa pedalka 17:30 Ertzak 18:10 Ikusmira 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Ur eta lur 19:30 Amaia DJ 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Kulturriketak 22:30 Gogoetaren plaza 23:00 Debagoiena zuzenean 00:00 Berriak 00:30 Amaia DJ 01:00 Debagoiena zuzenean 01:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Hainbat sarrera zozketatuko dira egueneko irratsaioan

Egueneko Fly Shit taldearen kontzerturako sarrerak, hilaren 20ko haur antzerkirako sarrerak, hilaren 22ko bertso jaialdira joatekoak eta hilaren 23ko gospel saioa ikustekoak. Sarrera horiek eskuratu ahal izango dira 943-25 05 05era deituta edo *irratia@goiena.com*-era idatzita.

Julio Galarta pintoreari buruzko elkarrizketa gaur 11:00etan

Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkarteko idazkari Eneritz Tirados elkarrizketatuko dute gaur, astelehena, 11:00etan, *Igo autobusera!* irratiaiko elkarrizketen tartean. Pintorearen lanak iker-tu eta haren lanen katalogoaren gainean lan egiteko bekarri buruz hitz egingo du.

Eguenean izango da urteko azken 'Igo autobusera' irratsaioa

Eguenean, hilaren 18an, eskainiko da *Igo autobusera!* irratsaioaren azken saioa Arrasate Irratian, 10:00etan. Gaurtik eguenera bitartean, beraz, ohiko programazioa izango da, baina, egueneko saioaren ostean, atsedean hartuko du irratsaioak urtarrilera arte. Bitartean, musikaz gozatu ahal izango da irratian.

TELE-ALBISTEAK

Derbia, Santamas krosa eta saskibaloia ikusgai, gaurko 'Harmailatik' kirol saioan

Bergararen eta Aloña Mendiren arteko derbiaren laburpena ere bai

AMAI TXINTXURRETA | ARRASATE
Harmailatik saioan hainbat kirol kontu landuko dira gaur, astelehena (22:00).

Atzo, domeka, Agorrosinen urrezko puntuak egon ziren jokoan Bergararen eta Aloña Mendiren futbol derbian, eta, partidua laburpena jasotzeaz gain, partidua amaitu ostean talde bietako protagonistei hartutako adierazpenak ere jasoko dira asteleheneko saioan.

Arrasaten, berriz, domekan santamasetako krosa jokatu zen. Herriko erdialdean egon zen zirkuituari lau itzuli eman zizkieten parte hartu zutenek eta krosetako irudiak ikusi ahal izango dira Xabi Urzelaik aurkeztutako saioan. Parte-hartzaileen hitzak ere entzun ahal izango dira.



Agorrosinen jokaturako partiduko unea. | GOIENA

Saskibaloian, ostera, Arrasateko MUK Burgosko Grupo Santiago Automoción taldea hartu du etxean asteburuan eta EBA mailako partiduan jasotako momentuak ere ikusi ahal izango dira asteleheneko *Harmailatik* kirol saioan.

Gazteentzako bideoklipen saio bereziak, datozen Gabonetan

Euskal musikarien aurtengo bideoklipak izango dira saio horietan eta parte har daiteke

A.T. | ARRASATE
Aurten ekoiztutako euskal bideoklipen osatutako *Amaia DJ* saio bereziak eskainiko dituzte aste honetatik aurrera. Eguenean, hilak 18, 22:00etan eman-goto dute Goiena telebistan saio berezi horietako lehenengoa.

Bidali mezuak saiora
Ikus-entzuleek parte hartu ahal izango dute gainera, orain arte bezala. Horretarako, Whatsapp mezuak bidali beharko dira 688 69 00 17 telefonora, edo bestela, idatzi Twitterren @amaiadj-ra edo Tuentin DJ Amaia Txintxurretaren helbidera.

Eskatu eta eskaini kantuak mezu horien bitartez, eta idatzi 2015erako desioak hiru bide horiek erabilita.



Amaia Txintxurreta. | GOIENA

Jasotzen diren mezuak telebistan erakutsiko dira eta argazkiren bat bidaltzeraz gain, erakutsiko dira saioan.

Animatu eta parte hartu gazteentzako bideoklipen saioan!

ZORION AGURRAK



BERGARA
Markel Arrieta
Abenduaren 20an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Oparixekin asko disfrutatu! Besarkada eta patxo handi bat familiako danen eta, batez be, Jonen partetik. Mua!



ARRASATE
Ainhoa Ansozregi
Abenduaren 19an, 10 urte. Zorionak, poxpolin! Muxu bero-beroak etxekoen partetik eta primeran pasatu eguna!



ARETXABALETA
Irati Garai Leturiaga
Abenduaren 18an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen eta lagun guztien partetik.



OÑATI
Leire Arregi Heras
Abenduaren 17an, 10 urte. Zorionak, laztana. Ondo-ondo pasatu urtebetetzea. Asko maite zaitugu, bihotza!



ARETXABALETA
Milene Delgado
Abenduaren 16an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat etxeko denon partetik eta bereziki Eriken, Alexen eta Estiren besarkada bat.



BERGARA
Beñat Arin Etxabe eta Patri Etxabe Orobengoa
Zorionak, bikote! Beñatek abenduaren 16an, 9 urte eta Patrik abenduaren 22an, urtebetetzea. Muxu handi-handi bat etxekoen partetik eta ondo pasatu zuen egunean.



OÑATI
Leire Guridi Agirre
Abenduaren 15ean, 7 urte. Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu eguna eta jarraitu horrelakoa izaten!



ARRASATE
Aner Horrillo Zallo
Abenduaren 14an, urtebete. Zorionak, Aner! Zure birramona Inmaculada eta Angelesen, aitate-amamen, gurasoen eta izeba-osaben partetik!



ANTZUOLA
Eneritz Zubikarai Aguado
Abenduaren 12an, 3 urte. Zorionak! Ondo pasatu eguna gurasoen partetik eta muxu handi bat.



BERGARA
Paco Moreno
Abenduaren 12an, urtebetetzea. Zorionak, aitzitxa Paco! Behar dan moduan ospatuko dogu! Asko maite zaitugu. Patxo bat Alaineren eta Kenarren partetik.



BERGARA
Malen Aretxaga Arabaolaza
Abenduaren 12an, 2 urte. Zorionak, Malentxo! Oso ondo pasatu zure urtebetetzian. Patxo handi bat etxeko danon partetik!



ELGETA
Gaizke Blanco Saez de Maturana
Abenduaren 11n, urtebete. Zorionak, Gaizke, gure maitti! Patxo handiak etxekoen partetik eta ondo-ondo pasatu. Besarkada potoloak.



OÑATI
Jose Arregi Iñurritegi
Abenduaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, aita. Ondo-ondo pasatu urtebetetzea. Asko maite zaitugu.



OÑATI
Peru Orueta
Abenduaren 11n, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxeko danon partetik!



ARRASATE
Oxel Azurmendi Casas
Abenduaren 6an, 4 urte. Zorionak, Oxel! Zure urtebetetze eguna oso-oso ondo pasatu aitaoren eta amaxoren partetik. Muxu handi bat, laztana.



ARRASATE
Alazne Berasaluze Pastor
Abenduaren 3an, 6 urte. Patxo handi bat eta ondo-ondo pasatu zure egunean, etxekoen partetik.



ARETXABALETA
Yoel Prieto Cruz
Abenduaren 17an, 3 urte. Zorionak, Yoel! Gurasoen eta familia guztiaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituzte Goiena.eus atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batzera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




Nora Arabiourrutia Carabias

Arrasate. 3,210 Kilo. Abenduaren 7a. Gurasoak: Sulima eta Iban. Argazkian, Nora txikia, amarekin eta aitarekin.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Bizkaiko herria * Irudiko garraio-bidea	Kiskaliak ...gabe eten gabe	Goiza iragartzen du Orreagako
	Bizkaieraz, larru		
	Atentzioa		
Boliviako hiria Kitatzeke dagoena	Esanahia Marokoko hiriburua	Korrikaren antolatzailea Eguzkia	
Noizean behin Onagoak			Hunki
Sagu, hitz elkartzeetan Kitatzeko moduko		Asiako estatua Kontso-nantea	Garen hauek Kontso-bikoitza

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

K	I	T	A	G	V	R	I
S	A	T	I	R	A	K	
H	O	B	E	A	K	G	U
T	A	R	T	E	K	A	
Z	O	R	A	V	A	E	K
P	A	D	I	E	R	A	
N	A	R	R	U			
M	E	T	R	O	A		
M	E						

Z	E	H	S	E	I	U	D
C	I	T	X	E	A		
P	A	P	D	G	S		
U	A	U	R	S	A	H	
A	A	V	A	R			
E	O	A	E	T	E	F	U
A	O	L	F	O	A	J	H
E	A	T	G	R	C	E	P

6	4	2	3	5	8	7	9	1
5	9	7	4	1	2	6	3	8
8	3	1	9	6	7	2	4	5
7	2	5	6	3	4	1	8	9
3	8	4	7	9	1	5	6	2
1	6	9	8	2	5	3	7	4
2	7	6	5	8	9	4	1	3
9	5	3	1	4	6	8	2	7
4	1	8	2	7	3	9	5	6



Ezetz igarri: Mikel atzerrian zen bitartean jaiotako alabatxoa zen ezezaguna.

SUDOKUA

			2	7				
	5				6	8		7
	7	6		8	9			3
1	6		8		5	3		4
3								2
7				3	4			
				6		2		5
			4					8
	4	2	3	5	8			9

HIZKI SALDA

Topa itzazu Hego Amerikako bost hizkuntza

E	A	T	G	R	C	E	P	N
K	I	T	X	U	A	I	C	A
R	A	O	L	F	O	A	J	H
E	E	O	A	E	T	E	F	U
O	A	A	A	I	M	A	R	A
L	U	A	U	R	S	A	H	T
E	P	A	P	Y	D	G	S	L
R	C	K	I	T	X	E	A	A
A	Z	E	H	S	E	I	U	D

EZETZ IGARRI!

Laneko kontuak zirela-eta, Mikel atzerria joan eta handik bi hilabetera itzuli zen etxera. Etxean sartzean, emaztea ezezagun batekin ikusi zuen ohean. Benetan poztu zen Mikel. Nola liteke?

AI, ENE!

Harribitxien partez, arrautza frijitu dotorea

Hatanaka konpainiak benetakoak diruditen jakiekin osatutako bitxien bilduma kaleratu du. Nongoa den konpainia? Japoniarra, nola ez!
www.ii-fake.com



AHOBERO

"Aiztoaz azkar hiltzen zara; burua moztea baino sadikoagoa da fusilatzea"

CHEP HERNAWAN | ESTATU ISLAMIKOKO BURUA

Bere burua Estatu Islamikoaren Indonesiako lidertzat izendatu duen Hernawanen hitzek hotzikara eragiten dute. Ez hainbeste egiten duen alderaketagatik, baizik eta alderaketa planteatzen duen naturaltasunagatik. Erailtzea bera ez da nahiko sadikoa?
www.elmundo.es

EGURALDIA



Max. 8°

Min. 3°

Goizean euri pixka bat egin badezake ere, gerora atertu eta hodeitza saretez joango da
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2014-12-15

HAMARREKOA

Danele Sarriguarte Martxoan kaleratu zuen 'Erraiak' izeneko nobelarekin, euskal idazle gazte nabarmenenetakoa bihurtu da ikasketaz itzultzailea den 25 urteko elgoibartarra | TXOMIN MADINA

"Fikzioa efikazagoa iruditzen zait mezu batzuk helarazteko"

1. Kuriosoa paradoxa: bikote baten amaieraz idazteak eman dio hasiera zure ibilbide literarioari.

Azken baten, barruan nituenak bota gura nituen, eta horretarako aukera ematen zidan bikote baten amaieraz berba egiteak; bakarriketa hasteko aitzakia da.

2. Liburua ez da autobiografikoa, baina protagonistaren zenbat gogoeta dira zureak?

Erlazionatzeko moduei eta hainbat mailatan dauden botere harremanei buruz idatzi gura nuen, eta gogoetak nireak dira. Fikzioa efikazagoa iruditzen zait mezu batzuk helarazteko; horregatik erabili dut.

3. Gordina ei da Erraiak. Ados?

Gordina partez, naturala, desmitifikatua, ez erromantikoa dela esango nuke. Ez zait hain gogorra iruditzen, jendea liburuko gauza askorekin identifikatzen dela uste dut.

4. Zertan aldatu da zure bizitza liburua argitaratu zenuenetik?

Jende gehiagok ezagutzen nau, eta, horrekin, hainbat tokitan bozgorailua lortu dut. Liburua amaitzean, gustura geratu nintzen emaitzarekin, baina ez nuen espero gerora etorri den arreta.

5. Bigarren libururako, sentitzen duzu presiorik?

Iruditzen zait egiten dudana egiten dudala esango didatela lehena hobe da, baina ez dut presiorik sentitzen. Une honetan, nik eman beharrean, irakurtzeko eta bes-teengandik jasotzeko gogoia dut.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Emakumeen zapalkuntzari errepasso bat emango nioke, harreman afektiboetan eredu askatzaileago bat bultzatuz"

AGM

6. Idazten duzunean, norendako idazten duzu?

Testuaren arabera: prentsarako denean, bai pentsatzen dut eremu bat duela eta jende konkretu batek irakurriko duela; horren arabera pentsatzen dut mezua. *Erraiak* idaztean, nire inguru feministan zer irudituko zitzaizen pentsatu nuen, baina gehiago izan da niri balio izan didan ariketa bat.

7. Zein izan da idazle moduan jaso duzun laudorio gustukoena?

Esan didatenean eragin diela, edo aurretik planteatu gabeko galderak planteatzen dizkiedala. Egin didaten kritika txar bat? Esajeratua naizela.

8. Sare sozialetan bada literatura egiterik?

Bai, baina ez du funtzionatzen literatura tradizionalki ulertzen dugun moduan. Badaude oso txio literarioak, eta, gainera, hainbat formatu gehi ditzakezu: irudiak, musika...

9. Idazlea, itzultzailea... zer moduz moldatzen zinen matematiketan?

Kuriosoa da: batxilergoa zientzietan hasi nuen eta gero, humanitateetara pasatzean, ekonomia eta matematika ikasi nituen. Gustura, gainera; matematika beste hizkuntza mota bat iruditzen zait.

10. Idazteaz ari garela, idatzi diozu gutuna Olentzerori?

Bai: *Argia*-ren harpidetza eskatu diot, eta baita gustuko dudana argazkilari baten argazki bat ere.

BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE



Giza eskubideak

A benduaren 10ean, Giza Eskubideen Eguna; pentsatzen ari nintzen la gaia nola landu eta arteztu, bururatu zitzaizdan Xabier Leteren, *Maiteaz galdezka* abestia.

Egunsenti batean maite zen hila / Kalera irten nintzen Jainkoaren bila / Nerekin aurrez aurre esplika zedila / Behingo utzi zezala zeru goi ixila.

Zutaz, maite, egina dut galde (bis).

Bakardade haundi bat neukan bihotzean / Negar egiten nuen zutaz oroitzean / Galdera egin nion Jaunari hotzean / Gizonok nora goaz mundutik hiltzean?

Zutaz, maite, egina dut galde (bis).

Orduak pasa ziren, ezer ez nuen entzun / Nik ez dakit, maitea, konprenitzen duzun / Arratsaren ilunak eguna bildu zun / Jainkoak inondikan ez zidan erantzun.

Zutaz, maite, egina dut galde (bis).

Etixeruntz nindoala oiukatzen nuan / Jainkoa ez da bizi gizonen onduan / Urruti zegoen hura, han bere zeruan / Gu bakarrik utzirik umezurtz munduan.

Zutaz, maite, egina dut galde / Zutaz, maite, egina dut galde / Zutaz, maite, galdera egin nun / Baina Jainkoak ez zidan erantzun.

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net